2026-10-01 I 911. ZENBAKIA
XLVI. URTEA

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA
ERRAN.EUS / TOKIKOM.EUS

ttipi-ttapa

GEHIGARRIA / 31



Bazterrak idor eta baserritarrak larri

Euri faltaren eta beroaren ondorioz, belaiak eta baratzeak idor daude. Bazkarik ez, eta aunitz negurako gordea zutena ematen hasi dira. Baratzeetan ere normalean baino uzta ttikiagoa bildu dute. Sei abeltzain eta nekazariren testigantza bildu du Ttipi-Ttapak. Horietako bat da argazkian ageri den Lurdes Argain Bergara narbartearra. / 10

ITUREN

166 kiloko harria altxatuta, marka ezarri du Estefi Etxebeste Iturengo harri altxatzaileak

Irailaren 19an egin zuen marka historikoa sorterrian, plaza bete-betearen aitzinean. / 66



Estefi Etxebeste irailaren 19an Iturenen, marka hautsi ondotik. IBON ERRAZU URIA

LEITZA

'Zeruaren margolaria' komikia argitaratu du Saioa Maritorena Etxeberria Leitzako gazteak / 8



BAZTAN

Elizondoko Benito Menni ospitaleko langileak 300. greba egunera ailegatu dira / 56

SARA

Ikusi Mikusi haur eta gazte literaturaren festibala eginen dute urriaren 9an eta 10ean Saran / 61

SINADURAK


XABAT ILLARREGI MARZOL / 3


AITOR AROTZENA ALBITZU / 3


MIKEL TABERNA IRAZOKI *KAPI* / 4


EKHI TXOKARRO EZKURRA / 4

ZOZKETAK / 76



AGENDA '26

URRIA

BERA LESAKA

Berako Udala · Lesaka · Nafarroako Antzoki Sarea · Gobierno de Navarra · Nafarroako Gobernua

www.bera.eus
www.lesaka.eus

URRIA

3 LARUNBATA — LESAKA
Hitzaldia
'La Rebelión de la Esperanza'
Mikel Ebalar | 18:00 | Eskol Ttiki
Ant.: Beti-Gaze K.E.K.E.

BERA
Antzerkia. Sendaberri programa. 'Balkoi atzean emakumeak kantari' (Boga-Boga)
17:30 | Kultur etxea | Sarrera: 7€
Ant.: Nafarroako Gobernua

7 ASTEAZKENA — BERA
Hitzaldia
Etxeko langileen lan eskubideak
Gaztelaneko abokatua | 17:00 | Beralandeta
Ant.: Bortzirietako Berdintasun Zerbitzua
Lag.: Batan eta Malerreka-Bertiz-Bertiz-Berdintasun Zerbitzuak

8 ORTZEGUNA — BERA
Liburu aurkezpena
'El eco que Juana dejó' (Mertxe Irazoqui)
Gaztelaniaz | 18:30 | Herri liburutegia
Ant.: Igone liburu denda

LESAKA
08-30 ORTZEGUNA — ORTZIRALEA
Erakusketa. 'Denboraren materia'
Víctor Masferrer | 15:00-20:00 | Liburutegia

10 LARUNBATA — LESAKA
Kantu Zaharren Eguna

BERAKO EMAKUMEEN ARRASTOA
URRIAREN 16TIK 31RA

16 ORTZIRALEA — **Liburuaren aurkezpena eta erakusketaren inaugurazioa**
19:00 | Kultur etxeko esakusgela

16-13 URRIA — AZAROA
Erakusketa
Berako Emakumeen Arrastoa
Astelehenetik ortziralera | 17:00-20:00 | Erakusgela

17 LARUNBATA — **Bisita antzeztua**
18:00 | Herriko etxeko plaza

31 LARUNBATA — **Bisita antzeztua**
17:00 | Herriko etxeko plaza

18 IGANDEA — LESAKA
Zinema
'Jone Batzuetan'
18:00 | Harriondoa Kultur Etxea
Ant.: Xulufrinak Lesakako Sare Feminista

19 ASTELEHENA — LESAKA
Hitzaldia. **'Mugikorrak eta adin txikiak, familia heziketa'**
Orain prebentzio elkarteko teknika
17:00-18:30 | Liburutegia

22 ORTZEGUNA — LESAKA
Ekitaldia
Víctor Masferreren aurkezpena
18:30 | Liburutegia

23 ORTZIRALEA — LESAKA
Lesakako Irakurraldi Jarraituaren I Jaialdia
12:00-20:00 | Liburutegia

24 LARUNBATA — BERA
Lizuniagako Igoera
17:00etan | Luzera: 4.9 km
Ant.: Gure Txokoa elkartea

BERA
Antzerkia
Arizona (Txalo produkzioak)
19:30etan | Kultur etxea | Sarrera: 10€

LESAKA
Organo Musika Nafarroan 2026
Susana García Lastra
19:30 | San Martin eliza

25 IGANDEA — BERA
LURRAREN EGUNA
Ant.: Gure Txokoa elkartea eta Berako Udala

---


ttipi-ttapa

LIDERRAK
gure eskualdean


baita azterketa egiterakoan CIESek *Nafarroa Garaiko mendialdean* hartu duen 111 udalerrien eremuan ere.




IKASKETA MAILAREN ARABERA



ADINAREN ARABERA



SEXUAREN ARABERA



GARA²	DIARIO DE NAVARRA²	BERRIA²	DIARIO DE NOTICIAS²	BESTE BATZUK²	TTIPI-TTAPA¹
3.000 irakurle	8.000 irakurle	4.000 irakurle	8.000 irakurle	3.000 irakurle	23.000 irakurle

*1. Osotara, azkeneko hamabostaldian
*2. Nafarroa Garaiko mendialdean, azkeneko aldian

DATU ITURRIA: CIES, 2026ko lehen neurketa

NIRE TXANDA



Lazkao Txiki gugan hago

XABAT ILLARREGI MARZOL

«Joxe Miel Iztueta. Hor al hago?». Aurten beteko dira 100 urte Lazkao Txiki jaio zela, beharbada, historiako bertsolaririk ezagunenetakoa. Nork ez du ezagutzen bere marrazki bizidunaren hasierako abestia? *Hainbat herritan ume txiki bat / hurbiltzen zitzaizunean*... Ez zen aspaldi EITBk bertsolariei buruzko marrazki bizidunak sortu zituela. Ederki aldatu dira gauzak...

«Ispiluari abestu zionak askotan jarri gintuen ispiluaren aurrean. Ez zebilen hain gaizki»

Pertsona bizkorra zen, umoretsua eta ingurukoak barrezka jartzen abila. Baina ez zen hori bakarrik. Gizon sentikorra zen, min zein barne gatazka asko zituena; herriarekiko, bertsoarekiko, hizkuntzarekiko, bere bizitzarekiko... 1993. urtean zendu zen bertsolariak esan zuen «laster erderaz ariko gara euskeraz ari garelakoan» esaldi ezaguna. Entzun izan balitu gaur egungo *Basque Country* eta abarrak... Ispiluari abestu zionak askotan jarri gintuen ispiluaren aurrean. Ez zebilen hain gaizki. Beraz, «Bai, Joxe Miel Iztueta. Hor hago».

EZPALA



Bat-bateko poeten herrian saria

AITOR AROTZENA ALBITZU

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa abiatu den asteburuan jaso du Zinemaldiko Donostia Saria Werner Herzog zinemagile alemaniarrak. Ustekabean, euskararekiko (*hizkuntzarik sinestezinena*), euskal kulturarekiko eta bertsolaritzarekiko (*bat-bateko poesia*) miresmen hitzak bota ditu. Txapelketa guziak *Youtube* bidez ikusten ditu, «tutik ulertu gabe, hizkuntzaz gaindiko zerbait sumatzen da hor».

NABARMENTZEKOAK



ESTEFI ETXEBESTE
ERREKOR BERRIA

Emakume batek inoiz altxatu duen harririk handiena altxatu zuen irailaren 19an Iturengo plazan, 166 kilokoa, 2016an Idoia Etxeberria oriotarrak egindako errekorra hiru kilotan hobetu zuen Joaldunen Egunean.



EKAITZ BERTIZ
DONOSTIAKO ZINEMALDIAN

Donostiako Zinemaldiaren 74. edizioan, Kimuak programaren barrenean, irailaren 19an aurkeztu dute Ituren eta Zubietako inauterietako joaldunaren figurari buruzko zuzendari sunbildarraren film laburra, *Joare tte*.

GIBELERA BEGIRA

Autoa partekatuz Baztanen eta Leitzan



2016-09-29 I TTIPI-TTAPA I 671. ZK

Autoa konpartitzeko bitartekoak eskaintzeko Autokide eta Tartarkar zerbitzuak sortu zituzten duela hamar urte Baztanen eta Leitzan. Dirua aurreztu, kutsadura murriztu eta bidaide berriak egiteko aukera eskaintzen duten aplikazioak dira: «Kotxearen erabilera ardutsagoa egiteko aukera da, herritik herriarentzat egindakoa».

ttipi-ttapa

erran.eus

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz, Eneritz Iraola, Unax Ordoki.
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki, Koro Irazoki, Nerea Altzuri, Arantxa Etxeberria, Irune Elizagoien, Maider Petrirena, Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Ana Iturbide, Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola, Maitane Maritorena, Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Jean Louis Bessonart, Ganex Etxeberrigarai, Maialen Iantzi, Oier Zulaika, Maite Bertiz, Tere Arretxea, Kontxi Agerre, Xabi Olazar, Iratxe Otxandorena, Aitziber Zozaia.

Fundazioaren Presidentea
Paskual Rekalde
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
5.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankomunitatea.

2026ko harpidetza sariak
Eskualdekoak, 60 €
Hego Euskal Herrikoak eta Espainiako Estatukoak 126 €
Ipar Euskal Herria, Europa 165 €
Amerika eta Australia

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
mecna
BAZTANGO euskara ZERBITZUA
BORTZIRIETAKO EUSKARA ZERBITZUA
Malerrekako Mankomunitatea
CC BY SA

KOLABORAZIOAK



Hiru sagarroikume

MIKEL TABERNA IRAZOKI *KAPI*

Gure aita zenaren anaia bat barkuan joan zen Argentinara 1928an, hemezortzi urte bertzerik ez zuela, polizoi. Haren seme-alaben seme-alabak etorri zaizkigu bisitan uda honetan, han negua zela probestuta. Egunero, euren matea xurrupatu ondotik, gurekin ibili dira batera eta bertzera, eta begiak bete dituzte hemengo mendiak eta oihanak ikusirik, hemengo koloreak. Eta ikusi dute zer jaten dugun, nolakoak garen; ikasi dute zer gustu-klase dugun, zer amets… Gure solasaren musika ere aditu dute. Deskubritu dute edo hobeki ezagutu dute euskara, haien atautxiren mintzaira zena. Hitz batzuk ikasi dituzte: *egun on, pasa gabon, osasuna*… Ez dakit etorri aitzinetik zer pentsatzen zuten, baina uste dut interes handiagoarekin joan direla bueltan. Haiek bizi diren tokitik ez aparte maputxeen lurraldea da. Herri indigena horrek ere badu bere hizkuntza propioa, eta eskoletan zerbait erakusten omen dute, baina solas-modu hark ere bizirik irauteko nahiko lan. Ez dakit gure jendakiek orain diferente ikusiko ote dituzten bertako natiboak bide zirenen ondokoak, gu ere kultura zanpatu baten parte garela jakinik.

Bero handia egin zuen argentinarrak gure artean ibili ziren egunetan. Termometroak goiti egin zuen gupidarik gabe. Deitura bat baino gehiago eman genion, baina niri auzoko lagun bati aditu niona gelditu zitzaidan kaskoan: udak bero benenotua ekarri zigula erran zidan. Nola sartu ote zaio pozoia beroari? Nondik edo zergatik? Heldu diren urteetan martxa bera izanen omen dugu, gero eta okerrago. Hala diote. Zer eginen dugu bizitokia infernu bihurtzen bazaigu?

> **«Hemen bizitzak segitzen du, laino guzien azpitik eta sasi guzien gainetik»**

Aurtengoa jasan dugu nolazpait ere, baina lerro hauek eskribitzen ari naizen tenorean oraindik ere agortea dugu. Lurra zekendu baita, onddo faltan gibelurdin multxo bat egin digu opari oihaneko gure baratzeak, eta eskerrak eman dizkiogu. Lehentxeago edo geroxeago aspertzeko adina euri izanen dugula erran dit leitzar adiskideak, ez apuratzeko. Ez dakit zer pentsatu, baina hala bedi.

Bertzela, hemen bizitzak segitzen du, laino guzien azpitik eta sasi guzien gainetik. Halaxe etorri da buruila, eta hiru urteko gure biloba sorgina Altzateko eskolan hasi da. Sei urteko bere anaiaren eskutik joan da, bi ile-motots buruan kulunkan, begiak zabal-zabal eta bihotza dantzan. Hori ere lurralde arrotzean lehenbiziko aldiz sartzea bezala da, bertze neska-mutikoen artean. Ea nola moldatzen diren.

Mendi buelta ematera ere joan gara etxekoak. Besarkatu ditugu pago enborrak; mihauritu ditugu ahoa zabalik ikusi ditugun gaztaina-morkotsak, dentistak haginak ateratzen dituen bezala; aditu dugu okilaren txalaparta-kontzertua; eta irri egin dugu katakurtxintxa bati begira, aldaxkatik aldaxkara zirkua egiten nola aritu zaigun.

Eta Andonik hiru sagarroikume jaio berri aurkitu ditu orbel mukuruaren azpian.



Desesperantzaren aurka

EKHI TXOKARRO EZKURRA

Zuri idazten dizut, gazte. Zuri, agian duela gutti Euskal Herriko panorama soziopolitikoa erreparatzen hasi zaren horri; zuri, agian oraindik antolatua ez zauden horri; edo zuri, gure herriaren alde urteak militatzen daramazun horri. «Ez dago deus ere egiterik» diskurtsoa jada irensten ez duzuenoi.

Badira garaiak non zaila egiten zaigun etorkizuna irudikatzea. Ingurura begiratu eta ezinegona, haserrea eta nekea aurkitzen ditugu. Etxebizitza ordaintzea gero eta zailagoa da, jarrera erreakzionario eta faxistak ikustea ohiko bilakatu da, diskurtso antifeministak espazioak irabazten ari dira, lana ez da bizitza duina bermatzeko bidea… Eta horri guztiari gehitzen zaio ideia bat behin eta berriz errepikatzen digutena: gauzak horrela dira, beti izan dira horrela eta ezin ditugu aldatu.

Desesperantzaren zabalpena politika egiteko modu bat da, mobilizatzearen aurka dagoena. Ez dagoela alternatibarik erraten digutenean, ez digute soilik ideia bat saltzen. Gure irudimena mugatzen ari dira. Aldaketa posible ez dela sinestarazten digutenean, borrokatzeko beharra bera kentzen digute.

Norbaitek erran zuen behin aldaketa ez dela inoiz bakarrik datorren zerbait. Eta hala da. Historiari begiratzea bertzerik ez dugu. Gaur egun normaltzat hartzen ditugun eskubide zein lorpen aunitz garai batean ezinezkoak ziruditen. Langileen eskubideak, emakumeen* eskubideak, euskararen aldeko borrokak, landa eremuko aldarrikapenak, pentsio duinen aldeko mobilizazioak, borroka transmaribibolloa, gazte independiston antolakuntza... Ez dira zerutik erori. Ez dira norbaitek opari eman dizkigunak. Norbaitek borrokatu zuen haien alde. Norbaitek denbora eskaini zuen. Norbait bilera batera joan zen, antolatu zen eta antolatu zituen berak bertze batzuk ere. Norbaitek kartel bat paratu zuen. Norbaitek greba egin zuen. Norbaitek kalea hartu zuen, bertze aunitzekin batera.

> **«Norbaitek erran zuen behin aldaketa ez dela inoiz bakarrik datorren zerbait. Eta hala da»**

Eta hor dago kolektiboaren oinarria.

Izan ere, bakarrik gaudenean ia denak ezinezkoa dirudi. Ez dugula aski egin. Ez garela gai. Ez dugula baliabiderik. Baina elkartzen garenean, gure arazo pertsonalek dimentsio kolektiboa hartzen dute. Eta orduan konturatzen gara ez gaudela bakarrik. Bertze aunitz ere etxebizitza ordaindu ezinik daudela. Bertze aunitz daudela ni bezala lan prekarietatea sufritzen. Aunitz direla etorkizunaren beldur garenak. Jende aunitz dagoela haserre eta ez ados.

Ez gaitzatela konbentzitu dena galduta dagoela. Ez gaitzatela konbentzitu ez duela merezi. Ez gaitzatela konbentzitu gure ahotsak ttikiegiak direla, mobilizatzeak ez duela deusetarako balio. Inork ez diezagula erran herriak men egiteko jaio ginenik. Inork ez diezagula erran herri baten eskuendako handiegiak diren ametsik badagoenik.

Desesperantzaren aurka, antolakuntza, militantzia eta borroka.

11 GALDERA LABUR

«Herri txiki bat zahartzaroa bizitzeko toki egokia dela iruditzen zait»

JOSUNE ERIZMENDI TEJEDORA GOIZUETA +65 PROIEKTUKO KIDEA




Josune bere zakurrarekin batera mendi tontorrean. UTZITAKOA

Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?
Baserrian bizi den emakume bat naiz. Mendian bizitzea gustatzen zaiona.
Zertan aritu zara azken urteotan?
Azken urte hauetan, baserriko lanaz gain, yogako irakasle izateko prestatzen eta lan egiten ere aritu naiz Hernanin eta Goizuetan. Aldi berean, xaboiak eta sendabelarrekin ukenduak egiten ditut.
Zein dira zure afizioak?
Mendi berriak ezagutu, bizikletan ibili, igeri egin, irakurri, abestu, dantza egin, gaueko izarrak ikusi, zilarrarekin bitxiak egin, lokatzarekin eskulanak egin…
Nola da Hernanitik Goizuetara bizitzera joatea?
Duela 30 urte etorri nintzen Goizuetara bizitzera. Mendian eta natura betean bizi nahi nuela oso argi neukan.
Goizueta +65 proiektuan ari zara lanean, zer da Goizueta +65?
Goizuetako Udalak jubilatuei eskaintzen dizkien jarduera eta tailer osasuntsuak dira. Konfinamendu garaian jende helduari etxetik ateratzera animatzeko sortu zena. Bi jarduera kudeatzen ditut: Lehena, yoga aulkian jarduera, astean bitan. Bestea, ostiral goizetan egiten da. Beroketa batzuk egin eta herriko bidegorrira ateratzen gara paseo bat ematera. Gero hamaiketakoa egiten dugu. Ludoteka tailerra ere egiten da Ainhoa Ansaren eskutik.
Zein da herrian bizi diren hirugarren adinekoen egunerokoa?
Uste dut herrian oso lasai eta kalitatezko zaintza daukatela. Denak ezagutzen dira eta ez dute bakardadea bizitzen. Elkarri laguntzen diotela esango nuke. Herri txiki bat zahartzaroa bizitzeko toki egokia dela iruditzen zait.
Zertan lagundu du Goizueta +65 proiektuak azkenengo urteetan?
Jende heldua etxetik atera eta elkartzera lagundu du. Fisikoa, burua eta animoa lantzen dute proiektu honi esker.
Proiektuak aurrera segitzea da helburua?
Uste dut proiektuak jarraitzea dela egokiena. Urtetik urtera jende gehiago animatzen hasten dela ikusten baita.
Zer da gehien gustatzen zaizuna Goizuetatik?
Natura zoragarriaz inguratuta dagoela.
Imajinatuko ez zenuen zure inguruko zerbait?
Lehen ez nuen imajinatuko gaur egun yogako irakaslea izango nintzenik eta gutxiago Goizuetan. Plazera da.



KOMIKIA

UNAI GAZTELUMENDI



IRAKURLEAK MINTZO

Lesbos, otordu bero bat

MONIKA AGIRRE CASCALLANA

Egeo itsasoko irla xarmangarria da Lesbos: ur gardena du, kostalde zabala, olibondoak, granadondoak... Ipar-ekialdean, Turkia ageri da kilometro gutxitara. Horrek, turistak ez ezik, bertzelako jendea ere erakartzen du; bizi duin baten bila heldu diren afrikar eta Ekialde Ertaineko biztanleak. Horiek oinez ailegatzen dira Turkiaraino ezkutuan, mendiak gurutzatuz eta itsasoa hala moduz zeharkatuz, Lesboseraino.

Lurreratzean, kontrolatutako kanpamentu itxi batera bideratzen dituzte, Kara Tepera, itsasoaren kontra hesitutako eremu soil eta haizetsura, Greziako burokrazian galduta, handik ateratzeko baimena noiz eskuratuko. Batzuek urteak beharko dituzte.

Europan bidaiatzeko baimena lortzearekin, aunitzek Alemania hautatzen dute, babes-politika malguenak omen baitituzte. Baina tokiko bizileku-baimena lortu ezean, Greziara deportatu eta berriz hasi beharko dira.

Uda honetan egoera horren berri izan dut, Zaporeak GKEarekin hiru astez Lesbosera joan naizelarik. Beraien ekimenez, kanpamentukoentzako otordu bero bat prestatzen da egunero eta errefuxiatuei ere aukera ematen zaie bertan parte hartzeko, janari truke. Zaporeak-en sukaldean, Euskal Herriko boluntarioez gain, Iran, Afganistan, Palestina, Etiopia eta hainbat tokitako jendearekin lan egin dut. Denak izan dira umilak, maitagarriak eta esker onekoak.

Etiopiako Mahderrek bere bidaia kontatu eta Europan askatasuna dagoelako etorri dela aipatu dit. Nola erran honat ailegatzeko hainbertze sufritu duenari hori ez dela egia absolutua, xuriok askatasun delako hori izan dezakegula, baina beraiek hagitz zail dutela. Nola erran eskuin-muturra goiti joaki dela Europan, eta horrek bere ametsa zailduko duela, diskurtso ultraeskuindarrak gizarte osoa zipriztintzen duela, Europak ez duela bera hemen egoterik nahi, eskaintzen ahal duen eskulan merkeaz aprobetxatuko dela, baina *iatsu* ezinezkoa izanen duela xurion ongizate-estatuan sartzea. Nola erran poliziak jazarriko duela, xuriak berekoiak garela, mesfidatiak, ez ditugula gure pribilegioak partekatu nahi. Mahder ez engainatzeko, baina bere ametsa ez zapuzteko, zera erran nion ingeles kaxkarrean: *«in Europe we have a kind of freedom, but it won't be easy to get it»*.

Ez nuke saminez akabatu nahi kontaketa hau. Hiru aste hauetan bizitakoa, dena izan da positiboa, zapore goxokoa. Eta, kontraerranak kontraerran, uste dut denon gizatasun eta ttikitasunetik gauza handiak egiten ahal direla; erraterako, eguneko otordu bero bat.

Zugarramurdiko marrazkiaren erranahia

ARACELI MARTIN

Aitzineko TTIPI-TTAPA aldizkarian, Zugarramurdiko berrietan [54. or.] agertzen den marrazki bati buruz, azaldu nahi dizuet, Aragoin eta Frantzia hegoaldean hagitz ohikoa dela *pi* zenbakiaren sinboloa, mendi profila duena, Pirinioetako identitatea eta kontzientzia irudikatzeko erabiltzen den hiri diseinua dela. Agian norbait irrikitan gelditu da marrazki horren erranahia jakiteko eta...

Zuzenketa

TTIPI-TTAPA

Aitzineko aldizkarian, eskualdeko ikastetxe guzietako ikasle kopuruen datuak agertu ziren. Baina datuetan akats bat dago: Sunbillako eta Saldiasko datuak nahasiak ageri dira. Sunbillako eskolan guztira 66 ikasle dira: Haur Hezkuntzan 16 ikasle eta Lehen Hezkuntzan 50. Saldiasko eskolan, berriz, guztira 20 ikasle dira: Haur Hezkuntzan 10 ikasle eta Lehen Hezkuntzan bertze 10 ikasle.

Barkatu eragozpenak.

GUTUNAK: Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Koskontako bidea, 7 - 1,
31770 LESAKA
info@ttipi.eus
948 63 54 58 /
744 48 43 61

EUSKARAREN TXOKOA

Zaindu maite duzun hori...

Zein da zuzena?

* Izartxoa dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

*'Nafarroa Oinezko' edo 'Nafarroa Oinezeko'?

Euskaltzaindiak dioenez, leku izen edo pertsona izen ez diren izen berezien kasuan, kontsonantez bukatuek beti gorde behar dute *-e-*, eta aukerakoa da marratxoa erabiltzea. Beraz, *Nafarroa Oinezeko* edo Nafarroa Oinez-eko dira zuzenak. Hona hemen, adibide gehiago: Euskalteleko/Euskaltel-eko (*Euskaltelgo), Fagorretik/Fagor-etik (*Fagortik)…

Edozein moduz, izan kontuan arau horrek ez duela zerikusirik leku izen bereziekin; haietan, *-e-* ez da nahitaezkoa: Amaiurko/Amaiurreko, Almandozko/Almandozeko…

Nola erran?

'Eskerrak' edo 'Beharrik'?

Beharrik etorri zaren, bertzela itoko nintzen edo Eskerrak etorri zaren, bertzela itoko nintzen. Zein da egokia? Biak zuzenak dira, eta *eskerrak* forma hedatuagoa bada ere, gure eskualdearen zati handi batean berezkoa *beharrik* da, lasaituaren edo pozaren adierazle gisa.

-Beharrik ilargiak argitzen zituela erreka eta bazterrak.

-Beharrik han nuen ama.

Kalko ustelak

*'Goaz?' Edo 'Joanen gara'?

Erdararen eraginez, azken urteotan zabaltzen ari diren eta baztertzekoak diren joera desegoki horietako bat da adibide hau. Ez da zuzena agintera modu batzuetan aspektu burutugabea edo puntukaria erabiltzea gertakizunekoaren partez:

*Goaz? > Joanen/Joango (al) gara?

*Bueno, zer, goazen? > Joanen/Joango gara?. Baina *Bueno, zer, ba al goaz?* zuzena da, bertze erranahi batekin.

N	I	R	H	A	I	K	S	T	P	X	P	A	X
O	Z	I	R	E	Z	L	N	I	R	E	U	E	A
H	A	G	K	J	I	H	R	L	A	Z	N	T	H
J	P	U	Z	A	B	I	L	E	I	T	Z	A	E
G	I	M	H	T	A	I	K	S	A	K	A	P	U
M	A	T	E	O	R	E	N	A	T	A	O	E	D
D	I	Z	N	E	Z	K	N	K	A	O	U	I	U
B	N	E	D	R	A	A	R	A	N	A	R	I	I
H	T	P	A	G	L	N	Z	D	O	I	T	T	L
I	S	K	I	L	L	A	R	R	E	G	I	P	K
B	E	R	A	G	U	R	U	T	N	A	T	S	A
A	G	O	E	Z	S	U	L	O	S	E	M	I	Z
D	J	A	U	I	J	E	A	N	A	K	A	L	U
I	N	I	O	T	X	O	P	E	R	E	N	A	N
A	K	N	T	A	T	F	A	A	A	B	U	T	O

Hizki zopa

Hasi da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa. Eta hori probestuz, txapelketan parte hartuko duten eskualdeko sei bertsolariei begira jarri gara. Bilatu sei bertsolari horien lehenbiziko abizenak eta haien herriak, eskualdearekin lotura dutenak. Denetara hamar dira.

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak… Animatu eta parte hartu!

info@ttipi.eus

744 48 43 61

«Komikietan denbora, espazioa eta soinua irudikatzen dira»

SAIOA MARITORENA ETXEBERRIA KOMIKIGILE LEITZARRA

Zeruaren margolaria komikia argitaratu du 23 urteko leitzarrak, Denonartean argitaletxearekin

Eneritz Iraola LEITZA

Arkatza eskuan eta irudimena dantzan. Hamaika istorio marraztu izan ditu Saioa Maritorena Etxeberriak orri zuriaren gainean. Ttikitan hasi zen marrazten eta afizioa ofizio bihurtu nahian, Sorkuntza eta Diseinuko gradua ikasi du Euskal Herriko Unibertsitatean. Bertan aurkitu du artista bezala landu nahi duen bidea: «Komikigintzan sakontzeko aukera izan nuen eta ikusi nuen hori zela nire hizkuntza». Denonartean argitaletxearekin argitaratu du bere lehenbiziko lana: *Zeruaren margolaria* komikia.

Betidanik marraztu izan du Maritorenak: «Etxean, ttikitan, aitak asko erakutsi zidan. Bera ere marrazketan eta pinturan ibili izan da eta bere laguntzarekin eta Interneteko hainbat plataformari esker, asko ikasteko aukera izan dut». Geroztik, bere burua «marrazkilari bezala ezagutzen» ari dela dio, «inoiz amaitzen ez den prozesu bat dela esanen nuke».

Komikia euskarri

Sorkuntza eta Diseinuko gradua ikasi du Euskal Herriko Unibertsitatean eta bertan komikian sakontzeko aukera izan du. Ikasitakoa erakutsiz, uste okerrak zuzendu nahi izan ditu: «Jende askok komikia genero bat dela pentsatzen duen arren, argitu nahiko nuke teknikoki komikia medio bat dela, zerbait komunikatzeko euskarri bat. Komikiaren barruan milaka genero aurki ditzakegu, zineman edota literaturan gertatzen den bezala».

Jakin-mina

Bereizketa hori ulertu zuenean piztu zitzaion berari ere jakin-mina: «Ordura arte, genero konkretu batzuekin lotzen nuen komikia: abenturak, superheroiak, komiki tirak... Genero hauek ez ninduten erakartzen eta, ondorioz, komikiek ere ez». Ikasi zuen, ordea, komikia hori baino askoz gehiago dela: «Esperimentalagoa zen komiki batekin egin nuen topo, komikiaren hizkuntzaren alderdi guztiak esploratzen zituena, poesiara ere hurbiltzen zena». Komikiak duen ezaugarririk magikoena, «denbora, espazioa eta soinua irudikatzeko gaitasuna» dela ikasi du, «ia-ia paper batean pelikula bat sortzea bezala uler daiteke. Sinplea den abiapuntu batetik, oso lan konplexuak sor daitezke eta hori oso ederra iruditzen zait».

Aukera zabala

Gainera, etengabe aldatzen ari den medio bat denez, «geroz eta autore gehiago» agertzen ari direla nabarmendu du, «oso lan interesgarri eta berritzaileekin». Horren zabalkundea egitea premiazkoa iruditzen zaio: «Jendea hor kanpoan zer dagoen begiratzera animatzen dut. Komikiaren barrenean genero ugari lantzen direnez, edonork aurki dezake gustukoa».

Zeruaren margolaria

Irakurleek eskura duten aukera zabal horren artean dago *Zeruaren margolaria* komikia. Maritorenak argitaratu duen lehenbiziko lana da eta «ametsa bete» duela dio: «Kosta egiten zait nire bizitzako helburuetako bat lortu dudala sinistea». Prozesua bera oso ederra izan dela dio: «Ordu askotako lana izan da eta ez nuen lortu izanen, neure buruarengan konfiantzarik izan ez banu. Unibertsitateko irakasleen laguntza izan dut eta oso eskertua nago Denonartean argitaletxeak eman didan aukerarengatik. Eskerrak eman nahi dizkiot beste behin ere Unairi, Denonartean argitaletxeko editoreari».

Gogoetarako bidea

Zeruaren margolaria esku artean hartuta, lehen begiradan fantasiazko nobela grafiko bat dela ikusten da. Urtzi da bertako protagonista: «zerua margotzeaz arduratzen den langile bat. Egunero margotzen ditu egunsentiak, zeru urdinak eta gauak, guk zerura begiratzean ikusten ditugun berberak. Oso argi dauka bere betebeharra zein den, bere lanaren errutina jarraitzen du, eta honek eskaintzen dizkion momentu berezi ttikiez gozatzearekin aski du: ilunabarrak margotzearekin, adibidez. Gustuko du bere lana, edo hori da bere buruari sinetsarazi nahi diona».

Eguneroko errutina horretan, hainbat zalantza sortuko zaizkio protagonistari: «Istorioan zehar Urtzik bere betebeharraren inguruan hausnartuko du, eta irakurleak ikusiko du nola, nahiz eta guztiz fantastikoa den mundu bat izan, protagonistak planteatzen dituen kezkak eta hausnarketak ez direla errealitatetik oso urrun gelditzen». Irakurleari galdera batzuk egiten dizkio: «Zer gertatzen da artista batek bere sormen askatasuna mugatuta ikusten duenean lanaren eta errutinaren ondorioz? Erraza al da beti gure ametsengatik borrokatzea?».

Misterioa

Irakurlearen jakin-mina pizteko, argitu beharreko misterio bat ere txertatu du kontakizunean: «lehenengo orrialdetik ikusiko dugu inoiz gertatu ez den zerbait ikusten duela protagonistak zeruan: ilargia karratua da. Urtzik zer gertatu zaion jakin nahi du, eta horretarako, bere lagun Ilazkirekin hitz egin beharko du, Urtzi zerua margotzeaz arduratzen den moduan, Ilazki ilargiaz arduratzen baita. Baina ez daki non dabilen, desagertu egin da. Ilargiaren misterioa argitzeko azken orrialdeetaraino itxaron beharko du irakurleak, eta bitartean beste pertsonaien lanak, protagonistaren bizipen batzuk eta batez ere, bere galderak eta hausnarketak ikusiko ditugu».

«Komikiaren barrenean genero ugari lantzen direnez, edonork aurki dezake bere gustukoa»

«Sinplea den abiapuntu batetik oso lan konplexuak sor daitezke komiki bat osatzerakoan»

Sorkuntza prozesua

Ilargi karratu horren ideia izan zen komikiaren abiapuntua: «Gauez paseatzen nenbilela, garabi batean zegoen kartel bat ikusi nuen urrutira. Forma karratua zeukan eta argiztatuta zegoen. Urrutitik begiratuta, gau ilunean, ilargi karratu bat zirudiela pentsatu nuen. Interesgarria iruditu zitzaidan ideia, eta idatzi egin nuen».

Koadernoan gordea izan zuen ideia hori, egun batean forma eman zion arte: «nire koadernoan bozeto bat egin nuen, eta nolabait aurretik idatzitako esaldi horrekin bat egin zezakeela pentsatu nuen». Bozeto eta esaldi motz horretatik abiatuta, istorioa idazten hasi zen, «gidoia eraiki arte. Behin istorioa idatzita, protagonista izanen zen pertsonaia garatu eta gainerako pertsonaiak eta paisaiak diseinatu nituen, komiki osoa marraztu arte».

Teknika

Komikia digitalki egin duela ere azaldu du, «Procreate programa erabiliz iPadean». Lan ia gehienak digitalki egiten dituela onartu duen arren, ez ditu arkatza eta papera alde batera utziak: «Nahiz eta egiten ditudan lan ia gehienak digitalki egiten ditudan, horren aurreko bozeto guztiak arkatza eta papera erabiliz egiten ditut, eskua askatzeko eta ideiak garatzeko modurik azkarrena eta eraginkorrena iruditzen zaidalako».

Egilearen bereizgarria

Artista orok izaten du bere lanaren bereizgarria den ezaugarriren bat. Maritorenari berea zein den galdetutakoan, «galdera zaila dela» erantzun arren, aitortu du «gaia lantzeko erabili ditudan baliabideez gain, bisulki, lanaren bereizgarriak kolore paleta konkretu baten erabilera eta pertsonaien diseinuak» direla. Bada beste berezitasun bat ere; «pertsonaiek ez daukate ahorik. Ez da arrazoi konkretu batengatik egindako aukeraketa izan, baina interesgarria iruditzen zait komikiaren hizkuntzan ahotsak globo baten bidez adierazten direnean, pertsonaiek ahorik behar ez dutela pentsatzea».



Zeruaren margolaria komikia kaleratu du Saioa Maritorena Etxeberriak. E. IRAOLA

Etorkizuna

Lehenbiziko lana kaleratuta, etorkizunean ere marrazten segi nahi du: «Ez daukat ideia konkreturik, baina oso argi daukat beste istorio bat sortu nahi dudala. Momentuz inspirazio eta dokumentazio fase oso goiztiar batean nagoela esanen nuke, beste autoreen liburuak eta komikiak irakurriz, pelikulak ikusiz, eta bozetoren bat edo beste eginez». Ikasten segitzeko asmoa ere badu: «irailean Bartzelonara joanen naiz, Ilustrazioa eta Ikusizko Narratiba izena duen master bat egitera. Gustatzen zaidan guztia biltzen duen kurtso bat da, eta nire asmoa ahal bezain beste ikasi, mundu honetako jendea ezagutu eta proiektu berri bat garatzea da». Pauso hori emateak «bertigo handia» ematen dion arren, prest dago: «Nire ametsarekin jarraitzeko bide zuzenena dela pentsatzen dut. Horren ondotik zer etorriko den ezin dut jakin oraindik».

«Arkatza eta papera, eskua askatu eta ideiak garatzeko modurik azkar eta eraginkorrena da»

«Ezinbestekoa iruditzen zait artisten lanei behar duten balioa eta garrantzia ematea»

Eskaera

Eta komikigintzak etorkizunik izanen badu, irakurleak izatea ezinbestekoa denez, deialdia ere egin du: «Jendea animatu nahiko nuke komikiak kontsumitzera, eta artea orokorrean, bizi dugun garai aldrebes honetan, ezinbestekoa iruditzen zait artisten lanei behar duten balioa eta garrantzia ematea».

LEHEN SEKTOREA

Bazkarik eta uztarik gabe nahiko lan

Uda honetako tenperatura altuek eta euri faltak bete-betean eragin diete lehenbiziko sektorean ari direnei, eta horietako aunitz egoera larrian daude. Eskualdeko sei abeltzainek eta nekazarik euren testigantza kontatu diote Ttipi-Ttapari

G. Pikabea

 Idor daude bazterrak. Hori izan da azken hilabeteotako solasaldietan ohiko gaietako bat. Uda honetako tenperatura altuek eta euri faltak gogotik astindu dituzte bazterrak eta zuzenean eragin die lehenbiziko sektorean ari direnei. Betitik berdeagoak izan diren belaiak gorrituak daude. Baserritarrek belar guttiago bildu dute, eta gainera, negurako gordea zuten belarra gastatzen ari dira; kanpoan bazkarik ez izanda, aziendak barrenean sartu behar izan dituztelako. Gainera, etxeko belarraren faltan, halabeharrez, kanpoan erosten ari dira, eta horrek aparteko gastua eragin die.

Baratzeetan ere normalean baino uzta ttikiagoa bildu dute, nahiz eta ez den hori izan denen kasua. Arizkungo Baztango Xurie upategian, konparazio batera, inoizko uztarik hoberena izan dute.

Gehiago ere bada: Eguraldia ez da lehenbiziko sektorean ari direnen kezka bakarra. Gaiaren harira aritu dira solasean Gotzone Sestorain Zabaleta Leitzako artzaina eta gaztagilea, Miren Vera Rodriguez Almandozko abeltzaina, Josu Jorajuria Bazterrika Donamariako artzaina, Ana Iriarte Bañez Arizkungo mahastizaina, Mikel Leiza Etxeberria Arantzako baserritarra eta Lurdes Argain Bergara Narbarteko abeltzaina. Etorkizuna ilun ikusten dute eta neurriak eskatu dituzte.

«Hau hondamena da, ez da bideragarria»

LURDES ARGAIN BERGARA NARBARTE



Lurdes Argain narbartearra bere behitegian.

«Hagitz haserre». Hala dago Lurdes Argain Bergara narbartearra. Haragitako behiak eta ardiak ditu Lakoizketa baserrian eta aurtengoa bezalako uda idorrik ez duela «sekula» ezagutu erran du. «Ondorioak ikaragarriak» direla dio eta garbi du «galerak» izanen dituela.

Kanpoan ez dute bazkarik eta gainera, belar guttiago bildu dute. «Apiril bukaeran lehenbiziko ebaketa emanda, bigarrenean zerbait biltzeko aukera izan genuen, baina lehenbiziko ebaketa berandu egindako kasuetan, bigarrenean ez zen deus bildu». Egoerak hala behartuta, negurako zuena lehenagotik ematen hasi behar izan du: «Lehenbiziko ebaketako bolak ekainaren 18rako akituak genituen. Maiatz erditik, 30 bat behi *kuadra*n [behitegi] ditugu bazkatzen». Honela dio: «Hemen ez dugu, Baztanen bezala, mendirik, eta bertzeen belai batzuk erabiltzen ditugu, Almandozen eta Gartzainen. Normalean, Gartzainera maiatzean eramaten ditugu eta abenduan ekarri. Ba, aurten, ekainerako erdiak ekarriak genituen. Ez dago bazkarik. *Kuadra* gainean lau hektareako soro bat ere badugu, baina kiskalia dago eta ez dago deus».

Belar faltari ahotzarekin eta pentsuarekin erantzun dio. Baina aldi berean, gastuak goratu zaizkio. «Pentsua normalean baino gehiago behar dut eta dagoeneko lau kamioi eta erdi ahotz ekarri ditut. Nolabait ere, 200 bola bertze zerbaitekin ordezkatu behar ditut eta aurten, lehenbizikoz, ahotza probatzea erabaki dut». Ekonomikoki «ez da bideragarria» bere hitzetan: «Hau hondamena da». Eta baditu bertze kezkak: «Beldurtua nago belarrik gabe ez dakidalako zer emaitza emanen duten behiek».

Ezohiko egoera gehiago ere sumatu ditu uda honetan: «Suerte txarreko gaude. Ez dakigu denborarengatik den edo zergatik, baina bi behik abortua izan zuten, aretze bat malformazioekin sortu zen eta bertze bat hanketan malformazioekin. Eta ardiekin ere egoera ez da normala. Hilabete eta erdi baino gehiago badute etxe inguruan, eta normalean, urrian jaisten dira. Gainera, santioetarako ernari behar zuten baina oraindik arkara daude».

Egoera gogorra

Sektorea «hagitz gaizki» ikusten du, eta «psikologikoki hagitz gogorra» egiten ari zaio; «aunitz sufritzen ari naiz. Uzta txarra izan delako nik ezin ditut maizterren errentak, maileguak edo segurua pagatu gabe utzi. Gasolioa ere goiti doa. Denak aitzinera segitzen du eta gu gibeleraka goaz». Gehiago ere bai: «Aldaketa klimatikoa egia baldin bada eta hau baldin bada heldu dena, aziendak erdiak sobran ditut».

Haragiarekin prezioarekin gertatutakoa ere salatu du: «Hiru hilabetez euro bat eta piko jaitsi da, 7,40 eurotik sei eurotara. Orain dela aste batzuk lau aretze kendu genituen eta badakizu zenbateko galera izan den hiru hilabetetan? 2.600 euro guttiago! Eta orain espekulazioa eta istorio etorriko dira. Duenak beharraren arabera salduko du. Baina hau ez da nork gehiago eman. Hau bizitzeko modu bat da. Ni ez dut aberastu nahi, gustatzen zaidanean lan eginez soldata duin bat atera nahi dut, bertzerik ez. Eta ez didate uzten».

Administrazioaren jarrerarekin ere kritiko da: «Aspaldi hartu behar zituen neurriak eta ez du deus ere egin. Dirulaguntzak ez dira soluzioak, baina hats hartzeko zerbait ematen ahal luke. Irri egiten digute aurpegira eta hagitz haserre nago».



Aziendak bazkaltzeko belar aski ez dagoenez, baserritar aunitz ahotza ematen hasi dira. Irudian aretzeak ahotza jaten ageri dira. TTIPI-TTAPA

«Eguraldiak badu eragina baina kontsumoa ere aunitz jautsi da»

MIKEL LEIZA ETXEBERRIA ARANTZA

«Kezka franko» dituela aitortu du Arantzako Etxeberriko bordako Mikel Leiza Etxeberriak. «Garaian garaiko barazkiak negutegian eta kanpoan, oilaskoak, gaztak eta zerrikiak... Denetarik pixka bat» egiten dute baserrian, eta aurtengo uda idorraren ondorioak berean agerikoak izan dira.

Alde batetik, negutegian uzta ona bildu duela onartu du, «ura izanez gero, eta pixka bat begiratuz gero, negutegian produktua heldu da. Tomateak, adibidez, bai negutegian, bai kanpoan, hagitz ongi etorri dira». Kontua bertzelakoa izan da negutegitik kanpo. Idortearen ondorioak «gehienbat kanpoko baratzean» nabaritu ditu: «Orain arte, baratzean erein eta bere gisa etortzera jarriak ginen, baina aurten ez da etorri. Ilarra eta patata, adibidez, ez dira behar bezala egin, urik ez dutelakoz izan». Horrekin galerak izanen dituela adierazi du: «Nik ilar bastante ereiten dut, baina aurten ez dut izanen, eta ilarra bera 2.000 euro dira. Patata ere ongi emanez gero, bertze 3.000 euro izanen dira». Horrez gain, oilaskoek «sufritu» dutela kontatu du: «Beroarekin mantso hazten dira. Egun guzia sufritzen pasatzen dute eta ez dute jaten, eta ez badute jaten, ez dira gizentzen... Eta ardiak mendian egon beharko lukete eta etxera etortzen dira eta ez dakizu ernari dauden. Kanpoan ez dago janik eta aparte eman behar diezu...».

Egoerari nolabait buelta eman nahian, neurri batzuk hartu ditu: «Egoera honek ikasketa eta aldaketa batzuk eskatzen dizkigu, bertzela ezin da deus egin». Eta horixe bera egin du aurten: «Piperretan tela bat paratu dut, eta ur dezente guttiagorekin, ederki etorri dira. Tela edo azpitik tantaz tantako ureztatze sistema paratuta, gauzak egiten ahal direla ikasi dut. Eta patata, adibidez, lehenagotik erein beharko dudala pentsatu dut, aurten lehenagotik erein dutenek atera dutelako».



Mikel Leiza aranztarra Etxeberriko bordako negutegian.

Lehen ere uda beroak eta idorrak egin izan dituela dio Leizak, eta horren harira, «lehen ere gaizki ibili» aipatu du. Bere irudiko, «lehenago ere egiten zituen, kontua da atzendu egiten zaizkigula. Baina zaharrekin solasean hasten bazara, halako urtean artoa ihartu zela erraten dute. Artoa ihartu bazen, ederra egin izanen zuen».

Sektorea sufritzen

Kontuak kontu, «gauza bat ez bada bertzea, sektorea beti sufritzen» ikusten du aranztarrak: «Eguraldiak gure lanean eragin handia du, eta beti zerura begira eta sufritzen aritzen gara. Baina eguraldiaz aparte, badira bertze faktoreak, eta konparazio batera, jendearen kontsumoa ikaragarri jausten ari da, ez du lehenago bezala kontsumitzen». Joera hori baldin bada, argi ikusten du etorkizuna: «Jendeak ez badu kontsumitzen, gu gaizki ibiliko gara. Gure gastuak igotzen ari dira: pentsua garestiagoa da, gasolioa garestiago... Dena txarrerako da». Horregatik egin die herritarrei «bertakoa kontsumitzeko eta inguruko baserritarrei kontsumoaren bidez laguntzeko deia, hori delako guk behar duguna». Administrazioari «gure gastu igoerak kontuan hartzeko» eskatu die, «eta laguntzak eman behar badira, emateko. Baina gehienbat ingurukoen kontsumoa iruditzen zait inportantea, nahitaezkoa guretzat».

«Orain arteko uztarik hoberena izan dugu aurten»

ANA IRIARTE BAÑEZ ARIZKUN



Baztango Xurie upategiko Ana Iriarte eta Iñaki Bengoetxea.

«Uzta ona» izan dute ardo xuri ekologikoa ekoizten duten Arizkungo Baztango Xurie upategian. Gehiago ere bai: «Orain arteko uztarik hoberena izan dugu aurten». Horixe baieztatu du Ana Iriarte mahastizainak. Esplikatu duenez,«mahastia ongi moldatzen da klima idorretan. Ur falta sufritu du, mahats batzuk erre dira eta mahats pikorrak ttikiagoak izan dira. Hala ere, abuztu erdialdean egindako euriarekin moldatu da eta ongi akitu du urtea. Gainera, xartaxarekin ez dugu arazorik izan, beti hezetasunarekin izaten da, eta aurten, holako udarekin, ez dugu arazorik izan». Arizkundarraren hitzetan, «Bai mahastia, bai mahatsa sano ikusi ditugu, bai kalitate aldetik, baita kantitate aldetik ere».

Prozesu osoa beraiek egiten dute: mahastia landu, bildu, ardoa egin, botilaratu, saldu... Eta uda bero eta idorrean ekoizpenak bere bidea egin dezan, «lanak egokitu» behar izan dituzte: «bai tratamenduak, bai udako gainerako lanak aldatu ditugu. Adibidez, urtero, oko inguruko hostoak kentzen ditugu, eguzkiak zuzenean jotzeko eta ontzen laguntzeko, eta aurten hori mahats biltzea egin aitzineko egunetan egin dugu. Hosto guziak babesa emateko utzi ditugu». Horrez gain, «bilketa 15-20 egun aitzinatu» dute. Normalean irail erdialdetik urri aldera egin ohi dute, eta «aurten, abuztu bukaeran hasi gara eta irail erdialdean akitu dugu».

Hortik aparte, sektorearen egoerari ere erreparatu dio eta «aspaldi sumatzen den errelebo falta» hartu du hizpide: «Horrek elikadura noren esku geldituko den pentsarazi beharko liguke. Sektore honen etorkizuna zaila ikusten dut, baina aldi berean, ez dago bertze biderik edo aukerarik. Jatea oinarrizko beharra da eta nola eta non ekoitzitako produktuekin elikatu nahi dugun erabaki beharko dugu». Administrazioarendako ere badu mezua, eta «nekazaritza iraunkorraren alde egiazko apustua egiteko» exijitu dio: «Bere diskurtsoa eta neurri ttiki batzuk lurrari lotutako nekazaritzaren aldekoak dira, baina aldi berean, hor daude makroetxaldeen aldeko politikak, Merkosur bezalako hitzarmenak... Ezin dugu bi noranzkoetan aldi berean arraun egin. Elikadura sistema norantz eraman nahi duen erabaki beharko dute, eta horren araberako politikak egin». Berak argi du: «elikadura burujabetzak oinarrizko helburua izan behar du».

«Negurako bildu duguna udan ematen hasi gara»

JOSU JORAJURIA BAZTERRIKA DONAMARIA



Josu Jorajuria donamariarra eskuinean, etxekoekin, arditan.

Donamariako Epeloa baserriko artzaina da Josu Jorajuria Bazterrika eta ardi esnea eta bildotsak saltzetik bizi da. Kontatu duenez, «esnea Sunbillako Lizun gaztandegira saltzen dut eta bildotsak tratante bati».

Berak ere sumatu ditu uda idorraren ondorioak. «Belar guttiago bildu dugu negurako. Ia guzia maiatz bukaeran bildu genuen eta uda osoan ez dugu deus bildu. Maiatz erdira arte txarra egin zuen, kolpetik aldatu eta idor joan da geroztik». Hala, «negurako bildutakoa udan ematen hasi gara eta uda osoan aritu gara ardiak bazkatzen». Honela gehitu du, «udan bazkatu beharrak aparteko lana suposatzen du. Egunero ardiak ukuilura sartu, bazkatu...».

Lehen ere egin izan ditu uda beroak eta idorrak. Eta donamariarrak 2022koa gogoan du: «Dezenteko idortea egin zuen, aurten bezala, goiz hasita. Kontua da, gero eta maizago errepikatzen dela eta tenperatura arrunt altuak direla egun aunitzetan». Bere irudiko, «idortearri aurre egitea zaila da. Hemen ez gaude prestatuak».

Kontuak kontu, badaki aurten galerak izanen dituela. «Oraindik ez dugu behar dugun guzia erosi. Bazka erosteko eskaria aunitz handitu da eta prezioak goratu dira. Espekulazioa ere izanen da tarteko». Kalkulatu duenez, «10.000 eurotik gora joanen zaizkigu. Ikusiko da».

Gainerakoan, sektorearen etorkizunaz galdetuta, «denetarik» ikusten du. «Gure inguruan gero eta nekazari guttiago daude eta sektoreko banaz bertzeko adina altua da. Badira gazteak interesatuak, baina zaila da hutsetik hastea. Ixtera doan baserri baten eta hasi nahi duen gazte baten artean, zubi lana bultzatu beharko litzateke. Baserriak badu etorkizuna, bertatik bizitzeko baldintzak dira hobetu behar direnak».

Bertzalde, herritarrei «bertako produktuak baloratzeko eta kontsumitzeko» eskatu die: «Bertako produktua kontsumitzearen gibelean gauza aunitz daude: jasangarritasuna, ekonomia zirkularra, produktuaren kalitatea, eta beraz, osasuna, herriak bizirik mantentzea, ingurugiroa...». Eta administrazioari, berriz, «ustiategi ttikiak babesteko» deia egin dio, baita «elikadura katearen legea betetzeaz arduratzeko» eta «NPB (PAC) dirulaguntzen banaketa justuagoa egiteko» ere, «laguntza nekazariei bideratuz. Gaur egun, dirurik gehiena enpresa handiek eta inbertsio funtsek eramaten dute».

«Normalean azaroan sartzen ditugu behiak eta aurten udan»

MIREN VERA RODRIGUEZ ALMANDOZ



Miren Vera Almandozko Mendiola auzoko Tturrikoa baserriko alaba da.

Fabrikako lana gurasoekin azienden lanak eginez uztartzen du Tturrikoa baserriko Miren Vera Rodriguez almandoztarrak. Behiak eta behorrak dituzte eta beraienean ere sumatu dute idortearen eragina: «Ondorioak arras txarrak eta nabarmenak dira». Kontatu duenez, «behiak ekainetik irailerat Belaten botatzen ditugu eta urte guzian behorrak Almandozko mendietan edukitzen ditugu». Aurten, ordea, halabeharrez, «behiak lehenago bildu ditugu etxerat, bazkarik ez zegoelako eta ura eskasten hasia zelako. Bazkarik harrapatzen ez badute, nahiko arriskutsua izan ohi da iratzea jaten hasten baitira, eta kutsakorra denez, azienda eritzen du eta batzuetan, hil».

Mendian belarrik ez, eta etxean, «neguan bezala bazkatzen» ari dira. Beraien kasuan, ez dute belarrik egiten, lastoa erosten dute. Erran duenez, «joan den urteko lasto paka batzuk baditugu, baina arras agudo jaten ari dira, baita aurtengo negurako ekarritakoa ere. Bortz bat behi uztailean sartu genituen eta abuztutik hamabortz buru barnean daude. Ez dira aunitz, baina goizez eta arratsaldez ematen diegu jatekoa eta altxatutakoa nahiko agudo doa».

Nolanahi ere, «galera nahiko kozkorrak» espero dituzte: «Pentsa, normalean azaro erdialdean sartzen ditugu behiak, eta aurten batzuk uztailean eta bertze batzuk abuztuan. Arras guttitan tokatu izan zaigu neguan lastoa erosi behar izatea, baina aurtengo neguan segur aski tokatuko zaigu. Inguruan ez badago edo aunitzek erosten badute, behartuak izanen gara bertze nonbaitetik ekartzera eta horrek gastuak handituko ditu». Eta ez hori bakarrik: «Ernalketa gutti izanen dira, erran bezala, uda zezenarekin pasatu duten behiak antzu ateratzen ari dira. Aratzeen kasuan, berriz, amengandik lehenago bereizten ari gara amek ez hainbertze sufritzeko, ez baitute esnerik. Dena kate bat da».

Egoera ikusita, «sektore honetaz ez atzentzeko» eskatu du: «Idortea ez dago inoren esku, baina administraziori laguntzak eskatuko nizkioke aziendei bazka emateko eta gastuak hain handiak ez izateko». Garbi du: «Hola segituz gero, eta ez diot idorteagatik bakarrik, burokraziaz ere ari naiz, desagertu eginen gara. Bertako produktuak kontsumitu beharrean, bertze herrialdeetakoak eginen ditugu, eta eta prezioek goiti eginen dute».

«Aurtengo negua oso gogorra izanen da»

GOTZONE SESTORAIN ZABALETA LEITZA



Gotzone Sestorainen baserrian, gazta dute «produktu izarra».

«Estentsiboan edo lurrari lotuta lan egiten dugun abeltzainon baliabiderik garrantzitsuena belarra da; gure oinarria». Horixe bera nabarmendu du Leitzako Gorritz baserriko Gotzone Sestorain Zabaleta artzain eta gaztagileak. «Normalean, udaberrian eta udan egiten dugun belarrarekin negurako izaten dugu, eta udaberritik azarora ardiak larrean uzten ditugu». Aurten, ordea, ez. «Mendia eta etxe ondoko larrea gorri-gorri daude» eta ez dute bazkarik.

Uda lehorrari erantzuteko, kanpoan bilatu behar izan dute irtenbidea. «Lehenbiziko belar ebaketa oso ona izan zen, baita kopuru aldetik ere. Bigarrena ona izan zen, baina oso eskasa». Kanpoan belarrik ez, eta ardiak bazkatzen hasi behar izan dute: «Abuztu hasieratik goiz eta arratsalde jatekoa ematen ari gara. Belar pixka bat eman diegu, baina negurako gorde nahi dugu, kalitatezko gazta egiteko guretzat oso inportantea delako belar ona ematea». Bitartean, ordea, ezin ardiak goseak eduki, eta «arrauka (*festuca*) eta horrelako bazka erosten ari gara. Atera kontuak, hiru hilabetez kanpotik erositako jana eman behar badiogu, zenbateko kostu ekonomikoa izanen den!». Gainera, bazkaren truke jendea «urrezko prezioak» pagatzen ari dela gehitu du: «Zalkearen (*veza*) prezioa uztailetik honat ia bikoiztu egin da eta gainera, ez dagoela esaten dute; *festuca* tonaren prezioa 180 eurotik 300 eurora pasatu da; alpapa tonak duela bi hilabete 230 euro balio zituen eta orain 320 eurora ailegatu da». Argi dio: «Aurtengo negua oso gogorra izanen da. Jendeak azienda asko kenduko du, mantentzea ikaragarri garesti aterako delako».

Espekulazioa ere salatu du: «Bazka biltegiak –bitartekariak– bazkarekin espekulatzen ari dira. Maiatz bukaeran eta ekainean, zer zetorren ikusita, baserritar batzuek alpapa erosi nahi izan zuten urte osorako, baina ezetz esan zieten. Prezioak goia noiz jo zain egoten dira, espekulatzeko, eta hori egin dute aurten ere». Ez hori bakarrik: «Alpapa ez da horrenbeste igo, Ormuzko itsasartea itxita, Saudi Arabiako jauntxoei saltzen zietena mugatu delako. Horrela dago elikagaien eta bazkaren kontua, espekulazioa da nagusi».

Hori «onartezina» dela dio: «Elikagai kontuak ezin dira merkatuaren esku utzi. Administrazioak hori erregulatu behar du, kontrol mekanismoak jarri eta tokiko elikadura sistema indartu eta bermatu behar du».

MUGIKORTASUNA

Mugikortasuna hizpide, herritarrekin bilera eta Parlamentuko kideen bisita egunotan

Mugikortasun Planari buruzko proposamenak eta iradokizunak bildu nahi zituen udalak astearteko bileran

Ttipi-Ttapa

Aspaldiko hilabeteetan herriko hainbat karriketan azpiegitura lanak egiten ari dira, baita saihesbideko lehen fasea ere. Lanak aitzineratuak daude eta aste honetan, mugikortasunarekin lotutako bi hitzordu garrantzitsu ditu udalak. Alde batetik, mugikortasun planaren idazketan ari den Lekustudioren eskutik, Berako mugikortasun planaren helburuak aurkezteko bilera egitekoa dute irailaren 29an, asteartean 18:30ean, Berako kultur etxean. Ekimenaren aurkezpena egiteaz gain, herritarrek egin ditzaketen proposamenak eta iradokizunak jasotzea da bileraren helburua.



Altzateko lanei bisita apirilean.

Parlamentarien bisita irailaren 30ean

Bertze aldetik, Nafarroako Parlamentuko Lurralde Antolaketa Batzordeko ordezkariek bisita eginen dute Berara irailaren 30ean, asteazkenean. NA-1310 zeharbideko eta errepide honek NA-4410 izanen duen loturaren obrak ikusiko dituzte eta udal ordezkariek mugikortasun aldetik dauden beharrak azalduko dizkiete parlamentariei.

ZERBITZUA EUSKARAZ
AINHOA ALTZUGUREN MITXELENA
ABOKATUA
Dibortzioak | Kontratuak | Arazo administratiboak
BERA | M. 630 972 189 | ainhoaaltzuguren@gmail.com

PILOTA

Emakumeak txapeldunorde Bote Luzen



UTZITAKOA

Mendialdeko I. Bote Luze Txapelketako finalak jokatu zituzten irailaren 12an Sarako plazan. Gizonezkoek, ligaxkan, ez zuten finalerako txartelik lortu, baina bai emakumeen taldeak. Halere, txapelketa osoan bezala, Etxalar arerio gogorra suertatu zen eta 5-9 galdu zuten. Dena den, egindako txapelketarekin kontent eta hurrengoan ere parte hartzeko gogotsu daude herriko pilotariak.

TXIRRINDULARITZA

Berako 33. Mendi Bizikleta Ibilaldia larunbat honetan

Gure Txokoa Elkarteak hogeita hamahirugarren aldiz antolatutako Berako Mendi Bizikleta Ibilaldia eginen dute urriaren 3an, larunbatean 09:30ean abiatuta. Ibilbide arruntak 35 km luze eta 1.200 metroko desnibela izanen ditu. Oraindik gogorragoa egin nahi dutenek, 40 km luze eta 1.500 metroko desnibela duen Rokanrol ibilbidea ere izanen dute. Haurren ibilbideak, azkenik, 9 km-ko ibilbidea izanen du. Oraindik izena eman daiteke *rockthesport.com* webgunean (urriaren 2ko 15:00 arte).

KULTURA

Hitzaldia eta liburu aurkezpena urriaren 7ko eta 8ko hitzorduak

Etxeko langileen lan eskubideak goiburupean solasaldia eskainiko du Gaztelaneko abokatuak urriaren 7an, asteazkenean, 17:00etan Beralandetan. Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuak antolatu du solasaldia, Baztango eta Malerreka-Bertizaranako Berdintasun Zerbitzuen laguntzarekin. Hilaren 8an, ortzegunean, 18:30ean hasita, Mertxe Irazoqui zugarramurdiarraren *El eco que Juana dejó* liburuaren aurkezpena eginen dute liburutegian (gaztelaniaz). Igone liburu dendak antolatu du ekitaldia.



UDALA

Mendiko Suteen Aurkako Udal Jarduera Plana aurkeztu du herriko etxeak

Karrikak eta baserri auzoak suteetatik babesteko helburuarekin hamabi bilera puntu ezarri dituzte

TTIPI-TTAPA

Berako Mendiko Suteen Aurkako Udal Jarduera Planaren aurkezpena egin zuten irailaren 17an Beralandetan. Plan honen helburua Berako karrikak eta baserri auzoak suteetatik babestea da, kalte pertsonal eta materialik ez izateko. Kontuan hartu behar da, udan eta neguan, Arrisku Handiko Eremu (AHE) dela Bera. Simulakroetan eta bileretan parte hartzeko eta norbere etxearen autoebaluazioa urtero egiteko aholkua ere eman du udalak.

Hamabi bilera puntu udalerrian

Plan honek udalerri osoan hamabi bilera puntu zehaztu ditu: **Altzateko Plaza** (Illekueta, Matzada eta Zia), **Toki Ona aparkalekua** (Kaxerna, Kanttonberri, Legia ekialdea eta Eztegara ekialdea eta Sunpelttiki), **Correoseko aparkalekua** (Iturlandeta, Eztegara mendebaldea, Legia mendebaldea, Plaza Zaharra, Legarbidea, Bortziriak eta Ibaialde), **Agerran denda ondoko biribilgunea-Telletxea** (Agerra eta Bidasoa karrika Ibaialderaino), **Zalain auzoko plaza** (Zalain), **Garatxekoborda** (Suspela), **Kapera** (Dornaku), **Maritxenea** (Kaule), **Meaka** (Garaitarreta), **Ibardingo autokarabanendako aparkalekua** (Ibardin), **Bustiolako biribilgunea** (Ardanbide, Matxain eta Bustiola) eta **Malet** (Lizuniaga ingurua), bakoitza bere ebakuazio bide seguruarekin.

Laguntza eta defentsa

Gainera, boluntarioen larrialdi laguntza taldean (suteen kasuan laguntzen ahal duten edo lagundu nahi duten boluntarioak) edo defentsa taldean (ingurua ezagutzen duten abeltzainak, ehiztariak edo profesionalak, eta traktoreak, ponpak, eta halako tresnak dituztenak) izena eman daiteke noiznahi (*bera@bera.eus*).

BESTAK

Giro bikaina Illekuetako bestetan



ARANTZA AGIRRE

Illekuetako bestak ospatu zituzten irailaren 19an eta 20an. Juan Mari Adok piztu zuen lehen suziria larunbat eguerdian eta igande ilunabarrera arte, besta giro ederra izan zuten: Erraldoien karrika buelta, herri kirolak, auzo bazkaria, mus txapelketa, meza, Bera kantari, Gure Txokoako dantzariak... Mus txapelketako finalean, Txelu Oiarzabalek eta Esti Berruetak irabazi zieten Juanjo Iratzokiri eta Jon Iratzokiri.









ELKARTEAK

Egun osoko besta giroan ospatu dute Larun Haizpe elkartearen 20 urteak

Pilates eta kickboxing saioak, azoka, musika, herri kirolak eta tonbolaren zozketa izan zituzten irailaren 12an



Tonbolako 41 saridunetako bat.

Ttipi-Ttapa

Larun Haizpe Berako merkatarien, ostalarien eta zerbitzu enpresen elkarteak hogei urte bete ditu, eta urteurrena handiki ospatu nahi izan zuten irailaren 12an. Egun osoan hainbat ekitaldi egin zituzten eta, eguraldi ona lagun, jende aunitz bildu zen. Pilates eta kickboxing saioa eginez hasi zuten eguna haurrek, gazteek eta helduek. Hainbat postu paratu zituzten merkatariek eta ostatuek euren pintxo berezi eta guzi agertu ziren plazako azokara. Trikitixa eta gaita doinurik ere ez zen falta izan. Eguerdian herri kirol jaialdia egin zuten eta, ondotik, dantzariak aritu ziren.

Arratsaldean, haurrentzat jarduerak antolatu zituzten eta tonbolaren zozketa egin zuten. 41 sari sorta banatu zituzten, denak Larun Haizpeko bazkideek emandakoak. Hiru lagunek bina sari hartu zituzten. Eguna borobiltzeko, DJarekin musika izan zen.



Patxi Castillo zinegotzia eta Larun Haizpeko zuzendaritza batzordeko kideak.



Herri kirol jaialdiak ere ikusmina piztu zuen.

OSASUNA

Minbizia dutenei bideratutako talde tailerrak Beralandetan

Prozesu onkologikoetan ongizate emozionalerako taldeko tailerrak eginen dituzte urriaren 5ean, 19an eta 26an Beralandetan, 10:00etatik 12:00etara. Minbizia duten pertsonei bideratutako talde tailerra da eta Lesakako Osasun Zentroan eman behar da izena.

OSASUNA

Dementzia eta zaintza hizpide urriaren 5ean Beralandetan

Dementziari eta zaintzari (zaintzaileen auto zaintza, aldaketen identifikazioaz eta laguntza emozionala) buruzko hitzaldia emanen dute urriaren 5ean, astelehenan 16:00etan, Beralandetan. AFANeko profesionalek bideratuko dute zaintzaileei zuzendutako saioa.

ANTZERKIA

'Balkoi atzean emakumeak kantari' urriaren 3an

Nafarroako Gobernuaren Sendaberri programaren barrenean, Boga-Boga konpainiak *Balkoi atzean emakumeak kantari,* Adriana Salvok sortutako antzezlana eskainiko du urriaren 3an, larunbatean 17:30ean kultur etxean. Sarrera 7 euro gostako da.







'Emakume gehiago erabakiguneetan' kanpainarekin bat egin dute Baztan-Bidasoan.

URRIAK 15

Landa eremuko emakumeen rola aitortu eta ikusarazteko hitzorduak prest

Bertzeak bertze, hitzaldiak, antzerkia eta dokumentala antolatu dituzte Baztanen, Bortzirietan eta Malerrekan

TTIPI-TTAPA

Urriaren 15a Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna dela oroituz, Bortzirietako eta Malerrekako mankomunitateek eta Baztango Udalak Nafarroan martxan den *Emakume gehiago erabakiguneetan* kanpainarekin bat egin dute. Landa eremuko emakumeen rola aitortzea eta ikusaraztea dira helburuak, eta horren bueltan, hainbat hitzordu antolatu dituzte.

Alde batetik, EmakumeOn eta Emakume Politikoen programaren harira, emakumeei zuzendutako lansaioak antolatu ditu Nafarroako Berdintasunerako Institutuak. Bi saio izanen direla oroitarazi dute Bortzirietako eta Malerrekako mankomunitateek eta Baztango Udalak: urriaren 5ean *Zaintzak ikuspegi feministatik* hitzaldia Larraintzarren; eta azaroaren 9an, *Bizitza sostengatzen duten praktika feminista inspiratzaileak* izenburupean bertzea, online.

Baina bertzetik, eskualdean ere hitzordu gehiago izanen dira: hitzaldiak, antzerkia eta dokumentala, bertzeak bertze.

Hitzaldi informatiboak

Hiru hitzaldi informatiboko ziklo bat antolatu dute elkarlanean, *Etxeko langileen lan eskubideak* izenburupean. Saioetan lanaldia, atsedenaldia, oporrak, nominak, kotizazioa, langabezia prestazioa, erretiroa... landuko dituzte, baita bertzelako tresnak eta baliabideak ere. Saio horietako bat ortzegun honetan, urriaren 1ean, Elizondoko Arizkunenean izanen da, 17:00etan. Bigarrena Berako Beralandetan eginen dute, urriaren 7an, 17:00etan. Bi saio horiek herritar guziei irekiak izanen dira. Malerreka-Bertizaranako saioa, azkenik, urriaren 29an eginen dute, 12:00etan, Donezteben, mankomunitatearen egoitzan. Saio hori profesionalentzat, laneratzeko enpresentzat eta gaian interesa duten tokiko elkarteetako pertsonentzat izanen da.

Clown ikuskizuna

Programaren barrenean, helduentzat antzerkia ere antolatu dute. Larunbat honetan, urriaren 3an, Arantzan izanen da, 19:00etan. Anduriña Zurutuzak eta Beatriz Egizabalek *Jo!* ikuskizuna eskainiko dute Arantzako eskolako gimnasioan. Ikuspegi feministatik, eta umorea erabiliz, amatasunaren, familia osatzearen eta gizarte itxaropenen inguruan emakumeek bizi dituzten tentsioak, presioak eta kezkak agerian jartzen dituen lana da.

Dokumentala

Urriaren 15ean, Asisko Urmenetaren *Sorgina banaiz* dokumentala pantailaratuko dute Elizondon. Nafarroako sorgin ehizatik abiatuta, emakumeen jazarpenari buruzko gogoeta historiko eta kolektiboa egiteko proposamena da. 19:00etan hasiko da.

Bertze hitzaldi bat

Eta zikloa borobiltzeko, urriaren 16an, *Etxeko lanaren eta zaintzen balio sozial eta ekonomikoaren ikusgarritasuna* izeneko hitzaldia emanen dute Donezteben. Herritar guzientzat izanen da eta helburua «lan horiek bizitzaren iraunkortasunerako funtsezko ekarpena direla aitortzea eta haien duintasunaren eta jendarte aitorpenaren alde egiten segitzea da».

Baztango Udalak eta Bortzirietako eta Malerrekako Mankomunitateek «herritar guziei» parte hartzeko deia egin diete, eta «bereziki, inguru honetako emakumeei jardueretan parte hartzeko» eskatu diete: «Landa eremuko emakumeek egiten duten ekarpena, zaintzen balioa eta erabakiak hartzeko guneetan emakumeen presentzia handiagoa lortzeko beharra paratu nahi ditugu erdigunean».







UDALA

Auzoz auzoko informazio batzarrei ekinen die berriz ere herriko etxeak urrian

Urriaren 1ean Alkaiagako eta Zalaingo bizilagunekin hasi eta 16an Bittiria eta Eltzeta ingurukoekin bukatuko dute

Aitor Arotzena

Duela sei urte hasitako bidetik, urrian berriz ere auzo batzarrak deitu ditu udalak. Horietan, hainbat gairen inguruan dauden kezkak eta iritziak udal ordezkariekin elkarbanatzeko aukera izanen dute eta herritarrak parte hartzera deitu ditu udalak.

• **Urriaren 1ean**, ortzegunean, 18:30ean eginen dute lehena Alkaiagako Zelaian, Alkagaiako eta Zalaingo bizilagunei zuzendua.

• **Urriaren 2an**, ortziralean, 18:00etan Legarbaratzean (lau blokeetan), Otsango, Landazelaieta, Azkaine eta Albistur karrikak eta Itturrunzubiko plazatxoan 19:30ean, Antoiu, Koskontako bidea, Itturunzubi, Pepito Iantzi eta Albistur karriketako bizilagunekin bilduko dira..

• **Urriaren 4an,** igandean, 11:00etan Plaza Zaharrean (euria eginez gero, herriko etxeko arkupeetan), Albistur, Zarandia, Arretxea, Ote, Pikuzelaia eta Sumusa karrikak eta Beheko Plaza, Plaza Zaharra eta Plaza Berria.

• **Urriaren 15ean**, ortzegunean, 19:00etan Linddurren bordan, Nabaz, Katazpegi, Zala, Auzoberri, Endara, Frain, Izotzaldea eta Otsango auzoak.

• **Urriaren 16an**, ortziralean, 18:00etan Bittiriko plazan, Bittiriko plaza, Bittiria eta Garaikomendi karrikak eta 19:30ean Eltzetako plazan, Eltzeta, Arratzubi, Biurrana eta Martxanpaita karrikak.

Udal pilotalekua berritua

Bertze aldetik, berrikuntza lanen ondotik itxura dotorea hartu du udal pilotalekuak. Herriko etxeak bereziki azpimarratu nahi du Arkupe pilotazale elkarteak «auzolanaren bidez egindako lana eta erakutsitako inplikazioa. Haien ekimenari eta parte hartu duten herritarren lanari esker, denona den espazio bat denon artean hobetzea posible izan da».

TXIRRINDULARITZA

104 txirrindulari BTT ibilaldian



BETI GAZTE

104 txirrindularik parte hartu zuten irailaren 13an Beti Gaztek antolatutako Lesakako Mendi Bizikleta Ibilaldian. Eguraldi bikaina lagun, hiru ibilbide izan zituzten aukeran txirrindulariek: Ibilbide motza (23,24 km luze eta 770 metroko desnibela), ibilbide luzea (37,1 km eta 1.482 metroko desnibela) eta Bizibide zirkuituko zatia egiteko aukera ere izan dute (42,84 km eta 1.800 metroko desnibela).

OSPAKIZUNAK

Arrano Elkartearen egun arrakastatsua



ARRANO ELKARTEA

Giro ederrean ospatu zuten irailaren 19an Arrano Elkartearen Eguna. Goizean Agiñara mendi itzulia egin zuten batzuk (argazkian), baina ekitaldi jendetsuenak herrian izan zituzten: Poteoa Moltzoko txarangarekin, bazkaria Etxalarko asau egileen eskutik, bingo musikatua eta Atzarbale elektrotxaranga. Bezperan, euskal kulturari buruzko solasaldia ere interesgarria izan zen.

PILOTA

Amaiur Martinez txapeldun Donostiako Euskal Jaietan

Donostiako Euskal Jaiak txapelketako finalak jokatu zituzten irailaren 10ean Donostiako Trinitate Plazako pilotalekuan. Mundarroko Zabalak eta Arkupeko Amaiur Martinez Olazabalek 22-15 irabazi zieten Balerdiri eta Reyri.



UTZITAKOA

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA
EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK
zubiondojatetxea.com | T. 948 625 472 | Alasta karrika, BERA

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679


KULTURA

Victor Masferreren 'Denboraren materia' erakusketa berezia urrian liburutegian

Liburutegiko airea bildu eta ur bihurtzen duen gailua paratuko du urriaren 8tik 30era eta azalpena 22an

A. Arotzena

Etxalarren bizi den Víctor Masferrer kataluniarraren *Denboraren materia* proiektua ikusgai izanen da Lesakako liburutegian urriaren 8tik 30era. Proiektu honek eskultura eta prozesu gailu bat proposatzen du, liburutegiko airea bildu eta poliki-poliki ur bihurtzen duena. Kondentsazio sistema baten bidez, liburutegian eta arnasten den airea tanta moduan ikusgarri bihurtzen da, liburutegian emandako denbora partekatua materia ukigarri bihurtuz.



Instalazioaren eredu bat.

Bildutako ura tantaz tanta erortzen da inguruko errekako lohiarekin (Lesakan, Biurrana errekakoa) eta katalogotik kanpoko liburuen paperarekin egindako sistema baten gainean. Proiektu honen helburua ez da ura modu eraginkorrean ekoiztea, baizik eta prozesu motel, hauskor eta ireki bat hautematea, lekuaren erritmoa, pertsonak eta ura osatzen duten materialak harremanetan paratuko dituen prozesua. Vienako Unibertsitateko Institute or Materials Chemistry an Research (IMR) institutuarekin elkarlanean ari da Masferrer proiektu hau gauzatzen. Nafarroako Liburutegi Publikoen sare guzian eginen du erakusketa, baina Lesakakoa izanen da Nafarroa osoan lehena. Egileak azalpen ekitaldia eginen du urriaren 22an, ortzegunean 18:30ean.

OSPAKIZUNAK

III. Kantu Zaharren Eguneko bazkaria Alondegian eginen dute urriaren 10ean

III. Kantu Zaharren Eguna antolatu du kantuzale talde batek, udalaren eta Beti Gazteren laguntzarekin. Urriaren 10ean eginen da ospakizuna eta aurten, berrikuntza bezala, Alondegiko arkupetan eginen dute bazkaria. Txartelak hilaren 30era arte salgai dira Telletxea estankoan eta Izarra okindegian, 55 eurotan. Larunbatean 12:00etan kalejira eginen dute eta 14:00etan bazkaria. Musika kontuetan *Jalisco*, Beñat Mitxelena eta Frantzisko Santxotena izanen dituzte eta bertsolariak ere ariko dira. Sariak zozketatuko dituzte eta arratsean pintxoak emanen dituzte.

IKASTAROAK

Ikasturte osorako joskintza tailerra antolatu du aurten Beti Gaztek

Joskintza tailerra antolatu du aurten ere Beti Gaztek, udalaren babesarekin, oraingoan urriaren 6tik apirilaren 29ra. Kurtso osorako prezioa 40 eurokoa da bazkideentzat eta 70 eurokoa bazkide ez direnentzat. Izena emateko 652 74 81 67 telefonora deitu behar da (Maite, 15:30etik aitzinera). Leku mugatuak dira eta, ordutegi bat aukeratu eta bizkor ibili beharko dute interesatuek. Beti Gazteko bazkideek lehentasuna izanen dute.

Asteartetan eta ortzegunetan 18:00etatik 20:00etara eta asteartetan 10:00etatik 12:00etara eginen dute ikastaroa Beti Gazte elkartearen egoitzan.

KIROLA

Oihana Arruti garaile Sarako bestetako lasterketan

Oihana Arruti Terreros nagusitu zen irailaren 12ko Sarako lasteketan. 10 kilometro zuen ibilbidea 57 minutu eta 44 segundotan egin zuen. Amaia Saint Martin saratarra bigarren izan zen (58.48) eta Lilou Agerre hirugarren (1.01.01).



UTZITAKOA





MUSIKA

Susana Garcia Lastra organo jotzailea urriaren 24an elizan

Lesakako Organozaleak Elkarteak antolatutako zikloaz gain (ikusi 910 zk.) Organo Musika Nafarroan zikloaren 42. edizioaren barrenean, kontzertua eskainiko du Susana Garcia Lastra organo jotzaileak urriaren 24an, larunbatean 19:30ean, elizan.

KULTURA

Udazkeneko Kultur Egunetarako egitarau zabala prestatu dute aurten ere

Bertso-pilota jaialdia izanen da urriaren 4an eta Leitzako Jeiki Abesbatzaren kontzertua azaroaren 7an

Irune Elizagoien

Altxata elkarteak eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatutako kultur egunek badute hasiera data. Iazko arrakasta ikusita, bertso-pilota jaialdia izanen da lehenengo ekitaldia aurten ere. Urriaren 4an, igandean, 12:30ean bertso pilota jaialdiak hartuko du frontoia. Mikel Goñi eta Urruzola, Bengoetxea eta Azanzaren aurka arituko dira pilotan, Unai Gaztelumendi eta Maddi Ane Txoperenak bertsoz komentatuko duten partiduan. Kultur Egunetako bigarren ekitaldia azaroaren 7an, larunbatean, 19:00etan izanen da; Leitzako Jeiki abesbatzaren kontzertua elizan.

Uso postuengatik 50.603 euro hartuko ditu herriak

Lehen enkantearen ondotik bakarrik 9. postuari eman zioten sesta eta, 25 tanto hobetuta, azkenean 3.520 eurotan gelditu zen postu horren azken emaitza. Aurten, iaz ez bezala, bi postu hutsik gelditu dira (17. eta 18. postuak), baina gainerako 19 postuengatik eskuratuko duenarekin, udalak 50.603,12 euro bilduko ditu aurten erreMatea eta gastuak sartuta. Preziorik handiena Txorilepoko 12. postuarengatik ordaindu dute (7.105,30 euro gastuak barne), eta segidan, hurrenez hurren, 9, 11, eta 8. postuak izan dira lehiatuenak. *(ikus taula osoa erran.eus)*.

OSPAKIZUNAK

Sute Elkartearen 150. urteurrena



LAURA ELIZAGOIEN

150. urteurren borobila ospatzeko, irailaren 20rako egun osoko egitaraua antolatua zuen Etxalarko Sute elkarteak. Hamabortz lagun elkartu ziren igande goizean *Etxebizitzetako suteetan suhiltzaileei nola lagundu* hitzaldian, 30 lagun inguru mangerak probatzeko eta 50 herritarrek hartu zuten parte su itzalgailuen tailerrean. Gero, bazkari ederra izan zuten bazkideek Herriko Ostatuan.

BOTE LUZE

Etxalarko emakumeak txapeldun



UTZITAKOA

Iruhbi Pilota egitasmoaren baitan, Nafarroako Euskal Pilota Federazioak eta Laxoa Elkarteak antolatuta Mendialdeko I. Bote Luze Txapelketako finalak jokatu zituzten irailaren 13an Saran. Senpere, Sara, Bera, Etxalar, Ainhoa, Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko gizonak eta emakumeak aritu dira lehian. Emakumezkoetan, Etxalarrek 9-5 irabazi zion Berari, txapelketa honetako lehen txapela herrira ekarriz.

BESTAK

Giro ederra Urritzokietako bestetan



ITSASO ELIZAGOIEN

Irailaren 14an, Santa Krutz egunarekin eman zitzaien hasiera bestei eta irailaren 20an auzoa txukunduta bukatu dituzte aurtengoak Urritzokietako auzotarrek. Eguraldi ederra lagun, ia 100 lagun elkartu ziren larunbateko Asauan eta umore ona eta besta giro sanoa ez ziren faltatu, meza, mus, toka eta partxis txapelketa, Baratxuri Beltzak taldearen musika, dantza eta jokoen artean.

TXAPELKETAK

Xabier Gallardon eta Joseba Danboriena Ardi Moztaileen II. Txapelketan

Euskal Ardi Moztaileen Elkarteak Euskal Herriko Ardi Moztaileen II. Txapelketa antolatu zuen Elizondon, irailaren 20an. 80 moztailek eta zortzi selekziok parte hartu zuten lehian: Euskal Herria, Eskozia, Irlanda, Gales, Ingalaterra, Alemania, Frantzia eta Espainia. Denetara, latxa eta rasa arrazako 1.000 ardiri moztu zieten ilea, goizean hasi zituzten lehen kanporaketak eta arratsaldean izan ziren finalak. Etxalartarrak ere izan ziren parte hartzen eta beraien lanak txukun burutu zituzten: Xabier Gallardonek aizturrez eta Joseba Danborienak makinaz, senior mailan.

OSPAKIZUNAK

Besten aitzineko asteburuak aski emankorrak izan dira aurten ere

Berrizaungo bestak, gazta eta frontenis lehiak, dantzak…



Igandeko gazta lehiaketako saridunak, epaimahaiko kideekin. OSKAR TXOPERENA

Ana eta Itziar

Ohi bezala, herriko besten aitzineko asteburuak mugituak izan dira. Irailaren 12an Berrizaungo bestak ospatu zituzten eta ondoko asteburuan bertze hainbat ekitaldi. Larunbat goizean plater tiroketa eta gosaria izan zituzten Mukiegiko ehiztarien bordan. Saridunak Aiert Retegi, Iñigo Telletxea eta Joritz Eugi izan ziren. Herrian, bitartean, fronteniseko finalak jokatu ziren. Jokin Mitxeok eta Peio Migelenak eraman zuten txapela, finalean Lander Etxenikeri eta Aimar Zamorari irabazita. Hirugarren posturako lehian, Enaitz eta Urko Telletxea anaiek irabazi zieten Mikel Urtxegiri eta Urtzi Loiarteri.

Arratsaldean, Baratzondo elkartean mus eta partxis txapelketak jokatu zituzten. Hamar bikotek parte hartu zuten musean eta zortzi bikotek partxisean. Museko irabazleak Lizar Sein eta Xabi Alberdi izan ziren eta partxisean, aldiz, Marisol Dorronsorok eta Felixa Goienetxek eraman zuten lehenbiziko saria. Ilunabarrean herriko dantza taldeak, urtero bezala, saio ikusgarria eskaini zuen.

Argaratebereko gazta garaile


Igandeko gazta lehiaketan, Argaratebereko Maixe Lizardiren gazta izan zen onena. Bigarren Txori-Tokiko Justa Sein gelditu zen eta hirugarren Antsoneberriko Enkarna Etxeberria. *info+: erran.eus*



Jokin Mitxeok eta Peio Migelenak irabazi zuten frontenis txapelketa.



Plater tiroketako podiuma.



Berrizaungo bestak.



Zortzi bikotek parte hartu zuten partxis txapelketan eta hauek izan ziren onenak.



Urtero bezala, saio ikusgarria eskaini zuen herriko dantza taldeak. OSKAR TXOPERENA

OSPAKIZUNAK

Baserritarren Egunean parte hartzeko deia egin du Ekaitza Elkarteak

Azokan postua paratzeko edota gazta eta ahari lehiaketetan parte hartzeko urriaren 9a baino lehen apuntatu beharko da

Nerea Alzuri

Aurtengo Baserritarren Eguna prestatzen hasia da Ekaitza Elkarteak. XXX. edizioa izanen da eta produktuak, erremintak, aziendak, eskulanak... erakutsiz edo saltzeko paratuz, parte hartzeko gonbita egin die herritarrei. Gazta eta ahari lehiaketak ere izanen dira.

Bai postua paratu nahi dutenek, bai gazta edo ahari lehiaketetan parte hartu nahi dutenek urriaren 9a baino lehen apuntatu beharko dute. Aziendak eramateko Jon Jorajuriari edo Dabit Iturriari erran behar zaie, postua paratzeko Amaia Apaolazari edo Rakel Arotzenari eta gazta lehiaketan parte hartzeko Xabi Etxagueri edo Idoia Etxeberriari.

Aziendak eramatearen alde diru kopuru bat emanen du Ekaitza Elkarteak. Ardien eta ahuntzen kasuan, guttienez sei buruko lotea izan beharko du eta 55 euro emanen ditu elkarteak. Abrekietan, gehienez hiru buruko loteak izanen dira eta buruko 50 euro ordainduko ditu. Behikietan, guttienez bi buruko loteak izanen dira eta buruko 50 euro ordainduko ditu. Gazta lehiaketan, berriz, gazta bakoitzeko 25 euro emanen ditu, eta horrez gain, lehiaketan, lehenbiziko saria 120 eurokoa izanen da, bigarrena 100 eurokoa eta hirugarrena 60 eurokoa. Ahari lehiaketan, lehenbiziko saria 50 eurokoa izanen da eta bigarrena 25 eurokoa.

KULTURA

'Jo!' antzezlana larunbat honetan eskolako gimnasioan

Urriaren 15a Landa eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunа dela eta, antzerkia antolatu dute berdintasun zerbitzuak eta udalak. Larunbatean, urriaren 3an, izanen da, 19:00etan. Anduriña Zurutuza eta Beatriz Egizabalek *Jo!* antzezlana eginen dute eskolako gimnasioan.

GASTRONOMIA

Jardunaldi gastronomikoetan herriko hiru jatetxe

Bidasoko Turismo Elkarteak, Ehizari buruzko XXXIV. Jardunaldi Gastronomikoak antolatu ditu aurten ere. Urriaren 10etik abenduaren 8ra izanen dira eta parte hartuko duten zortzi jatetxeen artean, Pabloenea, Burlada eta Arantzako Aterpea daude.

Eramateko janaria
astelehenetik ortziralera
Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa BERA t. 948 630 967 w. www.zalain.info

HONDAKINAK

Traste handiak karrikan ez uzteko eskatu du udalak

Traste handiak ezin direla nonahi bota oroitarazi du udalak. Garbigune zerbitzura deituta (672 045734) etxez etxeko bilketa egiten dutela gehitu du. 300 euro bitarteko isunak paratzen ahal dituzte karrikan neurri handiko trasteak uzteagatik.



ARANTZAKO UDALA

AUZOLANA

Auzolanean eskolako rokodromoa eta paretak pintatuak

Udalaren auzolanerako deialdiari erantzunez, herritar kuadrillatxo bat eskolako patioan dagoen rokodromoa eta paretak pintatzen aritu ziren irailaren 19an. Emaitza polita izan da, txukun aski gelditu baita.



ARANTZAKO UDALA

TURISMOA

Arantza Hotela jasangarritasunaren eredu

Jasangarritasunaren alde egindako lanaren bidez, Arantza Hotelak bere jarduerak sortzen dituen berotegi-efektuko gasen emisio guztiak konpentsatzen ditu. Rebeca Esnaola kontseilariak berriki bisitatu du hotela.



NAFARROAKO GOBERNUA

UDAZKENA

Udazkenean sartuta kolore ederrak bazterretan

Aski kolore politak erakusten ditu udazkenak naturan, eta horren erakusle da Aritz Iparragirre Alberdi herriko gaztearen argazki hau. Ekaitzako kaskotik herri aldera ateratako irudia da.



ARITZ IPARRAGIRRE ALBERDI

BIOK
RESTAURANTS



HURBILDU ETA GOZATU GURE ETXEKO PLATER BEREZIENEKIN. USOAREN MENUA DAGOENEKO GURE JATETXEETAN DUZU ZAIN!

EGÜNERO IREKITA

MENUA

HASIERAKOAK
Onddo-tortilla
Maskarada Euskal-Txerri Urdaiazpikoa
Onddo et boilur kroketak
Onddoz betetako piperrak
Txipiroi eta urdaiazpiko entsalada

PLATER NAGUSIA
Uso-salmisa
Arkume-txuletillak, piperrak eta patatak
Mihi-arraina meuniere saltsarekin eta patatak
Legatza onddoekin eta patatak

POSTREA
Kartatik aukeran

948 63 07 07
Egin ezazu hemen zure erreserba

JATETXEAK

MIRENTXU | SUTONDO IBARDIN	**OIHANA | OTXONDO | LAPITXURI** DANTXARINEA	**XABI** LUZAIDE

IBARDIN - DANTXARINEA - LUZAIDE

ventabiok.com



'Joare tte' film laburrean parte hartu dutenetako batzuk eta senideak.

KULTURA

Ekaitz Bertizek Donostiako Zinemaldian estreinatu du 'Joare tte' filma

Herriko zuzendariaren azken lana Kimuak programaren barrenean eman zuten irailaren 19an

Maider Petrirena

Ekaitz Bertiz Apezetxea sunbildarrak Donostiako Zinemaldiaren 74. edizioan aurkeztu du Ituren eta Zubietako inauterietako joaldunaren figurari buruzko bere film laburra, *Joare tte*. Kimuak programako film labur guztiekin batera emanaldi pribatu bat izan zuen irailaren 19an. *Erreka zoko hortan* lanaren ondotik, Kimuak programan hautatu dute Bertizen lana, bigarren urtez segidan.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Etxepare Euskal Institutuaren bitartez, Euskadiko Filmategiaren lankidetzarekin, urteko euskal film labur onenen nazioarteko hedapena sustatzeko Kimuak ekimenaren programazioaren barnean ikusi ahal izan da film laburra eta nazioarteko zirkuituan euskal zinemak duen erakusleiho nagusietako bat da.

«Segitzeko motibazioa»

Ekaitz Bertiz zuzendariak aipatu duenez, «bigarren urtez segidan Kimuaken hautatu izana eta film laburra Zinemaldian ikusi ahal izatea poz handia da. Egiten dugunarekin segitzeko motibazioa ematen digu; ikasten eta bertze zinemagile batzuk ezagutzen joateko lorpen txikiak. Hagitz leku berezia da, ia etxean bezala sentitzen garena, euskarari eta bertako ekoizpenei eskaintzen zaien maitasuna eta babesa sentitzen baitira».



PILOTA

Nahia Bertiz onenen artean



UTZITAKOA

Emakume Master Cup zirkuituko hainbat txapelketetan ari da Nahia Bertiz herriko pilotaria (argazkian, Aldairekin batera, Arrizabalaga eta Zabalaren kontrako partidan). Hiru Hiriburuak txapelketako final laurdenetan galtzea suertatu zitzaion irailaren 20an Gasteizen eta irailaren 26an Logroñoko San Mateo torneoko finala jokatzekoa zuen, Benitorekin batera, Sagardui eta Capellanen kontra.

TXIRRINDULARITZA

Eneit Bertiz garaile Valdizarben



UTZITAKOA

Valdizarbe Xtrem mendi bizikleta proba egin zuten Garesen irailaren 12an, eta bertan Eneit Bertiz Apezetxea txirrindulari sunbildarra izan zen garaile. Bi ibilbide izan zituzten aukeran parte hartzaileek eta Bertiz 60 kilometro luze eta 1.800 metroko desnibela zuen proba luzean nagusitu zen. Mendi bizikleta denboraldi berrirako gogotsu ari da prestatzen, iaz Euskadiko Irekia irabazi ondotik.





Gaztetxoenek ere ongi pasatzeko tartea hartu zuten besta ttikietan. UTZITAKO ARGAZKIA

BESTAK

Besta ttikiak giro onean joan badira ere udalak irmoki gaitzetsi ditu ostiraleko gertakariak

Oier Zulaika

Gozotik eta gazitik izan dute aurtengo besta ttikiek. Alde batetik, Gazte Burrunba taldeak egitarau betea antolatu zuen: mus txapelketa, zezensuzkoa, musika, erraldoiak, gazte bazkaria, jokoak... Eta hala, haurrek, gazteek eta helduek izan zuten giro ederrean gozatzeko aukera.

Baina bertzetik, irailaren 18an, gertakari larriak izan ziren eta horrek ilundu zuen besta giroa. Horren inguruan, udalak adierazpena egin du, «bestetan ere, pertsona guztiek modu librean eta seguruan gozatzeko eskubidea» aldarrikatuz eta gertatutakoaren inguruan, «gaitzespen irmoa» adieraziz: «Gure gizartean eta gure bestetan ez du tokirik inolako indarkeriak».

Gisa berean, «herritar guzien segurtasuna eta askatasuna bermatzearen aldeko konpromiso irmoa» berretsi du. Eta herritarrei, berriz, «indarkeria mota guztien aurrean tolerantzia zero izateko, jarrera horien kontra tinko planto egiteko eta elkarrekiko errespetuan oinarritutako bestak aldarrikatzen segitzeko» eskatu die.

MOTORRAK

Motozaleen topaketa



ARANTXA ERBITI

Basurde Peñak antolatuta, aurten hamaikagarren aldiz, motozaleen bilgune izan zen Doneztebe irailaren 11tik 13ra. Ekitaldi saila izan zituzten hiru egunetan eta hainbat bazterretako motozaleak bildu ziren. Antolatzaileek adierazi dutenez, «primeran atera zen eta giro zoragarria izan genuen». Guttiago gelditzen da orain heldu den urteko topaketarako.

KIROLA

Erizetarrak nagusi frontenisean



ANDREA DE RUEDA

Beste ttikietako ekitaldien artean, kirolari ere keinu egin zioten herritarrek, eta irailaren 18an, Doneztebeko Frontenis Txapelketa Mistoko finala jokatu zuten. Andrea Erize eta Jon Erize, Eneko Maylin eta Nerea Apezetxearen kontra aritu ziren eta lehenbizikoak nagusitu ziren, partidua 30-27 irabazita. Frontenis txapelketaren bueltan, giro polita sortu zen.

OSPAKIZUNAK

Errekazaleen urteurreneko hitzordu handia giro ederrean

Erreka Kirol Elkartearen 50. urteurrena handikiro ospatu zuten irailaren 12ko asteburuan. Modu batean edo bertzean, Errekaren parte izan zirenen besta izan zen eta jendetza bildu zen: bazkarian, adibidez, 400 lagun elkartu ziren.



ERREKA ELKARTEA

KIROLA

Erreka erremonte eskola urriaren 8an hasiko da

Aurten ere erremonte eskola paratu du martxan Erreka elkarteak. Urriaren 8an hasiko da eta azken orduko aldaketarik ez bada, ortzegunetan izanen dituzte entrenamenduak. Frontoira agertuta edo 627 73 34 17ra deituta oraindik bada apuntatzeko aukera.



Joaldunak Ameztiko baserri baten atarian. IRUNE BAZTERRIKA



Estefi Etxebeste errekorra egin ondotik, joaldunek inguratua. IBON ERRAZU URIA

OSPAKIZUNAK

Inoiz baino bikainagoa eta jendetsuagoa izan da aurtengoan Joaldunen Eguna

Ohiko ekitaldiez gainera, Estefi Etxebesteren errekor handiak jendetza erakarri zuen plazara

Arkaitz Mindegia

Irailaren hirugarren larunbatean ospatzen da Joaldunen eguna. Aurtengoa ere arras arrakastatsua izan da. Urterok bezalatsu, goizean joaldunek, trikitilariek eta pandero jotzaileek Ameztian hasi zuten ibilbidea. Ameztin baserriz baserri ibili ziren, beraien joare eta musika tresnen soinuekin auzo horretako baztarrak eta auzokideak alaituz. Eguerdian herriko plazan bukatu bazuten ibilbidea, baina lehenagotik Lasaga auzotik pasa ziren eta herrian ere egin zuten itzulixka.

Estefi Etxebestek errekorra

Plaza leporaino bete zen, aurtengoan zita garrantzitsua iragarria baitzegoen. Estefi Etxebeste herriko harri altxatzailearen errekor saiakera. Topera ibilia zen entrenatzen eta, saiatzen denak, azkenean lortzen du. Harriak 165 kiloko pisua zela markatzen zuen, baina pisatzerakoan, 166 kilo zituela agertu zen. Lehen saiakeran harria erori zitzaion, baina gero bitan altxatu zuen. Emozioak eta poztasunak nagusitu zitzaizkien lehenagotik zeuden urduritasunei. Herri kirol saioa akitzeko aizkolariak eta harri altxatzaileak aritu ziren: aizkoran Eneko Otaño, Mikel Larrañaga eta Eneko Saralegi eta harri altxatzen, berriz, Udane Ostolaza, Olaia Esnaola, Xabier Aranburu, Jon Goenatxo eta Udane Perurena herriko gaztea. Karpa azpiko herri bazkaria baino lehen Aitor Mendiluzek eta Unai Agirrek beraien bertsoak bota zituzten eta bazkalondoan ere bi bertsolari handi horien bertsoak entzuteko aukera izan zen. Gerria eta mingaina mugitzeko aukera ere izan zuten egunaren akabaila arte, Andoni Mitxelena akordeoilariarekin.

KULTURA

III. Truxa Muxa egitasmoa Tresanean



UTZITAKOA

Malerreka sormenaren epizentro izan da, animazioaren eta bideo jokoen arloan. Barbara Gragirenak sustatuta, Truxa Muxa egitasmoaren hirugarren edizioa egin dute Elgorriagako bainuetxean eta Tresanean, irailaren 18tik 20rako asteburuan. Zazpi proiektu landu dituzte sortzaileek (horietako batzuen lanak Netflix, Disney edo Cartoon-en ikusgai direnak), lau animaziokoak eta hiru bideo jokoak.

MEMORIA

Herriko hiru fusilatuei buruz hitzaldia urriaren 23an eskolan

Solasaldi arras interesgarria antolatu dute urriaren 23rako, 19:00etan, eskolan. 1936an hiru aurtiztar errepresio frankistaren biktima izan ziren: Aurtizko Pedro Maria Gorostidi Imaz (medikua), Miguel Hualde Gorosterrazu (herriko etxeko diruzaina) eta Juan Bautista Iriarte Azpiroz (Arraitzen maisu). Irailaren 28an fusilatu eta Bidasoaren bazterreko ezponda batean sartu zituzten. Haien inguruko ikerketa egin dute Fernando Mikelarena eta Juainas Paul historalariek eta beraiek izanen dira hizlari.

PILOTA

Dunixe Alberro Hiru Hiriburuen txapelketan finalerdian sartu da

Emakume Master Cup zirkuituaren barrenean Hiru Hiriburuak txapelketa abiatu zen Gasteizen irailaren 20an. Hiru mailatan banatutako 80 pilotari aritu ziren eta, promesa mailan, Dunixe Alberro herritarrak, Intza Arrutirekin bikote eginez, urriaren 4an Donostiako Atano III.a pilotalekuan jokatuko diren finalerdietarako sailkatzea lortu zuen. Lesakako Ainize eta Amaiur Martinez ahizpak izanen dituzte arerio eta irabazleek jokatuko dute finala urriaren 11n Bilbon.



Larunbateko herri bazkariak jendetza bilduko du aurten ere. IZASKUN ZUBIALDE

OSPAKIZUNAK

Euskararen Eguna urriaren 9tik 11rako asteburu osora hedatuko da aurten

Larunbatean II. Mendi Lasterketa eginen dute eta igandean ere auzolana, paella jatea, bingoa eta musika antolatu dute

Fermin Etxekolonea

Inoiz baino egitarau zabalagoarekin eta ekitaldiak asteburu osora zabalduta, Euskararen Eguna antolatu dute aurten herriko gazteek urriaren 9tik 11rako astebururako.

Urriaren 9an, ostiralean, 20:00etan pintxo lehiaketa izanen dute Errandonea ostatuan (pintxoak entregatzeko epea 19:00etatik 19:30era) eta trikipoteoa ere eginen dute. 21:30ean mus txapelketa jokatuko dute Errandonean.

Urriaren 10ean, larunbatean, bigarren aldiz, mendi lasterketa eginen dute 09:30ean abiatuko dira korrikalariak, baina 07:30erako hasiko dira dortsalak banatzen. 10:00etan hasita, herriko eskulangileen lanak egonen dira ikusgai eta erosgai plazan. Sarien zozketa ere eginen dute eta joaldunak ibiliko dira goizean. 12:30ean aizkora apustua: Mikel Indakotxea eta Jokin Larrieta; Mikel Santesteban eta Jesus Etxeberria eta Julen Urrutia eta Ioan Goikoetxea. Aizkora erakustaldia ere eginen dute Jagoba Santesteban eta Aimar Fernandez gazteek. Ondotik, mendi lasterketako eta tonbolako sariak banatuko dituzte. 14:30ean herri bazkaria (bazkarirako txartelak irailaren 26an eta 27an hartu behar ziren). 16:30ean haurrendako ihes gela. 17:30ean 3Indarrok eletrotxaranga ibiliko da. 20:30ean Oilar Beltzak musika taldearen emanaldia. Ilunabarrean, Zubietako taloak izanen dira eta zezensuzkoa ibiliko da. 23:30ean hasita Baratxuri Beltzak erromeria taldea izanen da plazan eta gauerditik aitzinera gaupasa, DJ Alkaperen musikarekin.

Aipatu bezala, aurten igandean, **urriaren 11n** ere izanen du segida Zubietako Euskararen Egunak. 10:00etan auzolana eginen dute, 14:00etan paella jatea, 16:30ean bingoa ega 17:30ean Aresoko Familiaren emanaldia (Jaione, Jon eta lau seme-alabak).

KULTURA

Bertso-Klown saio jendetsua



UTZITAKOA

Alazne Untxalo zubietarra eta Julio Soto gorritiarra, Beatriz Egizabal umoregilearekin batera, estalpean izan ziren irailaren 12an, larunbat arratsalde partean, *Klown* batbateko bertso saio berezia eskaintzen. Untxalok eta Sotok umorea eta bertsoa uztartu zituzten eta umoregileak, bitartean, bakarrizketen bidez gaiak proposatzen zizkien. Jendetza polita bildu zen eta giro ederra izan zuten.

PILOTA

Endika Santesteban txapeldun Altsasun



UTZITAKOA

Altsasuko Santo Cristo de Otadia Pilota Txapelketaren 54. edizioko finalak jokatu zituzten irailaren 13an Altsasuko Burunda pilotalekuan. Binakako txapelketaren finalean ez zen kolorerik izan eta Astigarragako Mundarroko Etxeberriak eta Irurtzun klubeko Endika Santesteban zubietarrak 22-5 irabazi zieten Nazabali (Larraun) eta Leitzako klubeko Eñaut Goikoetxeari.



ELIKADURA

Tokiko elikadura sistemari buruzko saioa larunbat honetan Donezteben

Solasaldiak eta mahai ingurua izanen dira eta izena emateko epea ortzegun honetan akituko da

TTIPI-TTAPA

Tokiko elikadura sistema indartzeko eta Baztan-Bidasoa mailan hausnarketa bat garatzeko intentzioarekin, jardunaldiak antolatu ditu Cederna Garalur elkarteak. Larunbat honetan, urriaren 3an, eginen dute, 09:00etatik 13:30era Donezteben Galbaraialde eraikinean. Bi zatitan banatu dute: alde batetik, solasaldiak eginen dituzte eta bertzetik, mahai ingurua.

Solasaldiak

Hiru solasaldi prestatu dituzte: Lehenbizikoan, *Erronka globalen aurrean tokiko elikadura sarea ehuntzen* hartuko du hizpide Miren Begiristain Zubillagak. Ekonomialaria, EHUko irakaslea eta agroekologian ikertzailea da eta Biolurreko koordinazio taldeko kidea. Bigarren hitzaldian, *Nola eragin udaletatik? Tokiko elikadura politikak* hitzaldia emanen du Lorea Lizarreta Insausti Baztango Landa garapeneko eta tokiko ekonomiako zinegotziak. Hirugarrenean, *Oiartzun Burujabe egitasmoko elikadura mahaia*ri buruz ariko da Ibon Mitxelena Fernandez, Oiartzungo burujabetza eta ekonomia sozialeko zinegotzia. Hitzaldiak akitutakoan, hamaiketakoa eginen dute bertako produktuekin.

Mahai ingurua

Bigarren zatian, mahai ingurua eginen dute, elikadura arloko ekimen zehatzak esplikatuz: Kalaska kooperatiboekin Sakanako hiltegia eta zatitze gelaz ariko dira; Alegiko Sindikatokoekin Itsasoko ekoizle eta kontsumitzaileen dendaz eta Bidaurretako nekazariak baratzezaintza kolektiboaz.

Saioa euskaraz izanen da eta itzulpen zerbitzua emanen dute. Izena emateko azken eguna ortzegun hau, urriaren 1a, izanen da (*labur.eus/elikadura-jardunaldiak*). Informazio gehiagorako: *bidasoa-elikadura@cederna.es*.

Hilabeteroko hitzorduekin hasi dira pentsiodunak

Udan deskantsu hartuta, ikasturtea hasi dute Baztan-Bidasoaldeko Pentsiodunen Mugimenduko kideek. Hala, lehenbiziko elkarretaratzea irailaren 21ean Donezteben egin zuten eta 26 lagun bildu ziren. Hurrengoa urriaren 19an Lesakan eginen dute.



JULEN MITXELTORENA

DONAMARIA

Musika kontzertuak Donamarian





DELIA PORTILLO

Irailean zuzeneko musikaz gozatzeko bi hitzordu izan dituzte Donamarian. Alde batetik, irailaren 12an, Dorrealdia festibalaren seigarren edizioa egin zuten. Xabi Aburruzaga trikitilari ezaguna gonbidatu zuten eta bildutako dirua Kurdistango Mirzo Music Foundationera bideratu dute. Bertzetik, Kultur programaren barrenean, irailaren 19an Hondora taldeak kontzertua eman zuen.

BAZTAN-BIDASOA

Urriaren 5ean akituko da gizonen taldean apuntatzeko epea

TTIPI-TTAPA

Xareta, Baztan, Bertizarana, Malerrekako eta Bortzirietako gizonen taldeak urrian hasiko du bigarren ikasturtea. Zehazki, urriaren 9an hasi eta maiatzera bitarte, zortzi saio eginen dituzte. Tarte horretan, Eraikiz kolektiboarekin elkarlanean, maskulinitateak, harremanak eta berdintasunaren aldeko konpromisoa landuko dituzte. «Taldea gizonek berdintasunaren alde modu aktiboan hausnartzeko, beren bizipenak partekatzeko eta harreman berdinzaleagoak eraikitzeko espazioa da». Hala adierazi dute Baztan, Bortziriak, Bertizarana eta Malerrekako berdintasun zerbitzuek.

Zortzi saio

Irailaren 18an Donezteben egindako aurkezpenean zehaztu zituzten aurten bigarrenez eginen den taldearen nondik norakoak. Saioak hilabetean behin eginen dituzte, 16:30etik 19:30era, Donezteben Galbaraialde eraikinean. Zortzi saioen datak hauek izanen dira: urriak 9, azaroak 6, abenduak 11, urtarrilak 8, otsailak 12, martxoak 12, apirilak 9 eta maiatzak 14.

Taldean Xareta, Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortzirietako gizonek parte hartzen ahal dute eta bakoitzak 50 euro ordaindu beharko ditu zortzi saioengatik. Izena emateko epea urriaren 5era arte izanen da irekia, eta apuntatzeko edo informazio gehiago biltzeko, berdintasun zerbitzuekin harremanetan jarri behar da: Bortzirietako (722 69 30 78), Malerreka-Bertizaranako (621 12 06 20) edo Baztango Berdintasun Zerbitzuak (613 00 36 34).

LEGASA

Legasako saihesbidea egiteko eskaera parlamentura eraman dute

Saihesbidea eraikitzeko eskatuz, parlamentuko lansaioan izan dira udaleko, kontzejuko eta eskolako ordezkariak



Legasako plazan hartutako irudia. TTIPI-TTAPA

TTIPI-TTAPA LEGASA

Eskaera aspaldikoa da, herritarren segurtasuna eta bizi kalitatea bermatzeko, saihesbidea eraikitzea nahi dute Legasan. Horren harira, irailaren 15ean Nafarroako Parlamentuko lansaioan parte hartu zuten udaleko, kontzejuko eta eskolako ordezkariek. Babesa eskatu zuten.

Andres Etxenike Iriarte Bertizaranako alkateak, Jexux Etxarte Ansalas Legasako alkateak, Igor Lopez de Uralde Gutierrez udal arkitektoak eta Maria Azpiroz Hernandorena eskolako zuzendariak parte hartu zuten Nafarroako Parlamentuaren lansaioan. Hasteko, arazoa esplikatu zuten. Herrigunetik zirkulazio handia pasatzen dela azpimarratu zuten, «egunean 200 ibilgailu», eta bide horretatik, bertzeak bertze, eskolako ikasleak ibiltzen direla gehitu zuten, arrisku handiko egoerak sortuz.

Arazoa esplikatuta, horri soluzioa emateko esku artean duten saihesbidearen proiektua ere aurkeztu zuten. 320.000 euro kostako litzateke eta trafikoa Legasako herrigunetik aterako luke. Zehazki, Arcelor lantegiaren eta herriaren artean eraiki nahi dute saihesbidea.

Legasako ordezkarien ondotik, politikariek hartu zuten hitza: UPN, PSN, EH Bildu, Gero Bai, PP eta Condigo-Zurekin taldeetako ordezkariek, hain zuzen. VOXekoak bileratik alde egin zuen.

Legasako alkatearen arabera, «inor ez zen kontra atera. Denek arazoa ulertu zuten eta horrelako proiektuek beraien filosofiarekin bat egiten dutela adierazi zuten. Orain, Nafarroako aurrekontuen negoziaketetan hartuko dute kontuan. Zer aterako den ez dakigu, baina itxaropentsu atera ginen».

NARBARTE

Eskola eta eskolatik kanpoko ekintzak martxan dira

Maite Bertiz NARBARTE

Ia hilabetea pasatu da eskolan hasi zirenetik, eta gaurgero martxa hartu izanen dute Narbarteko eskolan. Aurten hiru urteko ni neskato hasi dira Narbarteko eskolan: Luaia Zubigarai eta Laia Arregi. Eta seigarren maila akituta, bortzek joan dira institutura: June Martin, Pablo Agirre, Oier Salaberri, Jokin Perez eta Mikel Bengoetxea.

Eskolatik kanpo ere bada zer egin Narbarten: jubiloteka, euskal dantzak, lerro dantzak, margoketa eta gaita eskola martxan dira. Interesa duenak oraindik edozein ikastarotan izena ematen ahal du.



Luaia Zubigarai eta Laia Arregi eskolan hasi dira aurten. MAITE BERTIZ

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea
www.kulturkari.com

Biniloak
Pareta eta erakusleihoetarako
Neurrira eginak, azido efektua, elektrostatikoak, gardenak, jartzeko errazak...

LIDERA
HORTZ KLINIKA
ORTODONTZIA
> Ortodontzia gardena
> Teknologia garatuko bracketsak
> Errehabilitazio Neuro-Oklusala
Mastekatzea, arnasketa, irenstea eta fonazioa ikuspegi orokor batetik aztertu eta tratatzen dugu
Iturrunzubiko pl. 9-10 LESAKA | T. 722 662 478 | lidera@hortzklinika.es | @liderahortzklinika

BASABURU TTIKIA-MALERREKA

SALDIAS

Basaburu Ttikiko herritarrak biltzeko hitzordua larunbatean Saldiasen

Musikari, historia kontuei, herri kirolei eta jatekoari lotuta, egun osoko egitaraua prestatu dute

TTIPI-TTAPA SALDIAS

Basaburu Ttikia badela eta izanen dela aldarrikatuz, pestarako bilduko dira Beintza-Labaien, Eratsun, Ezkurra eta Saldiasko herritarrak larunbat honetan, gaztainzituaren 3an, Saldiasen. Aurten, lehenbiziko aldiz antolatu dute Basaburu Ttikiaren Eguna eta horren bueltan, egun osoko egitaraua prestatu dute.

Egitaraua

Goizean artisauak plazan izanen dira. 09:30ean karrika erronda eginen dute txistulariek eta 10:00etan solasaldia antolatu dute. Juainas Paul Arzak *Basaburu Ttikiaren historiaren inguruan* ariko da Herriko Etxeko ganbaran. Ondotik, 11:30ean, txistularien emanaldia hasiko da elizan. Gazteak izanagatik, maila handia duten hiru txistulari gonbidatu dituzte: Leitzako Leire Retegi, Beintza-Labaiengo Ane Telletxea eta Elizondoko Izar Inbuluzketa.

Musikak kirolari emanen dio lekukoa eta 12:30ean herri kirol saioa hasiko da plazan: aizkora mistoan, aizkoran altueran, arpanean, harri goitzen eta giza proba mistoan ariko dira.

14:00etan mahaiaren bueltan bildu eta zikiro jatea eginen dute eta bazkalondoan J&J DJ-ekin musika izanen dute. Horrez gain, Saldiasko talogileen taloak jateko aukera izanen da egun osoan.

SALDIAS

Jakoba Errekondoren hitzaldia



MARKEL LIZASOAIN

Zuhaitzak eta arbolak Euskal Herrian liburua eskuetan hartuta, Saldiasen izan zen Jakoba Errekondo irailaren 12an. Liburua aurkezteaz gainera, Euskal Herriko kulturaren historian eta garapenean zuhaitzek eta arbolek izan duten garrantziaz aritu zen Errekondo. Dozenaren bat lagun juntatu ziren Herriko Etxeko ganbaran egindako hitzorduan.

BEINTZA-LABAIEN

Euskal Besta ederra





JON TELLETXEA, JUANI GOÑI ETA ARANTXA ITURRALDE

Eguraldi eta giro onarekin ospatu zuten irailaren 12an Euskal Besta Beintza-Labaienen. Goizean, ikuskizun polita eskaini zuten Plaza Zaharrak Bizirik-ekoek, pilota, bertsoa eta trikitixa uztartuz Labaiengo plazan. Arratsaldean, saio bikaina egin zuten Beintzan, Mikel eta Esti Markezek, Beñat Mitxelenak eta Uxue Ibarrak, Anjel Mariezkurrenaren gidaritzapean. Horrez gain, Zubietako talogileen taloak jateko aukera izan zen.

URROZ

Frontenits txapelketa akitu da





AITZIBER ZOZAIA

Aldizkari hau etxeetara ailegatzerako jakina izanen da zeinek irabazi duten Urrozko frontenis txapelketa. Bestetako lehenbiziko egunean jokatzekoa zuten partidua Ibai eta Andreak batetik, eta Unai eta Oskiak bertzetik. Lerro hauek, ordea, finala jokatu aitzinetik eskribitutakoak dira eta final laurdenetan ateratako argazki hauek ordukoak dira.

MARITX
Ingeniaritza elektrikoa | Industria buletina
Proiektu eta instalazio elektrikoak
636 617 450 Legia, 23 BERA

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK









«Eskaintzen dugun zerbitzua bezero bakoitzaren beharretara egokitzen dugu»

JOXEMA IRIARTE, ASIER ANDUEZA ETA MIKEL IBARRA TXIMISTINDAR



Joxema Iriarte eta Mikel Ibarra dira Tximistindarreko buruak eta Asier Andueza enpresako ingeniaria.

Eneritz Iraola BERA

1996. urtean sortu zuten Beran Tximistindar enpresa. Oinarrizko instalazio elektrikoak eginez hasi zuten ibilbidea, baina garai berrietara egokitzen jakin eta gaur egun, mota guztietako lanak egiten dituzte: «Instalazio elektrikoak, domotika, panel fotovoltaikoak, ibilgailu elektrikoen kargatze puntuen instalazioak, energiaren kudeaketa, dirulaguntzen tramitazioa...». Argi dute zein den xedea: «Kasu bakoitza aztertu eta bezeroei irtenbide seguruak eta eraginkorrak eskaintzea da asmoa». Ez hori bakarrik, korapilatsuak izan daitezkeen prozeduretan laguntza ere eskaintzen diete: «Hasierako azterketatik hasi eta proiektua legeztatu eta dagozkion dirulaguntzak bideratu arte, prozesu guztian izanen dute gure laguntza».

Lantalde egonkorra

Joxema Iriarte Zubieta beratarra eta Mikel Ibarra Ibarra sunbildarra dira Tximistindar enpresako bazkideak eta, beraiekin batera, beste bederatzi langilek osatzen dute lantaldea. Tartean da Asier Andueza Ostolaza ingeniari beratarra. Bulegoko lanaz arduratzen da Andueza eta berak egiten ditu beharrezkoak diren tramite guztiak: «azterketak, baimenak eta dagokion kasuan, baita dirulaguntza eskaerak ere». Elkarrekin, «zerbitzu osoa» eskaintzen diete bezeroei: «bakoitzaren beharretara hobekien egokitzen den proiektua diseinatu, instalazioa egin, martxan jarri eta paper kontu guztietaz arduratzen gara».

Hurbileko tratuan jarri nahi izan dute azpimarra: «Prozesu guztian, eta gerora ere, berme guztiekin erantzunen dien norbait izanen dute beti bertze aldean».

Domotika

Hogeita hamar urteko ibilbidea du enpresak eta hasieratik eskaini izan dituzten zerbitzu batzuk mantendu badituzte ere, bide berriak lantzeko apustua egin dute: «merkatua aldatu da eta ezinbertzean egokitu beharra dago garai berrietara». Instalazio elektrikoak eta erreformak egin izan dituzte hasieratik eta horretan ari zirela ikusi zuten, geroz eta gehiago zirela «etxebizitza adimendunen alde» egiten zutenak. Eskaria bazegoela ikusita, beharrezko ezagutzak ikasi eta domotika zerbitzua eskaintzea erabaki zuten: «Instala-

zio domotikoak egiten ditugu etxebizitzetan eta industrian». Teknologia baliatuta, egunerokoan behin eta berriz egiten ditugun ekintzak «automatizatzen dira». Horrela, Interneteko konexioa duen edozein gailutatik kontrola ditzakegu etxebizitzako hainbat elementu: Argiak, pertsianak, klimatizazioa, segurtasuna...». Domotikari esker, «erosotasuna, energia aurreztea, segurtasuna eta irisgarritasuna» lortzen dira.

Energia berriztagarriak

Domotika ez da teknologia berrien bueltan txertatu duten berrikuntza bakarra: «Ikusi dugu gizartean badela kontzientzia aldaketa bat. Geroz eta gehiago dira energia berriztagarrien aldeko apustua egiten dutenak: panel fotovoltaikoak eta ibilgailu elektrikoak dira horren adibide argia». Beraiek duela urte batzuk hasi ziren etxebizitzetan panel fotovoltaikoak jartzen, baina eskaera dirulaguntzen menpe dagoela ikusi dute: «2021 eta 2022 artean, panel fotovoltaiko aunitz jarri genituen. Dirulaguntzak tarteko, eskaria handia izan zen. Laguntzak bukatu ahala, zertxobait jaitsi dela ikusi dugu». Ibilgailu elektrikoen bueltan, ordea, bertzelakoa da joera: «Geroz eta ibilgailu elektriko gehiago daudela ikusi dugu eta kargatzeko puntuak jartzeko geroz eta eskaera gehiago izaten ditugu. Hilabetean bizpahiru jartzen ditugu». Beraiek ere badute beraiena enpresan: «Hori defendatzen dugu eta saltzen duguna, guretzat ere nahi dugu».


Ibilgailu elektrikoaren erabilera ez da izan enpresa bezala egin duten apustu bakarra. Fenie Energiako kideak ere badira: «Argindar eta gasa merkaturatzen duten energia agenteak gara eta horrek gure energia kontsumoan burujabe izateko aukera ematen digu». Adibidea aipatu dute: «teilatuan jarrita ditugun panel fotovoltaikoak gure ibilgailu elektrikoarekin bat egiten dute. Hala, sortzen den soberakina gure ibilgailua kargatzeko erabil dezakegu, sarera bota ordez». Energia agente gisa, bezeroei ere eskaintzen diete zerbitzua: «fakturak eta kontsumoa aztertzen ditugu eta konponbiderik onenak eskaintzen dizkiegu. Bezeroek ez dute ohiko teleoperadore batekin hitz egiten; bere ordez, guk egiten dugu aholkulari lana». Emaitzan badago aldea: «gertuko tratua eta neurrira egindako tarifak eskaintzen dizkiegu».

Kontzientzia aldaketa

Bezeroen aldetik ere, kontzientzia aldaketa egon dela uste dute: «Garai batean argindar faktura ailegatzen zenean, ordaindu eta ez zen gehiegi aztertzen. Orain ikusten dugu badagoela jakin-mina. Jendeak zertan gastatzen duen jakin nahi du».

Orain arte bezala, tximista bezain bizkor, begiak erne eta belarriak zorrotz izanen dituzte: «merkatuak zein joera hartuko duen ikusi eta eskaintza horretara bideratzeko. Bezeroen poltsikoari eta ingurumenari mesede eginen dioten irtenbideak eskaintzeko».

«Kasu bakoitza aztertu eta bezeroei irtenbide seguruak eta eraginkorrak eskaintzea da asmoa»





LEIMEN S.L
Era guztietako elektrizitate lanak

LEITZA 628 725 396 Argoitz
MENDILLORRI 628 725 397 david

ACIMUTH
Energia Eraginkortasuna eta Berriztagarriak
AUTOKONTSUMOA


DOMOTIKA

AEROTERMIA
Egues industrialdea,
kalea C/B 154-156
31486 EGUES, Nafarroa
www.acimuth.com
info@acimuth.com
948 351 496

«Trantsizio energetikoa erratzuarren eskuetan paratu nahi dugu»

AINHOA ALMANDOZ ELIZETXE IDUZKI ENERGIA KOMUNITATEKO PRESIDENTEA



Elkarteko lehendakaria da Almandoz. UTZITAKOA

R. Oskariz ERRATZU

«Energia komunitate bat partaidetza ireki eta borondatezkoan oinarritutako entitate juridiko bat da, non herritarrak, enpresa ttiki eta ertainak eta tokiko agintariak elkartzen diren, jatorri berriztagarriko energia modu kolektiboan ekoiztu, kontsumitu, biltegiratu, partekatu eta kudeatzeko». Erratzun sortu berri duten Iduzki Energia Komunitateko lehendakaria da Ainhoa Almandoz, eta herriari ekarriko dizkion abantailak argi ditu; «komunitatea sortzeko prozesuan hiru alorretan abantailak izaten ahal ditugula ikusi dugu: ingurumenean, gizartean eta ekonomian».

Alde batetik ingurumenean, «inguruko baliabideak aprobetxatuz, CO2 isurketa murriztu eta energia garbia eta jasangarria sortuko dugulakoz». Bertzetik gizartean, «energia pobrezia murriztu, herritarrak babestu eta gure arteko kohesioa eta lankidetza sendotuko duelakoz». Azkenik, ekonomian, «dirulaguntzak lortzeko abantailak eta fakturen murrizketa izanen ditugu, eta tokiko ekonomia bulkatuko du».

Ideia aspalditik datorrela azaldu du; «urte batzuk dira herritar talde bat horren inguruan pentsatzen ari zela. Udalak laguntza emanen zuela jakinik eta Aniz, Lekaroz eta Amaiurko kasuen berriz izanik, taldea berriz hasi zen biltzen. Azken bulkaldia udaleko ordezkaria den Lorea Lizarreta herritarrak eman zigun, eta hortik hasi ginen komunitatea sortzen». Elkartearen helburua argi dute: «trantsizio energetikoa erratzuarren eskuetan paratzea. Erratzuko herritarrek, negozio ttikiek eta tokiko erakundeek bat eginen duten elkartea da, energia berriztagarria modu kolektiboan sortzeko, kudeatzeko eta kontsumitzeko». Horrekin batera, «bazkideei eta herriari onura sozialak, ingurumenekoak eta ekonomikoak ekartzea».

Horretarako lana egin beharra da, eta orain arteko prozesua «luzea baina eramangarria» izaten ari dela aitortu du. «Talde motorrak hainbat bilera izan ditu Artelan, Kisar eta Arankoako zenbait aditurekin. Bilera horietan egin beharreko bide orria markatu digute orain arte, bai arlo juridikoan eta baita teknikoan ere». Batez ere adituen erranetan oinarritu badira ere, «inguruko bertze komunitateei, Lekarozko Zimizteri, Anizko Askaini eta Amaiurko Urkilori, kontsultatu dizkiegu izan ditugun zalantzak edo galderak». Hemendik aitzinera, «gure lana izanen da komunitate honi segida ematea, baina bidea egiteko bertze komunitateei laguntza eskatzea aurreikusten dugu, beraiek jada bide hori egina baitute».

Komunitatearen izen emateari dagokionez, «arras arrakastatsua» izan dela dio, «gaur egun 103 kide gaude, horien artean % 60 gizonezkoak eta % 40 emakumezkoak». Horrez gain, «talde motorrean zortzi kide gaude: Angel Mari Erregerena Mortalena, Xabier Ballarena Iturburua, Antton Ariztia Elizetxe, Koldo Uribe-Etxebarria Almandoz, Jabi Irigoien Urrutia, Joxe Itoitz Ibarra, Amaia Intsausti Azaldegi eta ni».

Aitzinerat begira

Momentuan, «gure lehenbiziko proiektua martxan jartzeko bidea egiten hasiak gara». Zehazki «proiektu fotovoltaiko bat» abiatu nahi dute, «non kideek bertan parte hartzeko aukera izanen duten, berain fakturak guttituz eta energia garbiagoa eta jasangarriagoa hartuz».

Epe luzera, berriz, «hainbat ideia ditugu burutan: egur loteak egitea, energia munduan heztea eta formatzea, mugikortasun jasangarria eta efizentzia energetikoa sustatzea... hala ere, orain ez gara epe luzerako proiektuetan pentsatzen ari, hastear gauden proiektuak zentratuak baikaude».

Azkenik, «talde motorraren partetik eskerrak eman nahi dizkiegu herritarrei bazkidetza egiteko momentuan eman duten erantzunagatik, horrek aitzinera segitzeko indarra ematen baitigu».



Talde motorra osatzen duten zortzi kideak eta Lorea Lizarreta udaleko zinegotzia. UTZITAKOA









«Kasu bakoitza aztertu eta sistema eraginkorrena aurkitzea da helburua»

IKER TRANTXE LAURNAGA KLIMARGI

Eneritz Iraola OIEREGI

Klima eta argia hitzak elkartuta sortu zuen Iker Trantxe Laurnagak bere enpresaren izena: Klimargi. Eta izena izanari zor, «klimatizazio eta elektrizitate lanak» egiten ditu. Hasieratik argitu du zein den eskaintzen duen zerbitzua: «Instalazio berri bat hutsetik egin beharrean, lehendik dauden instalazioetan hobekuntzak edo mantentze lanak egiten ditut. Sistema ahalik eta eraginkorrena jartzea da helburua». Horregatik, lan teknikoari bezainbertzeko garrantzia ematen dio aholkularitza lanari: «Kasu bakoitza aztertu eta sistema ahalik eta eraginkorrena aurkitzea da helburua».

Horretarako, azterketa sakona egiten du: «Bezero bakoitzaren kontsumoa zein den, egin beharreko inbertsioa zenbatekoa den... neurtu eta irtenbideak eskaintzen dizkiet». Argi dio, «hemen ez dago beltz edo zuririk. Batendako irtenbide onena dena, bertzearendako ez da balekoa».

Duela urte eta erdi jarri zuen Klimargi enpresa martxan, baina lehendik ere ezagutzen ditu lanbidearen nondik norakoak: «Ttikitatik ezagutzen dut mundu hau. Aita honetan aritzen zen eta berari laguntzen aritzen nintzen udan. Hamabortz urtez aritu nintzen sektoreko bi enpresatan lanean, neure kabuz jartzea erabaki nuen arte». Hasi denetik, lanik ez zaio falta izan. Klima aldaketaren ondorioz, erregai fosilen erabilera murrizteko hainbat neurri hartu dituzte agintariek eta dirulaguntzak tarteko, «gasoliozko galdarak aerotermiagatik» aldatzeko eskaera aunitz izan ditu: «gasolioa eta gasa kendu eta sistema aerotermiko eta geotermikoak bultzatu nahi dituzte».

Gasatik aerotermiara aldatzeko, ez dela obra handiegirik behar izaten azaldu du: «Instalakuntzan egiten dira aldaketa batzuk, baina ez dituzu paretak hautsi edo igeltsero lan haundirik egin behar. Lehenagoko galdara konektatuta zegoen zirkuitu edo tuboekin egiten da lan guztia». Egin beharreko aldaketak, instalazio elektrikoarekin izaten dute lotura: «Etxeak zaharrak badira, aunitzetan ez dira prest egoten kontsumo elektriko horretarako eta hor egin behar izaten dira hobekuntzak. Kuadro elektrikoa hobetu, linearen bat aldatu... ».


Duela urte eta erdi jarri zuen martxan Klimargi.

Inbertsioa

Inbertsiorik handiena, aerotermia ekipoa eta materiala erostea izaten da: «lortu nahi den emaitzaren arabera egin beharreko instalazioak eta ekipoak aldatzen dira». Horregatik dio, zaila dela diru kopuru bat zehaztea, «kasu bakoitza desberdina da. Instalazioaren tamaina, metro karratuak, erabilera, berokuntza eta ur beroaz gain, hotza ere hortik kudeatu behar ote den, erradiadore edo zoru erradiatzaileari lotua egonen den... gauza aunitz hartu behar dira kontuan eta ezinbertzekoa da dena aztertzea aurrekontu zehatz bat prestatzeko».

Batzuetan, aerotermia bertze edozein sistema baino errentagarriagoa izaten da: «Gure eskualdean harrizko etxe handiak daude, 200 metroko solairuak.

Hor izaten zuten normalki gasolioa, 1.000 litroko depositua eta egurra... hor aerotermiarekin pila bat aurrezten duzu». Zehaztu du, aerotermian behar den energia ez dela ehuneko ehun elektrikoa: «Behar du elektrizitatea pizteko, baina azkenean lortzen du energia haizetik. Gastatzen duzu kilowatt bat, eta makinak ematen dizkizu lau edo lau eta erdi».

Aholkularitza

Badira, ordea, egindako inbertsioari nekez buelta emanen dioten kasuak. Horregatik, egoera bakoitza ongi aztertzea ezinbertzekoa iruditzen zaio: «Ongi aztertzen dut aerotermia non jarriko dudan. Batzuetan bezero batzuk etortzen zaizkizu erranez aerotermia jarri nahi dutela. Baina geldi! 'zer kontsumo duzu', 'zer behar duzue?', 'inbertsioa noiz amortizatuko duzue?'... dena neurtu behar da».

Aunitzetan, aldaketa ttikiago batekin nabaritzen da hobekuntza: «galdara aldatu eta kondentsaziozko bat jartzea aukera hagitz ona izaten da. Alternatiba merkeagoa eta hagitz errentagarria. Gainera, galdara berriak etorkizunean gasetik hidrogenorako aldaketa egitea eskatzen dutenerako prestatuak heldu dira».

Aholkularitza hori eskaintzen du Iker Trantxek: «Etxe batera joan eta ikusten duzunean sistema zahar bat duela, gastu handia, mantentze lan handia... polita da irtenbide bat emateko gai izatea».

Bezeroek hainbat alternatiba dituzte eskura eta mantentze lanei ere eman die garrantzia: «kondentsaziozko galdara bat jartzea, tenperatura doitzeko giltza termostatikoak jartzea erradiadoreetan, tuboa ongi isolatzea... neurri txiki horiekin aldea nabarmena da».

Eraldatzen

Urte gutxian aldaketa aunitz izan direla aipatu du: «Teknologiarekin lotura duten gauzak etengabe aldatzen dira. Sistema berriak ateratzen dituzte eta guk prest egon behar dugu, hortara moldatzeko eta ikasteko. Horrela funtzionatzen du merkatuak». Hala ere, bere ustez, aldaketa handiena «klima aldaketaren ondorioz» etorri da. Udan galtza bete lan izan du haize egokitua jartzen: «Behar berriak sortzen ari dira klimaren aldaketaren ondorioz». Eta hortan ere gauzak egiteko eta ikusteko modua aldatu dela azpimarratu du: «Duela urte batzuk jartzen ziren aparatuak eta gaur egungoek ez dute zerikusirik. Garai bateko sistemek erabiltzen zuten gasa hagitz kutsakorra zen, ozono geruzan kalte handia eragiten zuen... Horretan izan da kristoren aldaketa, Bertze gas mota bat erabiltzen dute orain, gutxiago kutsatzen duena».

Ez da izan eskariak goranzko bidea egin duen sektore bakarra: «Kotxeen kargagailu elektrikoak ere geroz eta gehiago jartzen ditut. Erosi dut kotxe elektrikoa eta behar dut non entxufatu. Horixe izaten da orain jende aunitzen eskea».

Eta aldaketaren olatu horretara igota, datorrenari aurre egiteko prest egotea, horixe da Iker Trantxeren nahia: «lanean segi eta bezeroei eta ingurugiroari laguntzea posible bada, aunitzez ere hobeki».

«Sistema baten alde egin edo ez erabakitzeko, kasu bakoitza aztertu eta inbertsioa, kontsumoa... neurtu behar da»











Ibilgailu elektrikoak: mugikortasun jasangarriaren etorkizuna

Auto elektrikoaren inguruan zalantza ugari sortzen dira gaur egun; horietako batzuk erantzunen ditugu hurrengo lerroetan

TTIPI-TTAPA

Jasangarritasunari eta ingurumenari gero eta garrantzia gehiago ematen dion jendarte honetan, erregai fosilen alternatiba onak dira auto elektrikoa eta hibridoa. Azken urteetan aitzinamendu handiak egin dituzte ibilgailu hauen teknologian, baina bertze ibilgailuekin gertatzen den bezala, bere alde onak eta txarrak dituzte.

Abantailei dagokienez, gehien nabarmentzen dena da ingurumenarekiko errespetua, auto elektrikoak ez baitu gas kutsakorrik isurtzen. Gainera, gasolinazko autoak baino soinu guttiago ere egiten du, kutsadura akustikoa murriztuz. Azkenik, aurrezpen handia ekartzen ahal du: alde batetik kontsumo gastua ttikiagoa da eta zerga guttiago ordaindu behar da; bertzetik motor sinpleagoa du, konpontzeko errazagoa dena eta mantentzeko ere merkagoa; eta eragozpen guttiago izaten dituenez, aseguruaren poliza ere merkagoa izaten du.

Desabantailen artean autonomia falta du nabarmenena; auto elektrikoaren bateriak nahiko mugatuak izaten dira, ibilgailuaren arabera 150-450 kilometro ibiltzen gehienez. Gainera, kargatzeko puntu bereziak behar izaten dira eta zenbait ordu behar izaten ditu osorik kargatzeko, potentziaren arabera. Eta noski, autoak kutsatzen ez badu ere, kargatzeko behar duen energia elektrikoaren ekoizpena kutsakorra da, beraz, oraingoz ez dira % 100ean ekologikoak.

Auto elektrikoaren bateria **kargatzeko denbora** kargagunearen araberakoa izanen da. Adibidez, 3,7 kWko kargagune batean (autoa kargatzeko behar den guttieneko potentzia) 8 ordu beharko ditu, eta 7,4 kWko puntu batean 4 ordu. Noski, potentzia handiko kargaguneek kargatze denbora azkarragoak eskaintzen dituzte: 11 kWrekin 3 ordutan, 22 kWrekin ordubetean... Karga azkarreko puntuetan (50kW) bateriaren % 80 ordu erdiz kargatu daiteke. Azkenik, karga ultra azkarreko puntuetan (150 kW) 5-10 minutuz kargatu daiteke ibilgailua, horretarako prestatuak dauden autoetan.

Kargagailua etxean

Auto elektriko bat erostea erabakitzen baduzu, etxean kargagailua instalatzea konponbide erraza eta erosoa izan daiteke bateria kargatzen aritu behar izateari. Kargagailua paratzeko zenbait ezagutza tekniko behar dira eta legedia bete behar du, hortaz, hobe da profesionalengana jotzea. Hementxe dituzue segitu beharreko pausoak:

1. Hasierako ebaluazioa. Etxeko instalazio elektrikoa aztertu behar da, kontratatutako argindar potentzia eta koadro elektrikoaren gaitasuna egiaztatu eta kargagailua paratzeko lekurik aproposena erabaki. Kualifikatutako profesional batek lagundu zaitzake azterketa egiten.

2. Beharrezko tramiteak egin. Garaje komunitarioetan beharrezkoa

→



Auto elektrikoaren kargagunea. MAGNIFIC

AISLAnat
AISLANTE DE CELULOSA

ISOLATU ZURE ETXEA ETA AURREZTU

Isolamendu termikoa eta akustikoa

% 50 aurreztu	Egun batean	Obrarik gabe



BEGIRATU ZEIN ERRAZA DEN JARTZEA

AislaNat, **Nafarroan ekoiztutako** zelulosazko isolamendu bakarra.

Isolatu zure etxea zelulosarekin,
egun batean,
obrarik gabe,
gutxi gastatuta
eta **produktu ekologiko** batekin.

www. aislantesaislanat.es
948 33 00 15 - 627 41 22 69





da komunitateari jakinaraztea eta txosten teknikoa aurkeztea. Udalean, berriz, Erantzukizunpeko Adierazpena aurkeztu behar da, instalatzaileak sinatutako memoria teknikoarekin, eta hirigintza tasak eta ICIO zerga (Eraikuntza, Instalazio eta Obren gainekoa) ordaindu. Nafarroako udal aunitzek % 90erainoko bonifikazioak eskaintzen dituzte zergan, mugikortasun jasangarria bultzatzeko. Merezi du zure udalean deskontu hori duten galdetzea.

3. Kargagailu egokia aukeratu. Potentziaren eta abiaduraren arabera, kargagailu mota aunitz daude eskuragarri merkatuan. Zure ibilgailuarekin bateragarria den modeloa aukeratu.

4. Karga puntuaren instalazioa. Instalazioarako teknikari espezializatu batengana jotzea da hoberena. Prozesu horretan kargagailua koadro elektrikora konektatu behar da, beharrezko babesak instalatu (diferentzialak eta magneto termikoak, adibidez) eta sistema konfiguratu karga eraginkorra bermatzeko.

Eta hemen zer?

Gutti badira ere, auto elektrikoak presentzia hartzen hasi dira eskualdean: 2024an 80 ibilgailu kontatu zituzten.

Eskualdean **erabilera publikorako birkargatze puntuak** ditugu hainbat herritan: **Arizkunen** (Ordokiko gasolindegian), **Beran** (Zalainen, Kultur Etxean, Ibardinen eta N-121-A errepideko gasolindegian), **Elgorriagan** (bainuetxeko aparkalekuan), **Elizondon** (plazan), **Ezkurran** (pilotaleku parean), **Lesakan** (Koskontako bidean), **Leitzan** (Landa industriagunean), **Sunbillan** (kanpineko aparkalekuan) eta **Urdazubin** (Dantxarinean).

Berako Udalaren ekimena

Auto elektrikoa herritarren eskura paratzeko helburuarekin, Berako Udalak eta Karkarcar kooperatibak auto elektrikoa hartzeko zerbitzua abiatu dute aurten. Udalak azaldu duenez, «ibilgailu pribatuan egindako joan-etorrien kopurua murriztea» da egitasmoaren helburua, «mugikortasun komunitarioko alternatiba bat eskainiz, erabiltzaileen beharrizan zehatzetara egokitua».

Martxoan abiatu zuten zerbitzua eta Beran erroldatuak daudenei dago zuzendua. Autoa erabiltzeko Karkarcar kooperatibako bazkide egin beharko da eta 60 euroko sarrera kuota ordaindu. Bazkide izanda, aplikazioaren bitartez erreserbatu daiteke autoa bere erabilerarako. Alokairuaren prezioa erabilera orduen araberakoa da: ordu bateko alokairuak 4 euro balio du; 5-10 ordu arteko erabilerak 20; 10-24 ordu artean ibiltzeak 35 eta 24-60 ordu artean ibiltzeak 60. Eta 60 ordutik goiti ibiltzeko erreserbatu nahi bada, 60 euroko prezioari euro bat gehitu beharko zaio ordu bakoitzeko. Kultur Etxe ondoko kargagunean kargatu daiteke autoa.

Udalaren erranetan, «herritarren zati bat udalerriko mugikortasun iraunkorraren kudeaketarekin eta ingurumenarekiko errespetuarekin konprometituta dagoela nabarmena da. Beraz, jende hau animatzen dugu urrats bat aitzinera egin eta zerbitzu hau komunitate osoaren ongizatearen mesedetan erabiltzeko».



Jorge Arias (Karkarcar kooperatiba) eta Angel Pombar (Berako Udala) autoaren aurkezpenean.

BIOMASA
NAVARRA · NAFARROA



GURE INDUSTRIARAKO ENERGIA

Baliabide errentagarria, berriztagarria, jasangarria, bideragarria eta hurbila.

Eskatu dirulaguntzei eta kenkariei buruzko informazioa.

Egin biomasaren aldeko apustua!

www.biomasanavarra.com

Gobierno de Navarra · Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030

LAN EDER
Manterola S.L.
Tekniko instalatzailea 629 449 602

ITURGINTZA
GASA
BEROGAILUAK
AIRE GIROTUA
KOMUNEKO & SUKALDEKO OSAGARRIAK

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
Aerotermia, Geotermia,
Egur eta Pellet galdarak


Zerbitzu
& Gremioen koordinazioa

RITE ziurtagiria CIT 1878

SUARIMA

Negua etorri aitzinetik...

TXIMINIA ETA
KEDAR-GARBITZAILEA



· KALITATEKO ERREBISIOA ETA GARBITZEA
· KAMERAREKIN BISTARATZEA
· ARAZOAK KONPONTZEKO AHOLKULARITZA
· GARBIKETA ETA BIGARREN BISTARATZEA

ESKERRIK ASKO KONFIDANTZARENGATIK!

T. 686 776 686
www.suarima.com
amaiur1212@gmail.com

Autokontsumorako instalazio gehienak 2022-2023an egin ziren

Taulan ageri dira herriz herri eta urtez urte energia elektrikoaren autokontsumorako zenbat instalazio erregistratu diren Nafarroako Autokontsumoaren Erregistroan. 2026ko irailaren 15era bitarte 425 instalazio ageri dira, gehienak, bi herenak, Bortzirietan eta Baztanen (164 eta 137 instalazio, hurrenez hurren). 2022-2023 urteetan eginak dira gehienak, Nafarroako Gobernuak inbertsio hauek egiteagatik zergetan dituzten desgrabazioaz gain, ekipamenduak erosteko ere laguntza zuzenak eman zituen urteetan. Hala ere, autokontsumorako panel fotovoltaikoak jartzea zinez inbertsio errentagarria da, 5 eta 8 urte arteko epean amortizatzen ahal baita

AUTOKONTSUMO INSTALAZIOEN ERREGISTROA | 2019-2026

Nafarroako Gobernuaren eguneraketa: 2026/09/15

Herria	Instalatutako potentzia osotara	Instalazio kopuruak							
		Osotara 2019 2026	2026	2025	2024	2023	2022	2021	2020 2019
Almandoz	10,60 kW	3			1		2		
Amaiur	111,12 kW	4		1		2		1	
Aniz	75,00 kW	3			2			1	
Arano	3,60 kW	1			1				
Arantza	198,10 kW	24		3	1	5	9	4	2
Areso	830,80 kW	8		1		3	3	1	
Arizkun	112,60 kW	14	2	2	1	4	3	2	
Arraioz	28,92 kW	5			2	2	1		
Azpilkueta	92,60 kW	7		2	2	3			
Beintza-Lab.	3,00 kW	1					1		
Bera	1.143,59 kW	63	4	4	4	23	22	5	1
Berroeta	80,00 kW	5		1		2	1	1	
Donamaria	71,08 kW	13		4		8	1		
Doneztebe	209,00 kW	143		1	2	8	2	1	
Elbete	35,00 kW	5	3		1	1			
Elgorriaga	112,00 kW	3	1				1	1	
Elizondo	430,75 kW	42		3	4	19	10	4	2
Eratsun	0 kW	0							
Erratzu	95,40 kW	16			1	5	7		3
Etxalar	123,43 kW	14	2	1	1	7	3		
Ezkurra	0 kW	0							
Gartzain	39,00 kW	4		1	1	1	1		
Goizueta	73,00 kW	4		2		1			1
Igantzi	209,20 kW	19	1		5	3	10		
Irurita	28,00 kW	6		2	1	1	2		
Ituren	32,60 kW	5		2		2	1		
Legasa	100,00 kW	1				1			
Leitza	333,12 kW	25	2	3	4	4	8	3	1
Lekaroz	62,36 kW	7			1	3	3		
Lesaka	916,15 kW	44	2	5	9	12	9	6	1
Narbarte	90,00 kW	7		3	1	2	1		
Oieregi	30,00 kW	1		1					
Oiz	45,00 kW	5			1	1	2		1
Oronoz	121,46 kW	10				3	5	1	1
Saldias	6,00 kW	1			1				
Sunbilla	109,54 kW	19	2	3	6	3	4		1
Udazubi	100,00 kW	1	1						
Urroz	100,24 kW	8	1	1	1	3	1	1	
Ziga	32,20 kW	6		1		2	2	1	
Zubieta	14,00 kW	2					1	1	
Zugarramurdi	45,20 kW	5		1	1	2	1		
Denera	6.253,66	425	21	28	55	136	117	34	14


Mundua,
bagoaz.
BANOOOA GO!
Irentsi mundua LABORAL Kutxaren
GO! txartelarekin.
EZ du komisiorik Estatu
osoko 10.000 kutxazain
baino gehiagotan*.
EZ du komisiorik,
LABORAL Kutxaren aldetik,
atzerriko kutxazainetan**.
EZ du
komisiorik dibisa
aldatzeagatik.
EZ DU KOMISIORIK, EZ HEMEN*, EZ ATZERRIAN**
* Zure probintzian dirua komisiorik gabe ateratzeko, LABORAL Kutxaren kutxazain-sarea duzu: zure probintziatik kanpo, berriz, entitate hauetako kutxazainak erabil ditzakezu: Caja Rural, Cajamar, Bankinter, Caja de Ingenieros, Cashzone, Deutsche Bank, Arquia Banca, Euro Automatic Cash eta Euronet WorldWide.
** LABORAL Kutxak ez du komisiorik kobratuko atzerriko kutxazainetan. Kutxazainaren jabeak komisio bat ezar lezake kutxazaina erabiltzeagatik (LABORAL Kutxak ez).
Abantaila honetaz baliatzeko, LABORAL Kutxaren bezero izan behar duzu, 14 eta 29 urte bitartekoa (biak barne). Horrez gain, 18 urtetik aurrera nahitaezkoa izango da entitate honetan Bizum aktibatuta izatea.
LABORAL
kutxa

matxako
KALEFAKZIOA · GASA · ITURGINTZA
Iturgintza lanak
Berokuntza mota guztiak
Galdaren instalazioak
"Baxi" markan eskaintza berezia. Eskatu aurrekontua
BAXI
LA NUEVA CLIMATIZACIÓN
609 808 756 • BERA

JP INSTALAZIOAK
ITURGINTZA ETA ELEKTRIZITATEA
INSTALATZAILE BAIMENDUA
INSTALAZIOEN FINANTZAKETA
679 35 49 47
jpinstalazioak@gmail.com
Sunbilla

Eguzki panelen instalazioa: kostuak, aurrezpenak eta amortizazio epeak

Gaur egun erregai fosilen prezioa eta argindar konpainien tarifak inoiz baino garestiagoak direnean, etxean eguzki panelak instalatzea, duen itzulkinagatik, inbertsio arrunt ona da: 5-8 urte arteko epean ordainketa amortizatua duzu eta, ekipamendu berberarekin, bi hamarkada baino gehiagotan elektrizitatea doan ekoizteko autonomia osoa izanen duzu.



Eguzki panelen instalazio bat. UTZITAKOA

Autokontsumorako instalazio fotovoltaiko batek, etxeko teilatuan paratuko panelak etxeko koadro elektrikora konektatzen ditu. Panelek egun argiz sortzen duten energiak zuzenean elikatzen ditu etxeko kontsumoak —hozkailua, etxetresna elektrikoak, klimatizazioa, auto elektrikoa kargatzea—, eta panelek nahikoa ematen ez dutenean soilik hartzen da argindarra saretik.

Eta zer egin sortzen den momentu berean kontsumitzen ez duzun elektrizitatearekin? Hiru aukera dituzu:

1. Bateriak: momentuan kontsumitzen ez den energia baterietan gordetzen da, gauez edo behar denean erabiltzeko. Bateriak gero eta errentagarriagoak dira, eta soberakinei probetxurik onena ateratzen zaie horrela.

2. Soberakinen konpentsazioa: zure argindar hornitzaileak fakturatik deskontatuko dizu sarera isuritako energiaren balioa hilabeteko fakturan. Hauxe da aukerarik ohikoena etxebizitza batean.

3. Soberakinak argindar sarera bidali gabe: kasu jakin eta zehatz batzuetan soilik da egokia.

Argiaren fakturan, zenbateko aurrezpena izan dezakegu urte batean?

Zuzeneko aurrezpenak ohiko etxebizitza baten urteko kontsumo elektrikoaren % 50 eta % 70 bitartean estaltzen ahal du. 2026an elektrizitateak duen bana bertzeko prezioa kontuan hartuta, horrek erran nahi du:

Instalazio ttiki baten kasuan (3 kWp): 400 eurotik 550 eurora bitartean aurrezkia izan daitekeela urteko fakturan.

Instalazio estandar baten kasuan (4-5 kWp): 600 eurotik 900 eurora bitartean aurreztu ahal litzateke urteko fakturan.

Horiek horrela, eta 2026ko prezioak kontuan hartuta, inbertsioa amortizatzeko epea 4-8 urte artekoa litzateke, betiere soberakinen konpentsazioaren arabera eta desgrabazio fiskala kontuan hartuta.

Instalazioaren prezioa aldatzen da segun eta instalatutako potentziaren (kWp) eta bateriarekin edo bateriarik gabe den. Hauek dira 2026an dauden prezio orientagarriak, gastu denak sartuta.

Etxe tipoa	Potentzia	Bateriarik gabe	Bateriarekin
Pisua / kontsumo ttikia	2-3 kWp	3.000-4.500 € €	6.000-8.500 € €
Etxebizitza ertaina	3-5 kWp	4.500-7.000 € €	8.000-12.000 € €
Etxe handia, auto elektrikoarekin	5-8 kWp	7.000-11.000 € €	12.000-18.000 € €



Eguzki panelak eta aerotermia konbinazio bikaina dira argiaren faktura murrizteko.

Aholku garrantzitsua

Eguzki panelek eguneko argiarekin sortzen dute energia. Hortaz, komenigarria da aurrezpena ahalik eta handiena izateko etxeko kontsumorik gehiena (labea, arropa eta ontzi garbigailuak edo autoa kargatzea) eguerdira mugitzea, eguzki panelak bete-betean ari direnean energia sortzen.

Aurreikusitako ekoizpena (kWp)

Nafarroako iparraldean, instalatutako 1 kWp bakoitzak 1.050-1.200 kWh ekoizten ditu urtean, hegoaldean baino eguzki erradiazio ttikiagoa delako. Halere, egia da urte batetik bertzera eguzki orduak alda daitezkeela, baina, klimaren bilakaera ikusita, joerak ez du ematen orduak murriztuko direnik.

3 kWp-eko potentzia instalaturako (6-7 eguzki panel), urteko ekoizpena 3.300 - 3.600 kWh ingurukoa da.

5 kWp-eko potentziarako (10-12 panel), urteko produkzioa 5.250 - 6.000 kWh ingurukoa da.

Nafarroako Ogasunak %15 eta %30 arteko desgrabazio fiskala errenta aitorpenean

Autokontsumo elektrikoko instalazioetan egindako inbertsioengatik, pertsona partikularrek %15 eta %30 arteko kenkaria aplika dezakete errentaren aitorpenean. Hasteko:

% 15eko oinarrizko desgrabazioa: energia berriztagarriak instalatzeagatik.

+% 10 gehiago autokontsumo elektrikora bideratua bada.

+%10 gehiago bateria ere instalatuz gero.

+%5 gehiago autokontsumo partekatua edo bizilagunen komunitate bat izanez gero.

Saihestu beharreko akatsak

• **Instalazioa gaindimentsionatzea:** zure kontsumoak eskatzen duen panel kopurua baino gehiago jartzeak inbertsioaren amortizazioa luzatuko eginen dizu, aurrezpen proportzionalik ekarri gabe.

• **Kasu eman panelak dituzun teilatuan itzalak sortzen badira:** tximinia baten edo inguruko zuhaitz baten itzalek eguzki panelen efizientzia nabarmen kaltetu dezakete.

• **Auto elektrikoa ahaztea instalazioa diseinatzerakoan:** ibilgailu entxufagarri bat erostea aurreikusi baldin baduzu, dimentsionatu panel eta bateria kopurua kargagailuan pentsatuz.

• **Materialak prezioagatik bakarrik aukeratzea:** hartu kontuan 25 urterako inbertsio bat egiten ari zarela.

Azken ondorioa: autokontsumorako instalazio fotovoltaiko batean inbertitzea, zentzuz jokatzea da

Gaur egun erregai fosilen prezioa eta argindar enpresen tarifak inoiz baino garestiagoak direnean, familia bakarreko etxebizitza batean autokontsumorako instalazio fotovoltaiko bat jartzea ez da kapritxo ekologiko bat. Eta are gutiago argiaren fakturan datorren aurrezpena berehala ikusten denean, etxeak balioa irabazten duenean eta ekipamendu berberekin hamarkadetan energia garbiarekin hornikuntza segurtatua dugunean.

Hori bai, eskatu aholkua sektoreko profesionalei. Izan ere, instalazio errentagarri baten eta erdipurdiko instalazio baten arteko aldea instalazioaren diseinuan, dimentsionamenduan eta legeztatzeko tramiteak egoki betetzean dago.





ARKUPEAK



Irailean Andaluziako Herri Zuriak bisitatu dituzte. ARKUPEAK

BIDAIA

Arkupeak Elkarteko 78 bazkide Benidormera joanen dira datozen egunetan

Urtea bukatu aitzinetik, Bazkideen Eguna, Lizarra eta Lodosara irteera eta Tenerifera bidaia ere antolatu dituzte

Irailean Andaluziako Herri Zuriak ezagutzeko aukera izan dute Arkupeak Elkarteko bazkideek. Urtero bezala, arrakasta handia izan du bidaiak eta hainbat txanda eskaini behar izan dituzte. Irailaren 8tik 15era joan zen lehenbiziko taldea, 63 bazkide. Tenperatura batzuetan nahi baino beroagoa izan bazen ere, primeran pasatzeko aukera izan zuten. Sevillatik hasita, herriz herri itzuli ederra osatu zuten. Handik bueltan, bidaiaren laburpena ere egin dute: «Vejer de la Frontera, mendi aldean, herri koxkorra, aldapatsua eta historiaz betea. Conil, itsas bazterrean eta xarma berezia duena. Nork ez du entzun Grazalema? Aurten herri hau euriteek egin zuten ezagun eta Artikutzaren bertsio andaluziarra dela erran daiteke egiten duen plubiometriagatik. Setenil, benetan ikusgarria etxeen kokapenagatik, eta horrela hainbat eta hainbat leku... Azkenik Cadiz, handia, hondartza zoragarriarekin eta denbora pasarako leku ugarirekin». Lehenbiziko taldeak «gozatu ederra» hartu zuen eta bigarren taldeari galdetu beharko zaio, beraiek ere hala pasa ote duten.

Hainbat hitzordu

Urteko azken hiruhilekoan badira hutsik egiten ez duten hitzorduak eta irteerak. Batzuk, maleta desegin eta aste gutxiren buruan berriz ere prest izanen dute: urriaren 4tik 14ra 78 bazkide joanen dira Benidormera. Urriaren 22an, Bazkideen Eguna ospatuko dute eta, bertze urte batez, kuadrilla ederra bilduko da Gorraizen eginen duten bazkarian. Azaroaren 5ean Lizarrara eta Lodosara eginen dute irteera. Lodosako Peron kontserba fabrika bisitatu, Lizarrako merkatuan bueltaxka bat eman eta Larrion jatetxean bazkalduko dute. Urteko azkeneko bidaia, Tenerifera izanen da, Azaroaren 6tik 13ra.

SANTAKRUZAK

Egunpasa borobila Lezon



ARKUPEAK

Irailaren 14an, elkarteko 110 bazkide Lezora joan ziren Gurutze Santuaren Eguna ospatzera. Goizean, meza entzuteko aukera izan zuten. Bazkalaurrean ez zuten aspertzeko tarterik izan, herri kirol saioa ikusiz herriko plazan. Handik, Zubiondo jatetxera joan ziren eta ederki bazkaldu ondotik, arratsaldea ederki aprobetxatu zuten Beñaten akordeoiaren erritmora dantzan.

IKASTAROAK

Eskaerari erantzunez, ikastaro gehiago eskainiko dituzte

Tere Arretxea eta Kontxi Agerre

Garai berrietara egokitu eta adimen artifiziala zer den ikasteko aukera eskaini zitzaien elkarteko kideei. Badirudi gaiak interesa piztu duela, lehenbiziko taldeak urriaren 2an izanen du ikastaroko azken eguna eta bigarren taldea osatu dute. Urriaren 5ean, 6an, 7an eta 8an eskainiko dute ikastaroa, elkarteko egoitzan, 09:30etik 12:00etara.

Urriaren 1ean hasiko da altzariak zaharberritzeko ikastaroa, Doneztebeko Udalak utzitako egoitzan. Luixa Mugikak emanen du ikastaroa, ostegunetan, 10:00etatik 12:00etara.

DELEGATUAK

Donezteben, Lesakan eta Elizondon ordezkariak behar dituzte

Arkupeak Elkartea eremu zabalean ari da lanean eta hori posible izateko, ezinbestekoa da herrietako ordezkariek egiten duten lana. Elkartetik jakinarazi dute Donezteben, Lesakan eta Elizondon ordezkariak behar dituztela. Anima zaitezte.

LOTERIA

Arkupeak Elkarteko Eguberrietako loteria salgai jarri dute

Eguberrietako loteria txartelak salgai jarri ditu Arkupeak Elkarteak. Erosi nahi dituztenek Doneztebeko bulegora joan beharko dute edo herrietako delegatuei egin beharko diete eskaera. Bortz euro jokatuta, bat elkartearentzat izanen da.



Irailaren 11ko goizaldean agertu ziren pintadak Leitzan.



Torrea atarian egin zuten elkarretaratzea irailaren 12an. E.IRAOLA

Jendetza atera da kalera Leitzan agertu diren pintada faxistak salatu eta gaitzestera

«Faxismoaren gorakadari matxinada antifaxistarekin» erantzuteko deia egin dute



Leitzako 32 eragilek bat egin zuten adierazpenarekin. E. IRAOLA

TTIPI-TTAPA LEITZA

Leitzako hainbat espazio publikotan eta eraikinetan pintada faxistak, xenofoboak eta arrazistak agertu ziren irailaren 11ko goizaldean. Erasoak salatzeko, *Ez ziren pasa, ez dira pasako* lelopean, elkarretaratzea egin zuten irailaren 12an Torrea tabernako atarian. «Faxismoaren gorakadari matxinada antifaxistarekin» erantzunen dietela adierazi zuten bertan. Mehatxu faxistak eta ikur naziak biharamunerako ezabatu zituzten, baina arrastoa utzi dute herrian. Horren erakusle izan zen elkarretaratzean bildutako jendetza. «Hemen gaude, elkartuta. Gure ezberdintasunekin, baina batuta. Zuek gauez eginiko pintadei egun argiz, herri gisa erantzuten» adierazi zuen Katixa Astibiak Leitzako eragileen izenean.

Leitzako 32 eragilek bat egin zuten adierazpenarekin: Lañaidek, Atekabeltz Gazte Asanbladak, Atekabeltz Herriguneak, ALKE kultur taldeak, Ernaik, Eusko Alkartasunak, Leitzako EH Bilduk, ELAk, LABek, Jardunek, Kaxkabeltza elkarteak, Habelartek, Aurrera Kirol Elkarteak, Tximutxe euskara taldeak, Ikamak, EHMEk, Leitzaldea Kirol Eskolak, Eskalada taldeak, Harribeltz borroka taldeak, Liñu Putzu ehoziri taldeak, Atekaberts bertso eskolak, LHL, Leitzarra tabernak, Gaztañaga tabernak, Lopenea tabernak, Ogiberrik, Zortzikok, Zirkulo tabernak, Jeiki abesbatzak, Leitzako Jubilatu Elkarteak eta Denok Bat guraso elkarteak.

Leitzako udaletxean, Aurrerako atarian, parkean... agertu ziren pintadak eta, tartean, 2024ko ekainaren 28an LGTBIQ+ Harrotasunaren eguna aldarrikatzeko herriko haurrek auzolanean margotutako bankuari ere egin zioten eraso. *Degenerados Stop* mezua idatzi zuten ortzadarraren koloreekin margotutako bankuan: «Irmoki gaitzesten dugu erasoa. Pertsonen izate askearen aurkako edozein erasoren aurrean izanen gaituzue».

Faxismoari aurre egiteko «herri frontea» direla aldarrikatu zuten: «Informatu, saretu, aktibatu eta antolatu. Faxismoa borrokatu. Dei egiten diogu herritar orori, ideia eta ekintza faxistei zirrikiturik ez uzteko egunerokotasunean». Nabarmendu zuten iritzi guztiak ez direla balekoak eta jarrera oro ez dela onargarri: «Jarrera hauen aurrean aktibatu eta erantzun behar dugu. Ideia erreakzionarioak eta jarrera faxistak esparru guztietan identifikatu eta borrokatu behar ditugu». Gaineratu zuten, «auzolanetik, elkartasunetik eta herri honi diogun maitasunetik» dihardutela eta ez dutela onartuko hamarkadetan eginiko lana «zapuztea»: «Oso harro gaude honaino ekarri gaituen bideaz eta izu mezuen gainetik etorkizunean ere herri ameslaria izaten segiko dugu».

Leitzako Udalak erasoak gaitzetsi ditu

«Mehatxu faxista larriak eta ikur naziak irmoki» salatu nahi ditu Leitzako Udalak. Halakoak, gainera, Nafarroako beste herri batzuetan eta gau berean ere gertatu izana «nabarmendu» dute. Leitzako Udalak argi adierazi du ez dutela «inolako eraso faxistarik eta nazirik onartzen, ezta onartuko ere». Leitzako etorkizuna «kolorez marrazten» jarraitu nahi dute: «Aniztasunean eta errespetuz, eta gizarte aske, anitz eta berdinzale bat eraikitzeko konpromisoarekin, gorrotoaren diskurtsoei eta eskuin muturrak defendatzen duen eskubide urraketa eta murrizketei aurre eginez».

OSPAKIZUNA

Aurrera Kirol Elkartearen Eguna ospatuko dute urriaren 3an

Pestaren XVIII. edizioa izanen da eta goizetik hasi eta goizaldera arte hainbat ekitaldi antolatu dituzte

TTIPI-TTAPA LEITZA

Urriko lehenbiziko larunbatean pestarako gonbidapena egin du Aurrera Kirol Elkarteak. Kirola eta kultura lotuz, egun osoko egitaraua prestatu dute. Txistularien dianarekin hasiko da pesta, 09:00etan. MTB taldekoek ere ordu horretan egin dute hitzordua. Bizikleta itzulia antolatu dute eta hamar urtetik gorakoek parte har dezakete. 10:00etatik aurrera kirolean aritzeko aukera izanen da plazan eta 11:00etan erraldoien konpartsak kalejiran aterako da gaiteroek lagunduta. 11:00etatik 13:00etara Aurrerako txirrindulari taldeak ginkana antolatuko du plazan. Norberak bere bizikleta eta kaskoa eraman beharko ditu. Ordu berean, Labetxeko atarian rokodromoa izanen da mendi taldearen eskutik. Plazako Pilota Txapelketaren errebantxa ere jokatuko dute 11:30ean plazan. Segidan, 12:30 aldera, Aurrerako dantzariek emanaldia eskainiko dute. Ondotik, kalejira eginen dute Incansables txarangarekin. 14:30ean, Aurrerako bazkideen bazkaria eginen dute karrapean eta bazkalondoan Ingurutxoa dantzatuko dute plazan. Segidan, Incansables txarangarekin eta Aurrerako buruhandiekin kalejira eginen dute. 21:30ean bazkide eta bazkaldarrentzat luntxa izanen dute. Pestak segida izanen du Joxe Mendizabal eta Zaze DJarekin.



Dantza saioa eskainiko dute eguerdian.

FUTBOLA

Entrenatzaile lanetan 25 urte bete dituen 'Arri'ri omenaldia

Aurrera KE-k denboraldi hasierako festa egin zuen irailaren 12an eta Arkiskilen partida zutela baliatuta, omenaldia egin zioten Jose Luis Arrizurieta Bildarraz *Arri* entrenatzaileari. Aurten ere bera izanen da erregional mailako mutilen gidari.



ARGAZKIA: JAVIER ARANBURU

ZINEA

Zinema denboraldiari hasiera emanen diote asteburu honetan

Urriaren 3an eta 4an, zinemaz gozatzeko aukera izanen dute Leitzako Herri Aretoan. *Rufus: igeri ez zekien sugea* pelikula emanen dute 17:00etan eta *El ser querido* filma 19:30ean. Zinema bonuak eskuratzeko aukera ere badela gogorazi dute *kulturaleitza.eus* atarian.

ANTZERKIA

'Arizona' antzezlana Leitzako Herri Aretoan urriaren 11n

Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola igoko dira oholtzara 19:00etan. Sarrerak Internen eskura daitezke zazpi euroren truke edo leihatilan zortzi eurotan. Ikuspegi tragikomiko batetik migrazioa, giza ergelkeria eta manipulazioaren mugak dituzte hizpide.

GEURETIK SORTUAK

'Lau haizeetara' film laburren proiekzioa urriaren 1ean

Udalbiltzaren Geuretik Sortuak programako azken edizioan osatutako lau film laburrak ikusteko aukera izanen da herri aretoan, 19:00etan. Ondotik, *Mintzo Zen* film laburraren zuzendariekin, Aitor eta Izaro Arrutirekin, solasaldia antolatu dute. Sarrera hiru euro.

URRIAK 15

'Artea eta emakumea' dokumentala urriaren 15ean aurkeztuko dute

Herriko emakume artisten lekukotasunak bildu dituzte, «ahotsa eman eta beraien lana ikustarazteko». Udalak eta berdintasun batzordeak bultzatu dute proiektua eta Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunean aurkeztuko dute emaitza, herri aretoan, 19:00etan.

KULTURA

80 herritarrek parte hartu dute 'Agur joan da nire soñue' antzezlanean

Txistu doinuei segika, 100 urte atzera egiteko aukera izan zuten irailaren 12an Leitzako plazan elkartu ziren ikusleek. 80 herritar baino gehiagok parte hartu zuten antzezlanean: batzuk jendaurrean, besteak sukaldeko lanean. Emanaldi borobila osatuz auzolanean.



ARGAZKIA: PABLO FEO

ANIMEN GAUA

Animen Gauaren atariko, hainbat ekitaldi antolatu dituzte datozen asteetan

'Urri Illune' izenburupean, ipuin kontaketa, hitzaldia, gaztaina biltzea... prestatu dituzte

TTIPI-TTAPA LEITZA

Animen Gaua ospatu zuten iaz, lehenbizikoz Leitzan. Heriotza erdigunean jarri eta isiltasun, iluntasun eta soinuekin jolasean aritu ziren urriaren 31n. Animen Ibilbidea antolatu zuten alde zaharrean barna, norberaren beldurrak dantzan jarriz. Arrakasta izugarria izan zuen proposamenak eta 300 pertsona baino gehiago elkartu ziren. Aurten, hilabete osoari kutsu berezia eman nahi izan diote eta *Urri Illune* antolatu dute. Animen Gaurako girotzen joateko hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Leitzako hainbat gurasok antolatu dute egitaraua, ALKEren, Denok Bat Guraso Elkartearen, Atekabeltzen, gizarte zerbitzuen eta Leitzako Udalaren laguntzarekin.



Animen Ibilbidea egin zuten iaz.

Urriaren 2an, 17:30ean, *Sutondoko Ipuinak* ipuin kontaketa antolatu dute Kornieta elkartean. Urriaren 16an, 18:30ean, *Heriotzaz haurrekin* hitzaldia eskainiko dute herri aretoan. Urriaren 23an, 16:30ean, gaztaina biltzea eginen dute Plazaolako Geltokitik abiatuta eta 19:00etan Animen Gauerako sarrerak banatuko dituzte plaza zaharrean. Urriaren 31n, 18:00etatik aurrera, Animen Gaua ospatuko dute. Azken hitzordu hau aurrera atera ahal izateko auzolanerako deia egin dute: «boluntarioak behar ditugu. Laguntzeko prest daudenek *arimengaue@gmail.com* helbidera idatz dezakete.

JUBILATUEN ELKARTEA

Gogotsu hasi dute ikasturtea Leitzako Jubilatuen Elkarteko kideek

TTIPI-TTAPA

Igeriketa ikastaroan 26 lagunek eman dute izena. Extremaduran ere izan dira eta irailaren 30ean, 76 lagun joatekoak ziren Zugarramurdira. Egunero, 18:00etatik 20:00etara egoten da elkartea irekita eta hainbat ekintza osagarri eskaintzen dituzte: urriaren 6an eta 20an, euskal kantak; urriaren 8an, koreografiak; urriaren 10ean eta 15ean, txintxona; urriaren 13an, bingoa eta txokolatea; urriaren 22an, jubiloteka eta pintxo potea; urriaren 27an, Aingeru Mindegiaren hitzaldia eta urriaren 24an eta 29an, musa. Animatu eta elkartean izena emateko gonbidapena egin dute.

IRAILAREN 13AN

Taloak, azoka eta Plazaola 16K lasterketa



PABLO FEO ETA SAIZ PHOTOS

Irailaren 13an itxura ederra hartu zuen herriko plazak. Talo Eguna ospatu zuten eta Mendialdeko Azokak ere bertan egin zuen geldialdia. Eguerdian, giza proba erakustaldia eskaini zuten Arantxi Sukuntzak eta Esti Gastearenak 400 kiloko harriarekin eta Joseba Sanchezek ia 2.000 kiloko harriarekin. Ez zen izan eguneko kirol hitzordu bakarra. Plazaola 16K probako 256 lasterkari ailegatu ziren plaza jarritako helmugara.

BULARREKO MINBIZIA

2zi Elkarteak dena prest du Elkartasun Egunerako

Ikerketarako dirua lortzeko eginahaletan segitzen du 2zi elkarteak eta egun osoko festa antolatu dute urriaren 17an. Goizean martxa solidarioa eginen dute 09:30etik aurrera. Haurrentzako tailerrak ere izanen dira eta kalejira fanfarrearekin, Zubietako eta Iturengo joaldunekin eta erraldoiekin. Kantu bazkaria ere antolatu dute eta txartelak Maimurren eta Erosleko harategian eskura daitezke. Gainera, estreinakoz, jostailuekin eta baserritar arroparekin bigarren eskuko azoka egiteko asmoa ere badute.

MENDIA

Leitzako egur ustiaketa aztertzeko galdetegi bat zabaldu dute

Leitzako herriaren ondare eta aberastasun nagusietako bat basoa izanik, «egur ustiaketaren inguruko egoera hobeKI ezagutu» nahi dute Leitzako Udalak eta LeitzEKO EKBk. Herritar askok egur loteak eskatu izan dituztela ikusi dute: «bai Leitzako Udalari, bai baso ustiaketan aritzen diren enpresei ere». Horregatik, aurrera begira, izan daitezkeen «aukera eta beharrak aztertu» nahi dituzte. Galdetegi bat partekatu dute herritarren «esperientzia, beharrak eta iritzia» ezagutzeko.



Iaz Goizuetan egin zuten Emakume Artzainen Eguna. F. LOIARTE

OSPAKIZUNAK

Emakume Artzainen Eguna eta Mendialdeko Azoka Ibiltaria antolatu dituzte urriaren 11n

Urtetan isilean egindako lana aitortu eta omenaldia eskainiko diete herriko emakume artzainei eta baserritarrei

Eneritz Iraola ARESO

Herriko plazak itxura ederra hartuko du urriko bigarren igandean: aitortza leku eta erakustoki izango da. Emakume Artzainen Eguna antolatu dute eta Mendialdeko Azoka Ibiltariak ere bertan egingo du aurtengo azken geldialdia.

Goizeko hamaiketan irekiko dute azoka eta Mendialdeko nekazariek, ekoizleek eta artisauek jarritako hogeita bost bat postuetan denetarik erosteko aukera izango da ordu biak aldera arte: gazta, eztia, haragia, bitxiak, osagarriak... Jatekorik ere ez da faltako: taloak egin eta axuria burruntzian erreko dute.

Omenaldia

Azokaren bueltan mugimendua espero bada ere, eguneko momenturik bereziena eguerdiko ordu batean izango da. Aresoko emakume artzain, baserritar eta gaztagileei omenaldia egingo diete. Urte hauetan guztietan egindako ekarpena aitortu nahi diete horrela: «urtetan isilean eta ezkutuan egon den lana aitortu, plazaratu eta eskertu». Antolatzaileek nabarmendu dute «baserrian, etxeko eta lurraldeko ekonomian, artzaintza kulturan eta bertako paisaia naturalean eta kulturalean duten garrantzia». Aurresku eta kantuen ondotik, oroigarriak banatu eta denboraldi berriko gazta moztuko dute. Mendialdeko beste herrietako artzainei ere festan parte hartzeko gonbidapena egin diete eta beraiek izango dira aresoarrei lekukoa emateaz arduratuko direnak.

Plazaola Turismo Partzuergoak bultzatutako ekitaldiak dira eta Mendialdeko bederatzi udalekin eta Cederna Garalurrekin elkarlanean antolatzen dituzte. Gainera, Habelarte baserritarren elkartearen, Araizko Zaporeak, LeitzEKO eta Bertatik Bertara kontsumo taldeen babesa dute.

IRAILAREN 19AN

Jeiki abesbatzaren emanaldia



JAIONE OLAZABAL

Euskal soinu ondarearen ibilbideak zikloaren baitan, emanaldia eskaini zuen Jeiki abesbatzak Aresoko Elizan. Euskal autoreen errepertorioa lantzen dute, kronologikoki eta era pedagogiko batean azalduz. XV. eta XVI. mendeko kantuak, herrikoiagoak direnen moldaketak... Belarriak goxatu eta euskal musikaren historiari buruz ikasteko aukera ederra.

A-15eko Aresoko biaduktua konpondu eta indartzeko proiektua onartu dute



Aresoko biaduktua. NAFARROAKO GOBERNUA

TTIPI-TTAPA ARESO

Lurralde Kohesiorako Departamentuak, Herri Lan eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, 5.952.412 euro bideratuko ditu zoladura egokitzeko eta biaduktua konpontzeko. Egitura sendotu eta erabiltzaileen bide segurtasuna bermatzea da helburua. Hainbat lan aurreikusten dituzte: egiturako elementuak garbitzea, ertzetan hondatutako habe batzuk ordezkatzea, karbono zuntzez indartzea eta horien buruak babestea. Proiektuak, gainera, gaur egun dagoen ertza eraitsi eta berreraikitzea ere aurreikusten du. Eusteko sistemak ere ordezkatuko dituzte, indarrean dagoen araudia betetzen duen petril berri bat jarri ahal izateko.

Liburutegi Ibiltaria urriaren 14an etorriko da herrira

Eneritz Iraola ARESO

LAGA biblioneta liburuz bete eta irailaren 23an egin zuen ikasturteko lehenbiziko bisita Harkaitz Delgado liburuzainak. Urriaren 14an izango da hurrengoa. Lehendabizi eskolako ikasleek egingo dute liburu trukea eta 14:10etik aurrera, eskolako atarian, herritar guztiek izanen dute liburuak maileguan hartzeko aukera. Liburuzainak ekarritako liburuen artetik bat aukeratu edo aldez aurretik libururen bat eskatzeko modua ere izanen dute. Libururen bat eskatu nahi dutenek 621 24 80 24ra mezu bat bidali beharko dute.

AISIALDIA

Goxali haur eta gaztetxoentzako aisialdi guneak urriaren 6an irekiko ditu ateak

Aurtengo ikasturtean Xalto Eskolako jangelan eginen dituzte jarduerak

TTIPI-TTAPA GOIZUETA

Goxali berriz ere martxan jarriko dute 2026-2027 ikasturtean. Goizuetako eta Aranoko hiru eta hamalau urte bitarteko haur eta gaztetxoei zuzendutako aisialdi guneak urriaren 6an irekiko ditu ateak. Jolaserako, harremanak eraikitzeko, irakurketa eta eskolako lanak sustatzeko espazioa eskaintzen du, aisialdi aberasgarria, elkarrekintza eta garapen pertsonala bultzatuz. Goizuetako Udalak, Goizuetako eta Aranoko guraso elkarteak, Xalto Eskolak eta Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko gizarte zerbitzuen mankomunitateko Prebentzio Programak elkarlanean antolatu dute eskaintza.

Helburu nagusia haur eta gaztetxoen sozializazioa eta aisialdi osasungarria sustatzea da: autonomia, sormena, ardura, integrazioa... landuz. Haur Hezkuntzako 1. mailatik DBHko 2. mailara bitarteko haur eta gaztetxoei zuzenduta dago, eta doakoa da. Bertara joan ahal izateko eskolan banatutako izena emateko orria bete behar zen irailaren 28a baino lehen. Aurtengo ikasturtean Goxaliren ekintzak Xalto Eskolako jangelan eginen dituzte. Ttikiek asteartetan: Haur Hezkuntzakoek 16:30etik 17:30era eta Lehen Hezkuntzako 4. mailara arte, 17:30etik 18:30era. Handiek, ostiraletan, 16:00etatik 17:00etara izanen dute espazioa erabilgarri.

IRAILAREN 19AN

Arainburu Mendi Taldekoak Aralarren



ARAINBURU MENDI TALDEA

25 lagunek parte hartu zuten Aralarrera egindako mendi irteeran. Lau bat orduko itzulia osatu zuten, Albi, Bustintzako borda, Beloki eta Ttutturre kaskoetara igoz. Hurrengo hitzorduen berri ere eman dute dagoeneko. Urriaren 24an, Goizuetatik Oiartzunera joanen dira. Azaroaren 15ean, goiko zentrala, Sarasain, Iturria eta Izaieta artean osatuko dute itzulia eta abenduaren 31n Mandoegira igoko dira.

BASERRITARREN ELKARTEA

Goizuetako Baserritarren Elkarteak 'Baserria' aldizkaria kaleratu du

Goizuetako Baserritarren Elkarteak *Baserria* aldizkaria argitaratu duela jakinarazi dio Ttipi-Ttapari. Egoerarekin «kezkatuta» daudela diote eta «ulermena eta elkarlana» beharrezkoak direla nabarmendu dute: «momentu gozoenean ez gauden arren, bidea hori da».

IKASTAROAK

Urriaren 1ean hasiko dira udalak eskaintzen dituen ikastaroak

Eskulanak, pilates, *body pump*, adikoentzako jarduera fisikoa eta yoga ikastaroak eskaini dituzte herrian. Irailaren 25ean bukatu zen izena emateko epea eta gutxienez zortzi lagunek eman behar zuten izena eskaini ahal izateko. Urriaren 1ean hasiko dituzte klaseak.

JUBILATUAK

Goizuetan erroldatutako jubilatuen eguna ospatuko dute urriaren 18an

TTIPI-TTAPA GOIZUETA

Umore Ona Elkartea hasia da Goizuetan erroldatutako jubilatuen eguna antolatzen. Izena emateko orriak Amaia Kafetegian eta Umore Ona Elkartean zintzilikatu dituztela jakinarazi dute. Bazkarira joan nahi duenak, eta truk eta mus txapelketan parte hartu nahi duenak, urriaren 11 baino lehen eman beharko du izena. Bazkaria egunean bertan ordaindu beharko da, hamabi euro.



Izena ematea urriaren 11ra arte.

Urriaren 18an, igandean, 11:00etan meza izanen dute festari hasiera emateko. Ondotik, pilota partidak antolatu dituzte. Bazkaria 14:00etan izanen da Umore Ona Elkartean. Arratsaldean jokatuko dituzte truk eta mus txapelketak, gutxienez, lau bikotek izena ematen badute.

ABESBATZA

Umore Ona abesbatzak taldeko kide izateko gonbidapena egin du

Irailaren 18an hasi zuen ikasturtea Umore Ona abesbatzak. 2006an sortu zuten eta dagoeneko 20 urte bete dituzte elkarrekin kantuan. Ikasturte berriari begira, taldea indarberritu nahi dutela adierazi dute: «une egokia da kantatzea gustuko baduzu probatzeko». Ostiraletan elkartzen dira eta edonork parte hartu dezakeela gogorarazi dute: «Utzi lotsak alde batera. Animatzen bazara ez zara urrikituko, ziur ongi pasako duzula». Proba egin nahi duenak, abesbatzako edozein partaideri esan diezaioke.

LITERATURA

Irakurle taldeak hurrengo irakurgaia aukeratu du

2025eko urtarrilean jarri zuten martxan Goizuetako Irakurle taldea eta ttirriki-ttarraka badoa aurrera. Hamar bat laguneko taldea elkartzen da bizpahiru hilabetean behin irakurri duten liburuari buruz hitz egiteko. Hurrengo hitzordua azaroaren 18an izanen dute, 18:30ean, Tifanitxon. Ordurako Nerea Loiolaren *Epizentroa*, zazpi ipuinez osatutako liburua irakurri beharko dute. Talde irekia dela gogorarazi dute eta parte hartu nahi duenak 621 240 024 telefonora idatz dezake.

ANIZ

Ortziraletik astelehenera arte ospatuko dituzten bestetarako prest

Aniztarrek egitarau oparoa prestatu dute urriaren 2tik 5erat herria girotzeko



Joan den urtean giro ederra izan zuten herrian. ARTXIBOTIK

TTIPI-TTAPA

Urriak 2, ortziralea. 19:00etan ezkila jotzea eta herriari itzulia. 19:30ean txistu eta gaitarekin herriari itzulia eta geldialdia Plaxa-xarren. 20:00etan mutil dantzak eta 21:00etan baztan zopak. 00:00etan dantzaldia Gabezin taldearekin eta ondotik DJ Bull. Goiz aldean xingar jatea.

Urriak 3, larunbata. 11:00etan puzgarriak eta 11:30ean mus eta partxis txapelketa. 17:30ean herri kirolak Basaburua eta Igantziko taldeekin eta Basaburuko kadeteen arteko arpan desafioa. Ondotik Kataluniako erraldoiak: Gegants de Cal Cardoní de Torà. 20:30ean paella jatea eta afalondotik Nahia eta Jasone Baulonekin kantu eta dantza. Iluntzean su artifizialak.

Urriak 4, igandea. 11:45ean luntxa eta 12:00etan herritarren arteko pilota desafioa. 14:00eta



Suaren inguruan kantatuko dute.

zikiro jatea Beñat akordeoilariarekin. 17:00etan bingoa eta 19:00etan karaokea. Ondotik dantzaldia Beñat akordeoilariarekin. Ondotik xingar jatea eta kantaldia suaren inguruan.

Urriak 5, astelehena. 10:30ean frontoia garbitzea. 12:00etan mus eta partxis txapelketako finalak. 14:00etan bazkaria elkartean eta bestak akitzeko herritarren arteko jostetak.



Euskal Herritik eta kanpotik etorritako pilotu ugarik parte hartu zuten proban. JOXE MARI OSKARIZ

ARIZKUN

Giro ezin hobea Ordokiko 4x4 trialaren XII. edizioan

TTIPI-TTAPA

Irailaren 12an izan zen Ordokiko 4x4 triala eta Jon eta Gorka antolatzaileek balorazio ona egin dute: «egun polita atera zen, jende aunitz ibili zen eta pilotuak kontent gelditu ziren. Esker mila babesle guziei, haiek gabe ez baitzen posible izanen. Aita kontent egonen zen egin dugunarekin». Probaz gain, triala sortu zuen Andres Jaurena zenari eta urte luzez lagundu zuen Doroteo Cordobari omenaldi hunkigarria egin zieten. Akitzeko, afari ederra egin zuten.

Lau kategoriatan banatu zituzten sariak eta hauek izan ziren irabazleak:

SERIE KATEGORIA
1. Itxasne Arroita /Jon Zuazo
2. Mikel Otegi / Aitor Etxeberria
3. Xiker Ordoki/ Lizar Sein

MODIFIKATUAK
1. Eneko Elizalde / Unax Eraso
2. Xabier Sarratea / Xuban Iturregi
3. Jon Bidaur / Xabier Bidaur

PROMODIFIKATUAK
1. Manex Ordoki / Juan Manuel Ordoki
2. Aiert Irigoien / Eneko Sanzberro
3. Javier Galar/ Jon Irigoien

PROTOTIPOAK
1. Ruben Azkunaga
2. Jorge Alonso / Aroa Fernandez

ELIZONDO

Nekazalpunk jaialdia eginen dute larunbatean gaztetxean

TTIPI-TTAPA

Zapatillerak, Baztango Gazte Asanbladak eta Iñarrosi taldeak Nekazalpunk festibala antolatu dute urriaren 3an:

14:30ean bazkari beganoa eginen dute Merkatuko plazan. **Ondotik** kontzertu akustikoa izanen da Lodosako Liberando el Corazón taldearen eskutik, eta Kristina Pozo Sevilla lodosarrak *Caterva: Una cartografia de la violencia sexual contra la infancia* liburua aurkeztuko du. **18:30ean** kontzertuak hasiko dira Baztango Gaztetxean: Butano (Burgos), Opakua (Iruñea), Xistor of a Down (Lapurdi), Croketas Gratis (Zizur), Capitan Entresijos (Madril), ElectrikAss (Zarautz), Payos (Iruñea) eta Matxarda (Gaztelu).

ELIZONDO

Arrakastatsua izan da Euskal Herriko II. Ardi Moztaile Txapelketa

Zortzi naziotako 80 ardi moztaile aritu ziren lehian



Jendetza bildu zen frontoian goiz eta arratsaldean. EUSKAL ARDI MOZTAILEEN ELKARTEA

TTIPI-TTAPA

Euskal Ardi Moztaileen Elkarteak Euskal Herriko Ardi Moztaileen II. Txapelketa antolatu zuen irailaren 19an Elizondoko Juanjo Atxa Mindegia pilotalekuan. Elkarteak ekitaldiaren balorazio «arras positiboa» egin du; «iaz Abadiñon ikusi genuen txapelketak bazuela ibilbidea, eta Elizondon baieztatu egin dugu. Jendeak erantzun egin du, moztaileek maila handia erakutsi dute, bai gureek eta baita nazioartekoek ere; giroa bikaina izan da. Hunkituta eta beteta sentitzen gara».

80 moztailek eta zortzi selekziok parte hartu zuten: Euskal Herria, Eskozia, Irlanda, Gales, Ingalaterra, Alemania, Frantzia eta Espainia. Guztira 1.000 Latxa eta Rasa ardiri moztu zieten ilea, goizean hasi zituzten lehen kanporaketak eta arratsaldean izan ziren finalak. Hauek dira irabazleak kategoria bakoitzean:

EHko txapelduna aizturrez
1. Josu Ekisoain (Ibiriku)
2. Joseba Ugalde (Lezama)
3. Ipar Arrinda (Lekeitio)
4. Xabi Harluxet (Ahaxe)

EHko txapelduna makinaz
1. Joseba Ugalde (Lezama)
2. Mikel Etxebarria (Dima)
3. Ipar Arrinda (Lekeitio)
4. Romain Jonquet (Aiherra)

Nazioarteko lehia
1. Gales
2. Euskal Herria
3. Espainia
4. Frantzia
5. Eskozia
6. Irlanda
7. Ingalaterra
8. Alemania

Open kategoria aizturrez
1. William Craig (Eskozia)
2. Ipar Arrinda (EH)
3. Joseba Ugalde (EH)
4. Clive Hamer (Gales)

Open kategoria makinaz
1. Llyr Evans (Gales)
2. Pierre Grancher (Frantzia)
3. Gwydion Davies (Gales)
4. Mikel Etxebarria (EH)

Senior kategoria
1. Duncan Adams (Eskozia)
2. Lucie Grancher (Frantzia)
3. Paddy Dunne (Irlanda)
4. Mikel Galvez (EH)

Lehiaketak jendetza ekarri zuen Elizondorat eta egun osoko egitaraua izan zuen frontoiaren barnean zein kanpoaldean: eskulangileen azoka, bazkaria, jateko eta edateko postuak, dantzak…

Joan den urtean lehenbiziko aldiz antolatu zuten txapelketa Euskal Herri mailan Abadiñon, «eta bide horretan aitzinera egiteko gai garela ikusi dugu Elizondon. Gure asmoa da txapelketa Euskal Herriko txoko guzietara eramatea eta urtez urte hazten segitzea».

«Ardi moztea kirol modura sustatzeko, Euskal Herriko moztaileen trebetasuna bertze herrialdeetakoen parean jartzeko eta Euskal Herria osatzen duten zazpi lurraldeen arteko batasuna indartzeko», Euskal Ardi Moztaileen Elkarteak txapelketa hau urtero lurralde batean egitea erabaki du.



Parte hartu zuten selekzioetako ordezkariak. EAME



Latxa era Rasa arrazako 1.000 ardiri moztu zieten ilea. EAME



EHko selekzioko Mikel Galvez. EAME



Ardi moztailea lanean. EAME



Joan den urteko bestetan ateratako argazkia. ARTXIBOTIK

GARTZAIN

Urriaren 9tik 12ra ospatuko dituzte herriko bestak gartzaindarrek

Musikak, jokoek eta giro onak ez dute hutsik eginen ortziraletik astelehenera arte

TTIPI-TTAPA

Urriak 9, ortziralea. 16:00etan txupinazoa eta ezkila jotzea, ondotik mus txapelketa. 21:00etan baztan zopak Ander eta Xabik alaituak eta ondotik DJ Txamarra.

Urriak 10, larunbata. 12:00etan haurrentzako tailerrak eta 14:00etan gazte eta haurren bazkaria. Arratsaldean gazte jokoak, puzgarriak eta txokolate hartzea. 21:30ean afari herrikoia. 00:00etan Olgetan erromeria eta ondotik DJ Trio do Janeiro.

Urriak 11, igandea. 12:00etan III. Boneta Jaurtiketa txapelketa. 14:00etan zikiroa Andonik alaiturik, ondotik DJ Alkape.

Urriak 12, astelehena. 12:00etan meza Ariztegiko ermitan, ondotik luntx herrikoia. 17:30ean kantaldia Olaia eta Joanarekin. Bestak akitzeko, 19:00etan dantzagarriak Elizondoko gaiteroen eskutik.

ELBETE

Ederki disfrutatu dituzte bestak



DESIRÉE GONZALEZ

Altxaferoarekin hasi eta luntxarekin akitu zituzten Elbeteko bestak. Tartean musika, dantza eta adin guzietarako hainbat jarduera izan zituzten, herrikoek eta hurbildu zirenek ahalik eta gehien gozatzeko. Antolatzaileen erranetan, «egun hauetako sentsazioak arras onak izan dira, hortaz, Elbetera hurbildu diren guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, giro arras ona sortu delakoz denen artean».

Saharaztanek ferietako tonbola solidariorako bilketa deialdia egin du

TTIPI-TTAPA

Urriaren 30ean eta 31n izanen dira Elizondoko feriak eta Saharaztan elkarteak tonbola solidarioa paratuko du bertze behin, bi helbururekin: «elkartearen alor ekonomikoa osatzea eta saharar errealitateari ikusgarritasuna ematea». Tonbola, urtero bezala, sariz betea egonen da: liburuak, erosketa bonuak eta deskontuak, jan-edatekoak, artisau lanak, bazkidetzak, sarrerak... «Baina opari horiek banatu ahal izateko, hurbileko, eskualdeko eta inguruko lantegiei, komertzioei, artisauei, elkarteei... borondate eskaera luzatzen ari gara».



Opari ugari lortzeko aukera izanen da.

Tonbolarako sari bat oparitu egin nahi duenak *saharaztan@hotmail.com* helbidera idazten ahal du edo elkarteko kideren batekin harremanetan jarri. Urriaren 13a izanen da horretarako azken eguna, ondotik, «bilketa eta antolaketa barne lanak egiteko astia» izateko. Horrez gain, Donezteben ferietan ere postua paratuko dute, «nahi duenak hurbildu, erosi eta elkarteari laguntzeko».

BAIGORRI-ERRATZU

«Herri beraren parte garela» aldarrikatuz ederki joan dira Izpegiko bestak

Antolatzaileen erranetan, «arras ongi joan zen dena eta gogoz gaude heldu den urtean segitzeko»

TTIPI-TTAPA

Ortziralean bertso saio musikatu egin zuten. Larunbatean Potx Magoarekin hasi zuten goiza eta, ordu horretan ere, Juan Angel Perotxena eta Garaxi Inziarte mural bana pintatzen hasi ziren. Ondotik Erratzu eta Baigorritik abiatu ziren txirrindulariak ailegatu ziren eta argazkia atera zuten elkarrekin. Gero Baigorriko Arrola dantza taldeak emanaldia egin zuen.

Bazkaltzeko 120 lagundik goiti bildu ziren, eta hitzartzean, «Izpegin batu gaituen hori herri beraren parte garela erakusteko gogoa dela» nabarmendu zuten. Arratsaldean triki poteoa, ondotik Tukukarrakak batukada eta gauean kontzertuak: Odei, Skaregekasko eta DJ Üzkülüz.

Antolatzaileek «beharrezkoa» ikusten dute besta, «hain hurbil baina urrun bizi garen bi bailaretako jendea elkartzeko».



Giro ederra izan zuten irailaren 18an eta 19an Izpegin. AINTZANE ARIZTEGI





«Bere ardurak betetzea» eskatu diote Nafarroako Gobernuari. UTZITAKOA



Irailaren 17an agerraldia egin zuten ELAren sindikatuan. ELA

Benito Menni ospitaleko langileek 300 greba egun bete dituzte

«Arreta duina eskaintzeko» lan hitzarmena eskatzen dute, «guttienez 22.400 euroko urteko soldata gordina bermatzea, lanaldia murriztea eta lan baldintza egokiak biltzea»

TTIPI-TTAPA

2024ko abenduan abiatu zen lan gatazka Elizondoko Benito Mennin, enpresak hiru eraikinetako bat hetsi eta hainbat langile despeditu zituelarik. Geroztik, «lan baldintzak hobetzeko eta erabiltzaileei kalitatezko arreta eskaintzeko helburuarekin» protestak hasi zituzten, eta hainbat grebaldiren bitartez, 300 greba egunera ailegatu ziren irailaren 14an.

Egoerak berdin segitzen duela ikusirik, langileek ELA sindikatuaren egoitzan agerraldia egin zuten bertze behin. Azaldu zutenez, ospitalea «Nafarroako Gobernuaren funtsekin finantzatutako zerbitzu publiko itundua» da. Hori dela eta, 2025ean ELA hiru aldiz bildu zen Nafarroako Gobernuarekin, «egoeraren berri emateko eta gatazka honetan duen erantzukizunaz zuzenean interpelatzeko».

Hala ere, «Nafarroako Gobernua ez da erantzukizuna bere gain hartzen ari eta ez du gatazka konpontzeko neurri eraginkorrik hartu. 2026ko otsailean Nafarroako Parlamentuak Foru Gobernuari eskatu zion osasun mentalaren sektorearen ezaugarri bereziak kontuan har zitzala eta bai zerbitzuaren kalitatea bai lan baldintzak hobetzeko beharrezko baliabideak jar zitzala. Hala ere, administrazioarekin egindako azken bileraren ondotik, langileek oraindik ez dute erantzun zehatzik hartu».

Enpresaren erantzunik gabe

Bertzetik, «enpresak ez die erantzunik eman langileen oinarrizko aldarrikapenei, eta gatazka gainditzeko nahikoak ez diren proposamenak mantentzen ditu. Langileek hitzarmena eskatzen dute, guttienez 22.400 euroko urteko soldata gordina bermatuko duena, lanaldia murriztea eta lan baldintza egokiak bilduko dituena, lan kargek eta langile ratioek arreta duina eskaintzeko aukera eman dezaten. Greban 300 egun eman ondotik, zuzendaritzak bere erantzukizuna bere gain hartu eta akordioa lortzeko egiazko aurrerapausoak ekarriko dituzten proposamenak egin behar ditu».

Izan ere, 300 egunek «agerian utzi dute gatazka lan aldarrikapen hutsetik harago doala. Funtsezko zerbitzuen eta zaintzaren kudeaketa eredua dago jokoan: ez da nahikoa zerbitzu bat diru publikoarekin finantzatzea, beharrezko baliabideak, lan baldintza duinak eta kalitatezko arreta bermatzen ez badira». Gainera, «agerian utzi dute sektore feminizatu bateko langileek dituzten zailtasunak; izan ere, prekarietatea eta soldata arrakala errealitatea izaten segitzen dute».

Hori dela eta, «langileek greban eta mobilizazioekin segitzeko konpromisoari eusten diote, egiazko aurrerapausoak lortu eta helburuak bete arte».



AGENDA

Baztango kultur agendak gustu guzietarako ekitaldiak bildu ditu urrian

Ikuskizunak, solasaldiak eta musika nagusi izanen dira bertze behin hilabeteko eskaintza kulturalean

TTIPI-TTAPA

Urriaren 1etik 31ra ***Berotzen dituzten eskuak*** **argazki erakusketa** izanen da Arizkunenean, 16:00etatik 20:00etara ikusgai. Landa eremuko emakumeen antzinako irudiak biltzen ditu erakusketak.

Baztango artisauek eta ekoizleek **merkatua** eginen dituzte Elizondoko plazan urriaren 3an, 10ean, 17an eta 24an, goizez.

Gizarte Zerbitzuek ***Haurra eta gatazkak*** **solasaldia** antolatu dute urriaren 7an, asteazkena, 17:30ean Arizkunenean. Angiru psikomotriziate zentroko Nerea Ordokik eta Intza Elizaldek gidatuko dute.

Urriaren 15ean, Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunean, ***Sorgina, banaiz*** **dokumentala** proiektatuko dute Arizkunenean 19:00etan, eta ondotik solasaldia izanen da Asisko Urmeneta egilearen eskutik.

Lengoaia Eszeniko Berriak programaren barnean, **LEB Intensif jaialdia** antolatu du Iriartea Pilez elkarteak urriaren 16tik 18ra. Hiru egunez ikuskizunek Elizondoko karrika eta espazio publikoak hartuko dituzte.

Baztan Kantuz ekimena Zigan izanen da urrian. Zehazki, herriko plazan bilduko dira hilaren 18an, igandea, 12:00etan.

Urriaren 20an ***Munduko hizkuntza gutxituak*** **solasaldia** antolatu dute Gizarte Zerbitzuak eta Garabide elkarteak, 18:00etan Arizkunenean.

Baztango Mindeitze kantu taldeak kontzertua emanen du Azpilkuetan urriaren 25ean, 11:00etan hasita.

Urriaren 25ean ere **bertso saio literarioa** izanen da Elizondon: Maddi Ane Txoperenak eta Saioa Alkaizak ***Haize lekua*** **ipuina** aurkeztuko dute 18:00etan Arizkunenean. Bi emakumeren arteko harremanaren istorioa kontatzen du ipuinak.



IRURITA

Baztango dantzen gaurko testuinguru soziala mintzagai



Jende andana hurbildu zen mahai ingurura Gizarte Bilgunean. UTZITAKOA

Plazara Dantzara

Isabel Jaurena kazetariak gidatuak, dantzen parte hartzeaz, transmisioaz, garrantziaz eta erronkez aritu ziren irailaren 17an Kattalin Ezkerra (Plazara Dantzara eta Baztandarrak Dantza Taldeko kidea), Kristobal Zelaieta (Irurita eta Donezteben dantza irakaslea eta dantzaria), Nahia Baylon (Iruritako dantzaria eta Musika Eskolako irakaslea) eta Txomin Petrikorena (mutil dantzaria).

Solasaldiaren hasmentan bakoitzak dantzarekin izan duen eta egun duen loturaren berri eman zuen. Ondotik, mutil dantzez mintzatu ziren.

Ezkerra «emakume eta gorputz disidenteak egiten ari ziren borrokaren momentutik» hurbildu zen Baztango Jauzietara eta beretako «komunitatea sendotzeko, kideak egiteko eta hausnartzeko baliogarria» izan da. Bere kezka da «gaur egun boikot antolatua dagoela mutil dantzen kontra, desprestigiatzeko nahiarekin: dantzariek plazak utzi dituzte».

Petrikorenak azpimarratu zuen «gizon bezala mutil dantzak dantzatzea posizionatzea dela». Gizarte matxista honetan, «emakumeekin dantzatzen duen gizona erasotua izateko posizioan jartzen da». «Aunitz» eztabaidatu behar izan du inguruan.

Zelaietak dio «mutil dantza guti dantzatu izan duela Baztango Dantza Taldean. Beren errepertoriotik desagertu ziren, tabu bihurtuz». Orain «Baztango dantzen garrantziaz» ohartu da.

Baylonek belaunaldi berrien ikuspuntua aurkeztu zuen: «bertze batzuen borrokari esker, momentu lasaia bizi da. Indartu beharko litzateke hala ikastea, lotsak eta presio soziala desagertzeko».

Denek bat egiten zuten «ondarea babesteko beharrarekin» eta «hortarako modu eraginkorrena dantzatzea dela».



EHEk «euskarari lehentasuna emanen dion ofizilatasuna» eskatu du Izpegin

Abenduaren 15ean euskaldun guziak gonbidatu dituzte mobilizatzera, Nafarroako Vascuencearen legea salatzeko



Izpegiko bestetan egin zuen elkarteak agerraldia mugan. EHE

TTIPI-TTAPA

Euskal Herrian Euskaraz mugimenduak hainbat txokotako euskaltzaleak bildu zituen irailaren 19an, «gure nazio, kultura eta hizkuntzaren aldeko aldarria egiteko. Aldarri hau kezka eta arduratik egiten dugu, larrialdi egoera betean gaudelako. Frantzia eta Espainiako estatu kolonial eta inperialistak sortu zirenetik, Euskal Herriaren desagerpena izan dute helburu. Ezin ditugu atzendu gure historian herri hau desagerrarazteko gupidarik gabe erabili dituzten prozesu suntsitzaileak. Estatu zapaltzaileek argi dute herri bat menperatzeko beharrezkoa dela herri horren hizkuntza desagerraraztea. Hizkuntza, komunikazio tresna hutsa baino gehiago, herri honek lurrarekin, kulturarekin eta bere mundu ikuskerarekin duen lotura zuzena baita».

Hori dela eta, «guk ere argi dugu herri honek bizirik irauteko, euskara behar duela eta euskaldun ahaldundu eta aktiboak ere behar dituela. Nafarroa Garaia eta Beherea bereizteko inposatu diguten muga honetatik abiatutako deialdi hau euskal lurralde guztietara zabaltzen dugu. Izan ere, egoera hau ez da Nafarroan bakarrik gertatzen. Euskal Herriko karriketan, batez bertze, zortzi lagunetatik bakarrak euskaraz hitz egiten du, belaunaldi berrien parte batek soilik jasotzen du euskara etxean edo eskolan, eta, euskararen arnasguneak arriskuan daude. Gure hizkuntza galzorian dago. Egoera honi buelta emateko, mendez mende egin dugun bezala, ezinbertzekoa da herri gisa antolatzea eta erresistentzian herri boterea aktibatzea».

Vascuencearen legea

Abenduaren 15ean 40 urte beteko dira Nafarroa Garaian Vascuencearen Foru Legea onartu zenetik. Lege «zapaltzailea» dela salatu zuten; «estatu kolonial eta inperialistek zatitutako Nafarroa gehiago zatitzeko eta euskaldunak bigarren mailako herritar bezala tratatzeko erabiltzen da oraindik, bizi garen herriaren arabera, gure hizkuntza eskubideen aitortzan mailaketa bat eginez. Urteurren hau baliatu nahi dugu eskubidez dagokiguna aldarrikatzeko, konponketa historikoa zor digutenak interpelatzeko eta inori baimenik eskatu gabe, euskaldun guztion eskubideen aitortza eskuratzeko. Nafarroa Garairako eskatzen duguna, Nafarroa osorako eta Euskal Herri osorako eskatzen dugu».

Beraz, «abenduaren 15ean Euskal Herri osoko euskaltzaleak mobilizazioak antolatzera gonbidatzen zaituztegu. Aurre egin diezaiegun gure kontrako lege zanpatzaileei. Euskaldunon eskubideen aitortza eskuratzera goaz!».

ALMANDOZ

Basaburuaren Eguna ederki joan zen irailaren 12an



IRATXE GAMIO

Goizean Almandozko parajeak ezagutzeko aukera eman zuen mendi ibilaldia egin zuten, eguraldi paregabearekin. Ondotik, mus txapelketa izan zen, eta 15 bikoteren artean, Izaskun eta Iratxe ama-alabek irabazi zieten Iosu eta Xabi anaiei.

Ondotik bazkari ederra egin zuten, Mitze magoaren magia trukoek girotua. Bazkalondoan bingoa, eta Axun izan zen irabazlea. Ondotik Baylon ahizpekin dantzaldia izan zen eta akitzeko, afaria. Bi urteren buruan Zigan izanen da hurrengoa!

ELIZONDO

Euskal Herriko dantzak eta generoa solasgai urriaren 8an

Dantzatzen duen herria zikloaren barnean, bi mahai inguru antolatu ditu Plazara Dantzara taldeak: lehenbizikoa irailaren 17an izan zen (kronika 57. orrialdean) eta hurrengoa heldu den astean izanen da. *Dantzak eta generoa Euskal Herriko plazetan* izenpean, Euskal Herriko hiru esperientzia kontatuko dituzte: Ihitz Iriart Alozetik, Maite Iribar Oñatitik eta Oier Araolaza Eibartik. Isabel Jaurena kazetariak gidatuko du saioa eta Arizkunenean izanen da, urriaren 8an 19:00etan.



ILEART ILEAPAINDEGIA

Emakumezkoen eta gizonezkoen ilea zaintzen 30 urte baino gehiago pasatu ondotik, Axunek zerbait gehiago sortu nahi izan du

Teknologia

Tratamendua



Pertsonalizatua

Ongizatea

Axun Viela

ILEART ESPERIENTZIA · ILERAKO SPA

Edertasuna entenditzeko bertze modu batetik sortu da ILEART Esperientzia: ikusten duguna zaindu, baina nola sentitzen garen atzendu gabe.

Besaulki baten gibelean 30 urte baino gehiago pasatzeak teknika baino gehiago erakusten du. Denborarekin entenditzen duzu ez duzula ilea bakarrik lantzen: pertsona bat zaintzen duzu eta hura bizitzen ari den momentua.

Urteetan ile mozketetan, kolorea ematean eta emaitzan zentratu ondotik, ikuspegi osoago baterako bidea ireki du. ***Esperientzia, tratamendua, pertsonalizazioa eta ongizatea modu*** *naturalean elkartuz joan dira ILEARTen.*

Eta orain, ibilbide horrek bertze pauso bat eman du. Hortik sortua da ***ILEART Esperientzia · Ilerako Spa.***

Esperientzia bakoitza ***ilean zehaztasun handiko diagnostikoa*** *eginez hasten da. Hortik aitzinera, dena pertsonalizatzen da: lurruna, masajea, ura, aromaterapia, kromoterapia eta bizitakoan deskubritzen diren bertze hainbat detaile.*

Aurpegiko edo oinetako erritualak *ere egiten ahal dira, zaintza iletik haratago eramanez.*

Proposamenik berezienetako bat ***Azala Azalarekin*** *da, haur ttiki-ttikiak dituzten amen ilea zaintzeko pentsatua, haurrengandik bereizi gabe.*

ILEARTek urteotako esentzia mantendu du: ***eskuak, esperientzia, hurbiltasuna eta ezagutza****. Zaintzeko modua da garatzen ari dena.*

Eta laguntzeko modu hori gure saloitik haratago doa, ***tailerrei, aholkularitza pertsonalizatuari – aurrez aurrekoa eta online*** *– eta Axunviela.ringana.com online dendari esker.*

Akaxo luxua izanen da momentu batez,
inork zure deus behar ez izatea.
Ailegatu. Begiak itxi. Zaintzen utzi.

Zure ilea eta azala zaindu, eta ateratzean, ispiluan ikusten duzuna aldatuko da, eta pixka bat bada ere, ***baita zu nola sentitzen zaren ere.***

Axunviela.ringana.com · Tel. 679 191 974

ZUGARRAMURDI



Patioan egindako etxola, kanpotik eta barnetik.

HEZKUNTZA

Udan egindako berrikuntza dotore aunitzekin hasi dute ikasturtea eskolan

Patioan egurrezko etxola bat egin dute gurasoek eta gimnasioa intsonorizatu du herriko etxeak

Marifa eta Koro

Udan egindako berrikuntza aunitzekin hasi dute ikasturtea Zugarramurdiko eskolan. Alde batetik, gurasoek patioan paratutakoak: egurrezko etxetxo bat (sukalde eta guzti), mahaiak, loreak, jostatzeko gurpilak, eta halakoak. Bertzetik herriak egindako konponketak: gimnasioa intsonorizatu dute, leiho batzuk aldatu, eta argiteria berritu.

Ikasleen antolamenduan ere aldaketak daude: Zugarramurdiko eskolan hauek egonen dira: Haur Eskolakoak eta Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailakoak. Gainerako ikasleak Urdazubiko eskolan arituko dira.

Denetara 35 ikasle daude. Pena aurten 3 urteko ikasle bat bakarrik hasi dela.




Jostatzeko tuboa.

Saneamendu sarea Lapiztegian eta Bentetako edateko ura

Herriko Etxetik ere berri onak ditugu, bi dirulaguntza polit lortu baitira azpiegitura lan garrantzitsuak gauzatu ahal izateko. Bata Lapiztegia karrikan, Martinea inguruan, saneamenduko hoditeria konpontzeko. Kanpotik zilorik egin gabe, errobot bat sartuko dute hodietan, eta honek barneko aldeko paretak azkartuko ditu, masa berezi bat emanez.

Bertze dirulagunza, Bentetan edateko uraren hodia aldatzeko izanen da.

Pirinioen Lagunak elkarteak marraztu ditu Odiko "onddoa" eta bertze hainbat



Pirinioen Lagunak elkartekoek Lizuniagan pintatu duten ikurra.

Marifa eta Koro

Odian agertutako onddo gisako marrazki harrigarria aipatu genuen aitzineko TTIPI-TTAPA aldizkarian (*ikusi 910. zk*). Bada, horri buruzko berri gehiago baditugu eta misterioa argitu dela erran dezakegu.

Hasteko, aipatu behar da marrazki hau ez dela Zugarramurdin bakarrik agertu. Lizuniagako aduanan ere badago bat, Erratzu eta Arizkungo bide gurutzean ere, Behobiko etxe batean ere... eta horrela, Pirinioetan zehar nonahi agertu dira halako marrazkiak, denak berdin-berdinak.

Bertzetik, erran behar da ikusten dena ez dela onddo bat, matematikako *Pi* ikurra baizik. Eta *Pi* horren zentzua Pirinio mendi lerrotik heldu dela.

Pirinioen Lagunak taldearen 'Pyrénéegration'

Beren burua *Pirinioen lagunak* bezala izendatzen dutenek eta RINP taldea osatzen dutenek eman dute martxan han eta hemen *Pi* ikurra marraztearen ekimen hau. Gauez aritzen dira lan honetan eta *Pyrénéegration* izena emana diote, hau da, PIren bidea.

Onddo bilatze sasoinean sartzen garenez, polita izanen zen *PI-onddo* hau ere hor barna atxematea, baina oraingoan platerera eramateko jaki moduan...

KULTURA

Mugalur gaualdia eta Tor Magoaren emanaldia udazkena abiatzeko

Marifa eta Koro

Udazkena ekitaldiz beteta heldu zaigu. Hona hemen lehenbiziko biak: **Urriaren 16an**, museoan, Mugalur Gaualdia eginen dute. Mugalur proiektuaren barnean antolatzen den kultur eta gogoeta ekitaldia da. Proiektu hau Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluak gidatzen du, Cederna Garalur elkartearekin eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHU) elkarlanean, muga inguruko biztanleen bizi esperientziak eta harremanak aztertzeko.

Urriaren 25ean, igandean 12:00etan, museoan, Tor magoaren ikuskizuna.

AZOKAK

VI. Ikusi Mikusi haur eta gazteen literatura azoka eginen dute urriaren 9an eta 10ean

Euskara hutsezko ekoizpenak ikusteko eta erosteko aukeraz gain, hainbat ikuskizun plazaratuko dituzte bi egunez

Ganex

Biziki goxatu, osoki maitatu goiburupean eginen dute Ikusi Mikusi festibalaren seigarren aldia Saran. Bi egunez literatura izanen da protagonista eta euskara hutsezko ekoizpenak ikusi eta erosten ahalko dira, urriaren 9an eta 10ean.

Ortziralean, eskolen eta profesionalen eguna izanen da eta larunbatean, aldiz, familiena. Bi egunetan, hamabortz argitaletxek baino gehiagok euskara hutsean dauden haurrendako eta gazteendako literatura lanak eramanen dituzte Sarara eta haurrendako hainbat ikuskizun, irakurketa eta haitada izanen dira adin tarteetan banatuta.

Ikuskizunak

Larunbatean 11:00etan eta 16:00etan, Kristof Hiriartek *Babes* ikuskizuna eskainiko du kiroldegiaren ondoko gelan, 0-3 urteko haurrei zuzendua. Maddi Zubeldiak eta Bernadette Iratzokik *Makilakixki* emanen dute bi egunetan. Pontx eta Kiki pailazoek *Liburutik plazara!* ikuskizuna, hau ere bi egunetan eta Diabolo karrika artistak (Arnaud Vidal) *Peztakla!* ikuskizuna larunbat arratsaldean.

Antolatzaileek egitarau zabala prestatu dute eta programa dena *ikusimikusi.eus* helbidean ikusgarri ezarri dute eta larunbateko sartzeak ere dagoeneko salgai paratu dituzte festibalaren webgunean.

BESTAK

Pelletrat, Olazagazti eta Jauregi gogoan



UTZITAKOAK

Giro ederrean eta umorez joan dira herriko bestak, larunbateko kontzertuak eta igandeko karroen desfilea edo ahate jokoa horren lekuko. Baina, halere, gure artetik falta direnak ere gogoan izan zituzten, batez ere plazako errebote partidetan eta Joko Garbi finalean, Eneko Pelletrati, Pantxo Olazagaztiri eta Michel Jauregiri omenaldiak egiteko baliatu baitzituzten hitzordu horiek.

PILOTA

Sarako Izarrako pilotariak Teruelen



IPARRALDEKO PILOTA BATZORDEA

Iparraldeko Pilota Batzordeak, Espainiako Trinquetes de Teruel elkartearen gonbidapenari erantzun dio. Iparraldeko selekzioa Manex Etxeberri-Pacheco eta Eñaut Zozaia (Sarako Izarra), Eneko Etchevers (irisartarrak) eta Jon Etchelet (Zaharrer Segi) osatu dute. Etxeberri-Pachecok eta Zozaiak gutigatik huts egin dute podiumeko hirugarren lekua, 18-22 galduta. Iparraldeko bertze bikotea bigarren izan da.

PILOTA

Larretxea eta Etxeberri profesionaletara



IPARRALDEKO PILOTA BATZORDEA

Hiru dira, beren emaitzei esker, Elite Pro esku huskaren munduan sartu diren pilotariak: Andoni Larre (Zaharrer Segi) Iparraldeko eta Frantziako txapeldun izan dena eskuz banaka trinketean eta Sarako Izarrako Unai Etxeberri eta Peio Larretxea, eskuz binaka trinketean Iparraldeko txapeldun izandakoak. Bertzetik, pilota eskolak sartzea egin du eta Joko Garbia ere eskainiko dute berriz.



Bi saridunak, epamahaiko kideekin batera. UTZITAKOA

GASTRONOMIA

Dantxarineko 13. Pintxo Lehiaketa Landibar-Peio Bentak irabazi du

QR kodeen bidez botoa eman duten bezeroen saria, aldiz, Axularreko Biok-Drunken Duck jatetxeak eskuratu du

Arantxa Etxeberria

Dantxarineko bentetan egin duten Pintxoaren 13. Astearen barrenean egindako Pintxo Lehiaketako irabazleak izendatu zituzten irailaren 20an. Joan den urtean bezala, Landibar-Peio Bentako Julen Zubieta sukaldaria izan da irabazle, *Hogeita-mar* pintxoarekin: Zamburiña errea xanpain eta ganba-krema gainean, whisky ukitua duen saltsa amerikarraren emultsioarekin eta barazki tenpurarekin. Bigarren saria Zaporeak Bentak eskuratu du. Bertzalde, Biok-Drunken Duck (Axular) bentak QR kodeen bitartez botoa eman duten bezeroen saria lortu du.

Azkenik, parte hartu duten bentetan gastatzeko 200 euroko txekea ere zozketatu zen botoa eman zutenen artean. Hurrengo ediziorako nahitaezko bi osagaiak erabaki ziren: tomatea eta arraina.

MENDI LASTERKETAK

Urdazubiko 25. Kontrabandisten Lasterketa eginen dute urriaren 10ean



Gaueko Lanak ibilbidea ezagutzera bildutakoak. A. ETXEBERRIA

A. Etxeberria

Aurten Urdazubiko Kontrabandisten Lasterketa berrikuntzekin dator. Asteburu osoko programazioa egun bakarrean bildu eta urriaren 10ean ospatuko dute lasterketaren 25. urteurrena. Larunbatean 09:00etan maratoi erdia eginen duten lasterkariak abiatuko dira plazatik. Eguerdian indarrak hartzeko, paella izanen da lasterkari zein laguntzaileentzat eta arratsaldean lasterketekin segituko dute. UKL txikirekin hasiko da arratsaldea, 17:00etan txikienak abiatuko baitira. Gero, 19:30ean Gaueko Lanak lasterketa abiatuko da, egunaren azken erronka osatuz. Horretaz gain, berriro ere indarrak hartzeko parada izanen da, baita nahi eta ahal duenak gaua luzatzeko ere.



Maratoi Erdiko bidea egiten.

Hala ere, egun handiaren aitzinetik UKLko ibilbideak ezagutzeko aukera izan zuten, irailaren 19an Gaueko Lanak lasterketaren ibilbidea ezagutu zuten eta irailaren 20an, berriz, maratoi erdiarena.

LEHIAKETAK

Burgete arrazako zaldi eta behorren lehiaketa eginen dute urriaren 4an

A. Etxeberria

Aurten ere Burgete arrazako zaldi eta behorren lehiaketa prestatu dute Urdazubin, urriaren 4rako. Igande goizean lehiaketan parte hartuko duten buru guztiak ekarriko dituzte plazara eta, gero, hamabi kategoriatan bereizitako lehiaketa hasiko da. Sari banaketaz gain, artisau azokaz eta bertze zenbait azienda ikusteko aukera ere izanen da plaza inguruan. Gainera, herriko zenbait elkartek eta gazteek ere jan-edatekoa ere eskainiko dute. Beraz, ez da deus falta izanen igande honetan Urdazubin, azoka bikainaz gozatzeko.



BISITATU

URDAZUBI-DANTXARINEA

PLANIK ONENA DA!

100 saltoki baino gehiago zure eskura

Moda, aisialdia, pintxoak, lurrin-dendak, likoreak, janari-dendak, arropak, oroigarriak, bitxiak, jatetxeak...

BENTAK ZABALIK DAUDE URTE OSOAN ZEHAR ASTEKO 7 EGUNETAN



Eta honako hauek bisitatzeko aukera eskaintzen duen Nafarroako herri eder tipiko bat:

Lezeak, museoa, monasterioa, erakusketak, ibilbideak, errota…



www.urdax-dantxarinea.com

Urdax-Urdazubi Dantxarinea
www.urdax-dantxarinea.com

Dantxarinea
www.urdax-dantxarinea.com

Subvencionado por el Gobierno de Navarra
Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Nafarroa
Reyno de Navarra



Errugbiko arduradunak. JL BESSONART

ERRUGBIA

SPUC taldeak abiatu du sasoia eta I. Touch errugbi txapelketa mistoa urriaren 3an

Gizonezkoen talde nagusiak galdu egin zuen lehen partida eta Sorginak taldeak antolatu du larunbateko txapelketa

JL Bessonart

2026-2027 sasoiko lehen partida kaskarra izan du SPUC errugbi taldeak Lembeyeko ekipoaren kontra galduta (16-32). Halere, aurtengo helburua R1 mailako sailkapenean ongi kokatzea finkatua dute. Xede hori betetzeko, oztopoak izanen direla badakite, eta iazko urtea epela izan bazen ere, iduriz baldintza hobeagotan abian dira. Senpertar trebatzaile berriak, David Gaillet eta Paxkal Borthaire ongi motibatuak agertu dira. Beren aitzinean aurkituko dituzte Lembeye, Orthez, St Martin de Seignanx, Bardoze, Benejacq, Aspe, Sévignac, Uztaritze-Jatsu eta Marsacq.

Alor berean, urriaren 3an, Senpereko Sorginak herriko aisialdiko emakumeen errugbi taldeak antolatu du lehen Touch Errugbi txapelketa. Sei taldek (emakumeenak eta mistoak) parte hartuko dute.

AISIALDIA

Eguzkia lagun, neska-mutiko parrasta Haur Joko Egunean buruilaren 3an



Haurrak jokoetan egarrituak. JL BESSONART

JL Beesonart

Eskolako sartzea bezain laster, buruilaren lehen asteazkenean, kirol zelaiak aurkitu du haur parrasta polita, eguzkia lagun. Jarduera ainitz proposatuak ziren, hauetan zenbait inizia-zioa SPUCeko kide batzuekin: adibidez bizikleta, errugbia edo zango baloia. Bertzeak bertze, suhiltzaileek erakutsi dituzte lehen sokorri-jestuak. Haur eta helduen artean jostatzeko egurrezko jokoek izan dute arrakasta, baita gaztelu puzgarri batek ere.

Aste Urdina urriaren 5etik 8ra

Urriaren 5ean, Esku-joko arte plastikoko saioa eta piknika. **Urriaren 6an**, 09:00etan Ibilaldi urdina eta 14:00etan antzerkia. **Urriaren 7an** yoga eta gimnasia egokitua eta *Brain Ball* tailerra. Izen ematea Gizarte Ekintzarako Herri Zentroan (05 59 54 74 96 edo *accueil.ccas@senpere64.fr*).

HISTORIA

1609ko auziei buruzko mintzaldia eman du Jean Sauvairek

Gai horrek betidanik jakin-mina sortzen du eta Inharria baserria ongi bete da, Jean Sauvaire historiolari senpertarraren azalpenak aditzeko. De Lancre epaileak hainbertze emazte hobengabe kondenatu zituen.



JL BESSONART

PILOTA

Peio Larralde eta Antton Luro nagusitu dira Amotzeko pilota lehiaketan

Aspaldi ez zen horrelako esku huskako pilota partidarik ikusi, berezko pilotarien parte hartzearekin. Berrikitan sorturiko Plekari egiturak, Senpereko pilota sekzioaren partaidetzarekin, antolatua zuen torneo zinez interesanta, nahasiz berezkoak eta amateurrak. Finalean, Peio Larraldek eta Antton Lurok 40-28 irabazi zieten Manex Etxeberri-Pachecori eta Battita Ducassouri. Ororen buru, pilotari, antolatzaile eta ikusleak, lorietan gelditu dira azpimarratuz trinketa honek eskaintzen duen joko bizi eta animatua. Segida izatea merezi luke Mendionde trinketeak.



Larralde eta Luro (urdinez) irabazleak eta Etxeberri-Pacheco eta Ducassou.


“Parte izan
eta kontziliatzea”
Benetako leku batean bizitzea,
komunitatean.
Zure bizitza kontziliatzea,
zarenari uko egin gabe.
Hori eta askoz gehiago da herria.
Herria,
desira leku
Herrian dago bilatzen duzuna
Informazio gehiago
Gobierno
de Navarra
Nafarroako
Gobernua
AGENDA
2030
NAVARRA
NAFARROA
Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua



Estefi Etxebeste, 166 kiloko harria bizkarrean berdintzen. IBON ERRAZU URIA



Iturendarra jendetza agurtzen.

HERRI KIROLAK

Harri altxatzearen historian sartu da Estefi Etxebeste iturendarra Joaldunen Egunean

166 kiloko harria altxatu zuen irailaren 19an, emakumeen errekorra, Idoia Etxeberriak 2016tik zuen marka hobetuz



Etxebeste eta marka berriko harria.

TTIPI-TTAPA ITUREN

Iturengo plaza marka historiko baten lekuko izan zen irailaren 19an. Iturengo Joaldunen Egunean, herriko Estefi Etxebeste Giraldo harri altxatzaileak errekor saiakera egitekoa zuen. 165 kiloko harria iragarria zegoen eta halaxe zuen markatua, baina pisatzerakoan 166 kilo eman zuen. Aitzineko errekorra Idoia Etxeberria oriotarrak egin zuen 2016an (163,4 kilo). Bada, 2026ko irailaren 19tik Estefi Etxebesteren izena egonen da idatzia kirol honen marka liburuetan. Izan ere, lehen saiakeran harria gibelera erori baldin bazitzaion ere, iturendarrak ez zuen kontzentraziorik galdu eta bigarrenean lortu zuen 166 kiloko harri laukizuzena bizkarrean berdintzea. Etxebeste eta Iturengo plaza betea zuten ikusleak pozez txoratzen. Segidan, bertze saiakera bat ere egin zuen Etxebestek eta hartan ere harria altxatzea lortu zuen.



Estefi Etxebeste eta herri kirol jaialdian parte hartu zuten bertze kirolariak.



Iñaki Perurena ere, 300 kilokoa altxatzen lehena, Iturenen egon zen.

HERRI KIROLAK

Nafarroako lehen mailako aizkolari kanporaketa urriaren 10ean

TTIPI-TTAPA LEKUNBERRI

Nafarroako gizonezkoen lehen mailako aizkolari txapelkeren kanporaketa jokatuko dute urriaren 10ean, igandean, 12:30ean hasita Lekunberriko plazan. Hamar aizkolari ariko dira lehian, azaroaren 13an, Doneztebeko ferietan jokatuko den finalerako bortz txartelen bila.

Eskualdeko aizkolari bakarra izanen da kanporaketan, Leitzako Jon Rekondo. Berekin batera, gaur egungo txapelduna, Otsagabiko Iker Vicente, Arribeko Ibai Soroa eta Txomin Amundarain, Arostegiko Oier Kañamares, Julen Kañamares eta Xuban Kañamares, Errazkingo Eneko Saralegi, Altsasuko Oier Mitxelena eta Dorraoko Iban Resano ariko dira. Bortz enbor moztu beharko dituzte: Bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat. Finaleko lanaren erdia, hain zuzen. Bortz lehenbizikoek jokatuko dute finala, baina azken bi sailkatuek maila galduko dute.

Joan den urtean bere hamargarren txapela lortu zuen Iker Vicentek, Mikel Mindegiaren marka berdinduz. Aurten berriz ere irabaziko balu, hamaika txapelekin, Nafarroako txapel gehien duen aizkolaria izanen litzateke.

FUTBOLA

Erregearen Koparako txartela jokoan asteburuan Giltxaurdin

Nafarroako Superkopa irabazi ondotik, Espainiako Erregearen Kopa jokatzeko aukera du Baztan Futbol Taldeak. Horretarako, Aragoiko Atletico Calatayud taldearen kontrako kanporaketa gainditu behar du. Asteburuan izanen dute itzulerakoa Giltxaurdin.



VI. Plazaz Plaza Txapelketako bikote onenak eta Erratzuko txapelketetakoak.

PILOTA

Iturriaga eta Mendiburu txapeldun Adosen VI. Plazaz Plaza Txapelketan

Gorostapoloko frontoiaren mendeurrenean jokatutako finalean bosgarren txapela jantzi du pilotari leitzarrak

TTIPI-TTAPA ERRATZU

Iturriaga leitzarrak eta Mendiburuk irabazi dute Plazaz Plaza txapelketaren VI. edizioa, irailaren 12an jokatutako finalean Oskozi eta Ruiz de Larramendiri 30–18 gailenduta. Gorostapoloko plaza ikuslez bete zen, eta giro aparta izan zen ehun urte bete dituen plazan. Erratzuarrek eman zioten hasiera egunari, fronteniseko eta esku pilotako finalekin. Frontenis txapelketako finalean Martin Etxabek eta Unai Urrutiak 25-7 irabazi zieten Oihan Irigoieni eta Aimar Rekarteri. Ondotik, esku pilota txapelketaren finalean, Gorka Urtasunek eta Joseba Indak 22-5 irabazi zieten Iker Iturburuari eta Joel Garaikoetxeari.

Gero ailegatu zen Plazaz Plazako final handiaren txanda, mendeurreneko ospakizunari emakumezkoen pilotarekin segida emateko. Finalaren hasieran Oskoz eta Ruiz de Larramendi hobe aritu baziren ere (8-14), bigarren zatian norabidea aldatu eta Iturriagak eta Mendiburuk nagusitasunez irabazi zuten (30-18).

Iturriagak bosgarrena segidan

Iturriagak marka bikaina jarri du Plazaz Plaza Txapelketan bost txapel jarraian irabaziz, denak bikote ezberdin batekin. Oraingoan, Mendibururekin batera, Gorostapoloko mendeurrenean eskuratu du azkena, emakumezkoen pilotarentzat egun borobila izan den honetan. Ados Pilotak antolatutako txapelketak emakumezkoen esku pilota herrietako plazetara eraman du bertze uda batez.

PILOTA

V. Bortz Kirol Txapelketa urriko lehen asteburuan abiatuko da

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Erreka elkarteak bosgarrenez antolatu duen Bortz Kirol Txapelketa urriaren 2an hasiko da. Lapurdi, Gipuzkoa eta Nafarroako hamaika jokalari lehiatuko dira. Izen-abizena, nondik datozen eta gehien maite duten jokamoldeak:

- Jon Barberena (Garralda, xare)
- Andoni Zabala (Oiartzun, joko garbi)
- Jon Muruaga (Urruña, joko garbi)
- Julen Iriarte (Narbarte, paleta)
- Xan Karrikaburu (Azkaine, joko garbi)
- Aritz Carballo (Aurizberri, xare)
- Eneko Zanponi (Baiona, joko garbi)
- Eñaut Berrendegi (Azkaine, eskua)
- Joanes Iratzoki (Azkaine, joko garbi)
- Ellande Daguerre (Azkaine, eskua)
- Ximun Daguerre (Azkaine, eskua)

BOTE LUZE TXAPELKETA

Etxalar eta Senpere lehen txapeldunak



UTZITAKOA

Iruhbi Pilota egitasmoaren baitan, Nafarroako Euskal Pilota Federazioak eta Laxoa Elkarteak antolatuta, lehenbiziko aldiz egin dute aurten Mendialdeko Bote Luze Txapelketa, eta arrakasta polita izan du. Sarako besten barrenean, irailaren 13an jokatu zituzten finalak. Emakumezkoen finalean, Etxalarrek 9-5 irabazi zion Berari eta gizonezkoen finalean, Senperek 9-2 irabazi zion Baztani.

PILOTA

Nafarroako frontenis txapeldunak



NAFARROAKO PILOTA FEDERAZIOA

Nafarroako frontball txapelketako finalak jokatu zituzten irailaren 12an Lezkairun. Senior mailan, Santi Yaniz eta Laia Salsamendi eta Nafarroako Kirol Jokoetan eskualdeko pilotariak izan dira txapeldun: Infantiletan, Txarutako Mikel Agerralde iruritarra; kadetetan, Txarutako Joseba Arraztoa iruritarra (Iruritako Mikel Iñarrea taldekideari irabazita) eta jubeniletan, Arkupeko Joana Iratzoki igantziarra.

AGENDA

URRIAK 1-15

INFORMAZIOA BIDALTZEKO.
(0034) 744 48 43 61 / *info@ttipi.eus*

JARDUNALDIAK

SALDIAS
Basaburu Ttikiaren Eguna
Urriaren 3an (egitaraua 30. orrialdean).

LEITZA
Aurrera KEren Eguna
Urriaren 3an (egitaraua 48. orrialdean).

ELIZONDO
Nekazalpunk jaialdia
Baztango Gaztetxean, urriaren 3an (egitaraua 52. orrialdean).

URDAZUBI
Burgete Zaldi Arrazako XIV. Lehiaketa
Urriaren 4an (egitaraua 62. orrialdean).

SARA
Ikusi Mikusi literatura jaialdia
Urriaren 9an eta 10ean (egitaraua 61. orrialdean).

ZUBIETA
Euskararen Eguna
Urriaren 9tik 11ra (egitaraua 27. orrialdean).

LESAKA
III. Kantu Zaharren Eguna
Urriaren 10ean (egitaraua 19. orrialdean).

ARESO
Emakume Artzainen Eguna eta Mendialdeko Azoka Ibiltaria
Urriaren 11n (egitaraua 50. orrialdean).

ERAKUSKETAK

ELIZONDO
'Berotzen dituzten eskuak' argazki erakusketa
Arizkunenean, urriaren 1etik 31ra, 16:00etatik 20:00etara.

LESAKA
Victor Masferreren 'Denboraren materia' eskultura erakusketa
Liburutegian, urriaren 8tik 30era, 15:00etatik 20:00etara.

IKUSKIZUNAK

BERA
'Balkoi atzean emakumeak kantari' antzezlana
Boga-Biga konpainiaren eskutik.
Kultur Etxean, urriaren 3an, 17:30ean.

ARANTZA
'Jo!' antzezlana
Eskolako gimnasioan, urriaren 3an, 19:00etan.



Nekazalpunk jaialdia eginen dute urriaren 3an Baztango Gaztetxean. UTZITAKOA



Haur eta gazte literaturaren jaialdia urriaren 9an eta 10ean Saran. IKUSI MIKUSI

ETXALAR
Bertso pilota jaialdia
Frontoian, urriaren 4an, 12:30ean.

LEITZA
'Sutondoko ipuinak' ipuin kontaketa
Kornieta elkartean, urriaren 2an, 17:30ean.

BESTAK

ANIZ
Herriko bestak
Urriaren 2tik 5era (egitaraua 52. orrialdean).

GARTZAIN
Herriko bestak
Urriaren 9tik 12ra (egitaraua 54. orrialdean).

SOLASALDIAK

DONEZTEBE
Tokiko elikadura sistemari buruzko saioa
Galbaraialde eraikinean, urriaren 3an, 09:00etan.

LESAKA
'La Rebelión de la Esperanza'
Mikel Etxalarren eskutik.
Eskol Ttikin, urriaren 3an, 18:00etan.

BERA
'Etxeko langileen lan eskubideak'
Beralandetan, urriaren 7an, 17:00etan.

'El eco que Juana dejó' liburu aurkezpena
Mertxe Irazokiren eskutik.
Herri liburutegian, urriaren 8an, 18:30ean.

ELIZONDO
'Haurra eta gatazkak'
Nerea Ordoki eta Intza Elizalderen eskutik.
Arizkunenean, urriaren 7an, 19:00etan.

'Dantzak eta generoa Euskal Herriko plazetan' mahai ingurua
Ihitz Iriart, Maite Iribar eta Oier Araolazaren eskutik.
Arizkunenean, urriaren 8an, 19:00etan.

'Sorgina, banaiz' dokumentala eta solasaldia
Asisko Urmenetaren eskutik.
Arizkunenean, urriaren 15ean, 19:00etan.

NIRE AUKERA

«Ez bakarrik gazteak, herritar guztiak aritzen dira laguntzen»

UNAX ELIZAINTZIN IRUNGARAI GARTZAINGO GAZTEA

Unax Ordoki GARTZAIN

Gartzaingo 22 urteko mutil gaztea da Unax Elizaintzin Irungarai. Ikasten eta lanean igarotzen du gartzaindarrak urtea, bertze hainbat afiziori ere denbora eskainiz bere egunerokoan. Herriko gazte taldean dago eta ate joka dituzten Gartzaingo besten antolaketan ere ari da aurtengoan.

Gaur egun ingeneritza-ikasketak egiten ari da Arrasaten: «Batxilergoa akituta Iruñera joan nintzen ikastera, baina azkeneko bi urteetan Arrasaten ari naiz ikasten ingenieritza-elektronikoa». Horrez gain, udaran ere ez du deskantsurik hartzen, unibertsitateko ikasketak alde batera uzten dituen hilabeteetan lanean aritzen baita: «udan, unibertsitatean ez nagoenean, sorosle gisa egiten dut lan». Irakurtzea eta kirola ere maite dituela aipatu digu baina, «noski, baita lagun eta familiarekin denbora igarotzea ere».

Gartzainez galdetuta, ederra dela erran digu: «mendiz inguratuta dagoen herri ttiki eta polit bat» dela, eta «arras gustuko» duen lekua, «hiru auzoz osatua». Herriko bazterren artean Ariztegi auzoa aipatu digu bereziki, «bere ermitarekin; herriko lekurik politenetakoa» da Elizaintzinentzat. Mendian goiti ere badu berezia egiten zaion txoko bat, «Urballorako bidea», baina goizpasa bat proposatu beharko balu «Peña Albako buelta» izanen zen, Baztango mendirik gustukoena baitu.

Antolakuntza, gazteen esku

Gartzaingo bestak Pilarika egunaren inguruan ospatzen dira. Aurten, urriaren 9a izanen da «lehen besta eguna gartzaindarrentzat, eta urriaren 12a, astelehena, azkenengoa». Dagoeneko bestak antolatzen ari dira gazteak, eurek baitira bestak antolatzeaz urtero arduratzen direnak: «Herrian ez dago besten antolamenduaz arduratzen den mugimendu edo talde formalik, baina gazteek hartzen dugu ardura». Elizaintzinek azaldu duenez, gazte taldeak hainbat eginkizun betetzen ditu herrian: «talde bat osatzen dugu, bai bestak eta bertzelakoak antolatzeko, baita gure artean harremanak indartzeko ere». Urtero «bi edo hiru gazteek» hartzen dute bestak antolatzeko ardura nagusia, nahiz eta «denek» parte hartzen duten momentuan bertan. Aurtengoan, Unax bera eta bertze gazte bat ari dira lan gehiena egiten. Ardura hori, ordea, urtetik urtera aldatzen doa.

Elizaintzinen arabera, urtetik urtera aiseago egiten dute lan bestei dagokionez: «Orain gauzak errazago egiten ditugu, gehien bat esperientzia lortu dugulako». Bere ustez, «aintzinetik egon direnek utzitako esperientzia eta eskaintzen duten laguntza handia da», eta, hala ere, ezinbertzekoa antolakuntzan hobetzen segitzeko.



Gartzaingo gaztea elektronikan eta besten antolaketan, kurtso hasieratik.

Azpimarratu duenez, nahiz eta antolakuntzan gazteak aritu, bestak direnean parte hartzea ez da gazteetara mugatzen: «Ez bakarrik gazteak, bestetan herritar guztiak aritzen dira laguntzen».

Gazteen inplikazioari dagokionez, erraza dela dio: «Aunitzetan ez da laguntza eskatu beharrik, gazteek berek badakitelako zer egin behar den eta prest egoten direlako kolaboratzeko».

> **«Gazte talde bat dugu bestak antolatzeko, eta gure artean elkartzeko ere»**

> **«Orain gauzak errazago egiten ditugu, gehien bat esperientzia lortu dugulako»**

Betiko planera itzuli

Besten egitaraua ez da aunitz aldatzen urtetik urtera», hala azaldu digu azkenengo urteko antolakuntzan dabilen gazteak: «Lehen egunean txupinazoa eta baztan zopak izaten ditugu. Bigarrenean, gazte eta haurren eguna izaten da, eta bazkaria, afaria, jokoak eta bertzelako ekitaldiak antolatzen ditugu. Ondotik, zikiro jatea izaten dugu».

«Aurtengo bestetan, ez da berrikuntza handirik izanen», hala erran digu Elizaintzinek: «Iazko aldaketen ondotik, ohiko egitaraura itzuliko gara». Iaz bi asteburutan banatu behar izan zituzten ospakizunak. Aurten asteburu bakarrean izanen dira. Hizketaldia borobiltzeko, bestetako momenturik berezienaz galdetu eta... ez du zalantzarik izan: «Niretzat momenturik bereziena zikiroa da, herritar gehienak elkartzen baikara bazkaltzeko eta, arras polita izaten da».

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. Logela bat errentan emateko. ☎646 67 51 70.

SALGAI

LESAKA. Eltzeta karrikan, 96 m²ko pisua salgai. Sukaldea, egongela-jantoki handia, 4 logela eta bainugela. 1. solairuan. Igogailua. Supermerkatua bertan eta aparkatzeko arazorik ez. Altzariz hornitua. Bizitzera sartzeko prest. ☎686 80 54 35 (Manuel).

ETXE KONPARTITUAK

Iruñea edo inguruan logela bila ikasketa garaian. ☎642 38 66 00.



ETXALAR. Bertze lagun batekin banatzeko etxea errentan emateko: ohe handia eta komuna dituen logela. Etxeak loategia, terraza eta garajea ditu. 608 37 53 24.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. Ile apaindegia errentan emateko. ☎659 07 56 59.

LANA

ESKARIAK

Barreneko langile (*interna*) aritzeko lan bila. ☎682 81 11 02.

Neska euskaldun jatorra haurrak zaintzen laguntzeko prest. Bortziriak, Irun ala Hendaia inguruan. Gidabaimenarekin. Ordua 12,5 euro guti goiti-beheiti. Edozein gauza baldin bada, Whatsapp bidez idatzi. ☎636 18 15 46.

Orduka lanak edo lan kargak arintzekoak egiteko prest, lisatze lanak eta abar. Interesatuek idatzi: *zorion@ni.eus*.

24 urteko neska arduratsua eta goxoa lan egiteko gogoz. Adinekoak edo haurrak zaintzen aritzeko prest, barreneko langile (*interna*). Konpainia, arreta, etxeko lanetan laguntza, otorduak prestatu eta behar duten laguntza guzia emateko prest. Beti pazientziarekin, errespetuarekin eta dedikazioarekin. ☎642 12 76 27.

Adinduak edo haurrak zaintzeko barneko langile (*interna*) lan egiteko prest (orduka bertzela). Segidan has daiteke. ☎641 69 53 36.

Gauetan edo egunez Iruñeko ospitaleetan pertsonei konpainia egiteko prest dagoen neska euskalduna. Osasun arloko ikasketaduna. Gaixoak zaintzen esperientziaduna. Edozein duda izanez gero, Whatsapp bidez idatzi. ☎609 84 05 46.

Lourdes, 55 urteko emakumezko euskalduna, gauez eta asteburuetan ospitaletan konpainia egiteko prest. Tekniko soziosanitario, hezkuntza-laguntza eta Pertsonarengan Zentratutako Arreta (PZA) tituluak dituena. Arduratsua. ☎619 91 33 75.

Erizain laguntzaile titulua duen emakume euskaldun bat adineko pertsonak zaintzen aritzeko prest. Astelehenetik ortziralera, Bortziriak eta Malerreka inguruan. ☎661 27 79 43.

ESKAINTZAK

BERA. Conservas Martikon lan egin nahi duzu irailetik aitzinera? Interesa baduzu, deitu 699775621era edo eman izena webgunean (*https://martiko.com/unete-a-martiko/*). Zure zain egonen gara Beran!

IZPEGI. Zerbitzari bila Irigoieneko bentan. Interesatua izanez gero, edo informazio gehiagorako, deitu 948 45 32 14ra edo idatzi *ventairigoieneko@hotmail.com* helbidera.

IBARDIN. Beola Etxea jatetxean zerbitzaria behar dute. 30 orduko kontratua, 12:00etatik 17:00etara. Astean 5 egun. Interesatuek bidali curriculuma: *Beolaetxea@gmail.com*.

IGANTZI. Irrisarri Landen irailaren 14ko astean hasi eta azaroaren 1era arte, garbitzaile aritzeko langile bila. 32 orduko lanaldia. Ordutegia: Astean 4 egun 10:00-16:30 eta egun bat 10:00-18:00. Astearte-larunbat edo asteazken-igande lan egiteko. Gidabaimena izatea kontuan hartuko dute. ☎948 92 89 22 / *rrhh@irrisarriland.com*.

BERA. Haurra zaintzeko norbait behar da. ☎640 95 30 02.

LEITZA. Geltokian, sukaldean eta tabernan lan egiteko langile baten bila ari dira. Euskaraz jakitea ezinbestekoa da eta esperientzia izatea kontuan hartuko dute. Bidali curriculuma: *leitzakogeltokia@gmail.com*.

BERA. Zalain jatetxean lanaldi osoan aritzeko zerbitzari bila. Interesatuek bidali curriculuma helbide honetara: sainz.amaia@gmail.com. ☎948 63 09 67.

BERA. Astelehenetik ortziralera, goizez, hiru orduz lan egiteko bertako pertsona baten bila. Adineko lagun bati laguntzeko, otordua prestatu eta etxeko lan batzuk egiteko. ☎646 35 69 83.

DANTXARINEA. Maspormenos kirol dendan saltzailea behar dute, jardunaldi osoan aritzeko. Bidali curriculumak: *dantxarinea@maspormenos.net*. ☎646 22 69 90.

Aralarko San Miguel Santutegian jendea behar da, ostatua eta jatetxea eramateko. ☎649 31 39 84 / 618 57 46 31.

Hotel Baztanen sukaldaria edo sukaldari laguntzailea behar da. Interesatuak bidali curriculuma *ji@hotelbaztan.com* helbidera. ☎948 58 00 50.

SALDIAS. Goizez aritzeko umezain bila. Astelehenetik ostiralera. Informazio gehiago nahi izanez gero, telefono honetan. ☎640 81 81 89

ZERBITZUAK

PINTURA LANAK



Bidasoa Dekorazioa eta Pinturak. Klase aunitzetako lanak. Paretak leundu, etxeko bertze konponketak, hezetasunaren kontrako tratamendua, lakatuak... Nafarroa iparraldean, Irunen, Donostian... aritzen gara. Baita urruti dauden baserrietan ere. Eta partikularrentzat administrazio lanak. ☎619 88 97 23.

INFORMATIKA KLASEAK

Informatika klaseak ematen ditut etxez etxe (partikularrak) eta enpresentzat. Gaiak: Ordenagailuen erabilera, ofimatika, Adimen Artifiziala egunerakoan, mugikorrak helduentzat, hodeia, banku digitala, online erosketak, administrazio elektronikoa eta Interneteko segurtasuna. Arazo zehatzetara-

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 63 54 58 — www.erran.eus

744 48 43 61 — info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **15 euro** ordaindu behar da
ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **20 euro**
Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAk ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg kanal
- Extra 7,03 €
- 1.koa 6,95 €
- 2.koa 6,70 €

Urruxak: €/kg kanal
- Extra 7,13 €
- 1.koa 7,00 €
- 2.koa 6,80 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttikiak
- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak
- Urruxak 285,00 €
- Idixkoak 390,00 €

Aretze nabarrak
- Urruxak: 120,00 €
- Idixkoak 150,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg
- Sortu berriak:5,59/5,69 €
- Zaldi-behorrak: 2,00/2,1€

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak
- 6-8 kilokoak: 9,34/9,44 €
- 8-10 kilokoak:7,44/8,14 €

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 34 €
Zerri gizena 1,340 €
Zerramak 0,400€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua irailaren 14tik 20ra bitarteko prezioak)

ko soluzio puntualak ere bai. Klaseak euskaraz zein gaztelaniaz. ☎661 15 50 56 / *info@ji-informatica.com*.

DENETARIK

SALEROSKETAK



Pago eta haritz egur idorra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako. Etxera eramateko zerbitzua. ☎690 08 56 65.



LEITZA. Lurreko suko tximinia berogailua salgai. Kristalezko ate gillotinaduna. Harriak eta zurak barne. Prezio eta egoera onean. ☎669 70 79 16 / 609 06 71 23.



Arraun makina salgai, Sportstech prower. Gutxi erabilia. 200 euro salgai. Galderak Whatsapp bidez idatzi. ☎636 18 15 46.

GALDU-AURKITUAK



LESAKA. Irailaren 5ean, Pantxoa eta Peioren emanaldian, eguzkitako antiojo graduatuak bere funda barrenean galdu zituzten. ☎679 42 36 07 (Jose Inazio).

ANIMALIAK

OPARITZEKO



Artzain zakurkumeak oparitzeko. ☎679 58 06 71.



BERTIZARANA. Anuk izeneko zakurra adoptatzeko, 2019koa. Mestizoa, Beltza eta marroia. 17 kilo ditu. Zakur ona, bertze zakurrekin ongi moldatzen dena. Paseatzea gustuko du. ☎670 58 26 68.



BERTIZARANA. Nala izeneko zakurra adoptatzeko, 2021ekoa. 28 kilo. Euskal artzain zakurraren eta setter ingelesaren arteko nahasketa. Zakur ona eta babeslea. Ura eta mendian ibiltzea gustatzen zaiona. ☎670 58 26 68.



Bonie eta Mari, bi pirata txiki altxor bila. Bi katakume eme dira. Ikusmenaren zati bat galdu dute, baina ez abenturarako gogoa: jostalariak, maitagarriak eta biziz beteak dira. Ez dute maparik behar altxorra aurkitzeko... altxorra zu zara eta aurkituko zaituzte. Elkarrekin edo banaka adoptatzeko. ☎652 75 08 17.

SALDU

Oilar enanoak salgai. Hanketan lumekin. ☎646 26 63 47.

Border Collie arrazako zakurkumeak salgai. Gurasoak animaliekin lan egiten dutenak. ☎678 33 53 01.



5 urteko zezena salgai. Interesa duenak deitu edo ikustera joan. ☎661 08 11 10.

MOTORRAK

TAILERRAK

Mendaur Motor
Leitzako bidea • DONEZTEBE
T. 948 450 333

Kotxe salmenta | Marka guztiak

BIGARREN ESKUKO ESKAINTZA BEREZIAK

SUZUKI GRAN VITARA
1.6 GASOLINA | 3 ATE



SUZUKI GRAN VITARA
1.9 DDIS | 5 ATE



www.mendaurmotor.com

Egutegiak 2027

Egutegiak egiten ditugu
hainbat formatutan

Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe!







KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

ttipi-ttapa | Koskontako bidea, 7-1. 31770 LESAKA
T. 948 63 54 58 | kulturkari@ttipi.eus | www.kulturkari.com

OROIGARRIA



Bixente IGARZABAL VILLANUEVA

Suitzan hil zen, 2026ko irailaren 6an, 54 urte zituela.

ZURE KUADRILLA

OROIGARRIA

Bixente IGARZABAL VILLANUEVA

Lesaka, 2026ko irailaren 6an

Mendiak eman zizun askatasuna eta bertan aurkitzen zenuen bakea. Erakutsi duzun gogo eta gaitasunak ez zuen maldarik, ez mugarik. Zure irri eta kirolerako zaletasuna izanen ditugu beti gogoan.

OSABA-IZEBAK ETA LEHENGUSUAK



URTEURRENA

Beñat ETCHART VERDU

Urdazubin, 2011ko urriaren 6an

XV. URTEURRENA



Maite zaitut,
olatuek itsasoa maite duten bezala.

AITA, AMA, JOKIN ETA FAMILIA GUZTIA

URTEURRENA

Juan Pedro AGERREBERE ITURRALDE

Iruritan, 2025eko irailaren 28an

I. URTEURRENA



Erraza izan zen zu maitatzea
Ezinezkoa, ordea, zu atzentzea.
Beti gurekin izanen zara.

ZURE FAMILIA

HILBERRIAK

- **Francine Lepine**, Sarakoa, irailaren 10ean, 75 urte zituela.
- **Jose Maria Olazar Agerralde**, Elgorriagakoa, irailaren 9an, 97 urte zituela.
- **Mª Josefa Bertiz Ganboa**, Sunbillakoa, irailaren 11n, 80 urte zituela.
- **Lourdes Oiartzabal Igoa**, Lesakakoa, irailaren 13an, 89 urte zituela.
- **Mª Josefa Iturria Zubieta**, Etxalarkoa, irailaren 13an, 95 urte zituela.
- **Juan Martin Jaimerena Ilzauspe**, Erratzukoa, irailaren 19an, 70 urte zituela.
- **Benita Iturria Matxikote**, Goizuetakoa, irailaren 20an, 87 urte zituela.
- **Jose Luis Virto Totoricagüena**, Igantzikoa, irailaren 21ean, 84 urte zituela.







ZORION AGURRAK



Zorionak, **Laia**! 6 urte bete dituzu! Segi zure amets guziei eta segi gure bihotzak zure alaitasun eta argitasunarekin betetzen! Ilargiraino eta bueltan maite zaitut!



Zorionak, **Inar**! Etxeko ttikienak 3 urte beteko ditu urriaren 18an! Segi gure egunak goxatzen zure alaitasun eta bihurrikeriekin. Asko maite zaitut, bitxito!



Aunitz urtez **Ekhi**! Gure moñoñok urriaren 6an lau urte beteko ditu. Besarkada haundi bat familia guziaren partez!



Aunitz urtez **Arene**! Irailaren 24an 5 urte bete dituzu! Muxu eta besarkada handi bat zure familiaren partetik!



Arantzako **Intza Mendizabal Maiz**ek 7 urte bete ditu irailaren 24an. Aunitz urtez! Besarkada eta muxu haundi bat familia guziaren partez!



Amaiurko **Alain Ariztia Garmendia**k 4 urte bete ditu irailaren 30ean. Zorionak eta aunitz urtez!! Muxu handi bat etxekoen partetik!!



Goren Mujika Elizalde amaiurtarrak urriaren 6an 9 urte beteko ditu! Muxu haundi bat eta ongi pasa zure egunean *rubio*!!



Leitzako **Aritz eta Garazi Sagastibeltza Lazkano**k irailaren 14an eta 20an urteak bete dituzte. Zorionak *sozios*!! Espero dugu bikain ospatu izana zuen eguna!! Segi beti bezain alai, eskuzabal eta ausart bikote! *Matte zattuegu.* Zuen lagunak Peio eta Maider.



Zorionak *txipitajo*!!! **Inar**rek urriaren 8an 6 urte beteko ditu. Jarraitu orain arte bezalako alaia eta maitagarria izaten. Lesakako eta Tolosako familiaren partez!! Muxu haundi bat!!



Lesakako **Jare eta Endara Maia** lehengusinek 15 eta 7 urte beteko dituzte urriaren 5ean eta 6an. Muxu haundi-haundi bat familia guztiaren partetik.

EZKONTZAK

• **David Etxeberri eta Cindy Hariscain**, irailaren 5ean Saran.

SORTZEAK

• **Julen Lastra Jorajuria**, Sarakoa, irailaren 4an.

Aunitz urtez!

Zoriondu senitartekoak eta lagunak Ttipi-Ttaparen bitartez. Hainbat bide dituzu: **Internetez** (*http://erran.eus/zorionagurrak*), **mezua bidalita** (*info@ttipi.eus* helbidera, edo Whatsappez 744 48 43 61 telefonora) edo Ttipi-Ttapara **etorrita** (Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA).



PLAZAN BAZAN

SUDOKUA


K		E	A		T
	A		S	K	
U			E	S	K
	E	K		A	
E		S	U		
A		T	K		S




Bete itzazu hutsuneak SUTEAK hitza osatzen duten hizkiak behar bezala paratuz (S, U, T, E, A eta K). Oroitu hizkiek behin agertu behar dutela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

MARGOTU

Hori da sutea! Eman iezaiozu kolorea irudi honi.



DOMINOA



Domino honek suteekin du zerikusia. Egin itzazu hutsuneetan behar diren marrazkiak domino zati honek zentzua izan dezan. Sei marrazki hauek osatzen dute:



Suteetako ur hargunea | Su itzalgailua | Sua | Sirena | Aizkora | Tutu malgua



INTERNETEN ERE BAI!

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

Ttipi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU TRUK
% 80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 **LESAKA**
T. **948 63 54 58** | M. **744 48 43 61**
info@ttipi.eus | **erran.eus**
www.erran.eus/kideak

910 zenbakiko irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Begoña Irazoki Etxeberria | SUNBILLA
Arantza Hotela - SPArako bi sarrera + gosaria
Edurne Biguria Huarte | ELIZONDO
Hara Bi - Kamiseta bat
Axun Mitxelena Ariztegi | ITUREN
EzKexa - Kamiseta bat
Josebe Arrieta Zubillaga | ARIZKUN
Buatxabal - Poltsa bat
Loli Danboriena Arburua | ETXALAR
Mendukilo - Bi sarrera
Edurne Suarez Urrutia | IRUÑEA
La Perla - Talasoterapiako bi sarrera
Juan Angel Ibarra Ibarra | ZIGA
Arrauning - Aukeratu gure jardueretako bat
Eneritz Lanz Ortego | BERA
Taberna edariak - Lote bat
Esther Elizondo Segurola | LESAKA
Anikote - Spinning saioa
Aitziber Olano Etxabarri | LEITZA
Igela - Liburu bat
Kontxi Erro Jauregi | HONDARRIBIA

SALTING IRUÑEA
www.saltingcenters.com



Bi sarrera

ARANTZA HOTELA
www.arantzahotela.com



SPArako sarrera bikoitza eta gosaria

SARAKO LEZEAK
www.grottesdesare.fr



Sarrera bikoitza

BIDASOIL
N-121A errepidea 74. km Behobia/Irun



30 €ko opari txartela

ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

PUNTUTAN
www.puntutan.eus



Aukeratu gure diseinuetako bat

AMA UR
Karrika nagusia, 1 | AMAIUR



Garagardo lote bat

BIHATZ ESKALADA GUNEA
www.bihatz.com



Bi sarrera

OKILLE TAILERRA
okilletailerra.blogspot.com



Eguzkilore bat

FISIOETXEA
Uharte Gartzain, 8 3.C | LEITZA

FISIOETXEA
Ane Egizabal Llata
Fisioterapeuta

Zerbitzu bat

ELKAR
www.elkar.eus



Bi liburu

Sartu
ttipi.eus/ttipi-txartela
eta ikusi
abantaila guztiak!

Oraindik ez duzu **ttipi txartelik**?
Egin zaitez **ttipi lagun**!
Ez galdu sari izugarriak irabazteko aukera eta zure inguruko komertzioetan deskontu esklusiboak izanen dituzu!